

Euskarazko terminologia
juridiko-administratiboa *Jardunaldia*

Iruñea, Euskarabidearen egoitza, 2010-III-04
Euskaltzaindia-Euskarabidea

Ikerketak / Txostenak

Nafarroako lege-testuak: lexiko juridiko elebidunaren hustuketa

URRUTIA, Andres

Notarioa. Euskaltzainburua.

Deustuko Unibertsitateko zuzenbide irakaslea

URRUTIA, Esther

Deustuko Unibertsitateko zuzenbide irakaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onarpen data: 2011-06-24

Nafarroako Foru Komunitatearen Aldizkari Ofizialean argitaraturiko 44 lege-testu elebidunek (gaztelania-euskara, euskara-gaztelania) osatzen dute corpusa. Corpus horretatik abiatuta, 7.757 sarrerako datu-base elebiduna moldatu da, semasiologiaren arabera antolatuta, betiere onomasiologiaren ikuspegia baztertu gabe. Horretarako MULTITERM programa erabili da, eta bertara batu dira hainbat xehetasun, hitz baliokideen esparrutik harago doazenak, testua eta testuingurua erakusteko gogoarekin. Corpusaren gainean egindako hustuketa horrek bi helburu izan ditu: lehena, itzultzaileentzat lagungarri izatea, eta, bigarrena, gaztelaniaren eta euskararen arteko esparru juridiko elebidunaren ontze-lanetan aurrera egitea.

Hitz-gakoak: lege-corpus elebiduna, lexiko juridiko elebiduna, hustuketa lexikografikoa, semasiologia, onomasiologia, Nafarroako Foru Komunitatea.

Partiendo de un corpus formado por los textos en castellano y en euskera de 44 disposiciones legales de la Comunidad Foral de Navarra, publicadas en el Boletín Oficial de Navarra, se ha formado una base de datos igualmente bilingüe, logrando así un léxico de 7.757 entradas organizadas de forma semasiológica, pero con vocación onomasiológica. Para ello se ha empleado el programa MULTITERM, que incluye una serie de datos que van más allá de la equivalencia léxica y proporcionan tanto el texto como el contexto del léxico resultante del vaciado de este corpus legal. El objeto del esfuerzo es doble: proporcionar un instrumento de ayuda a los traductores y avanzar en la configuración de un espacio jurídico bilingüe entre el castellano y el euskera.

Palabras clave: corpus legal bilingüe, léxico jurídico bilingüe, vaciado lexicográfico, semasiología, onomasiología, Comunidad Foral de Navarra.

A partir d'un corpus constitué des textes en espagnol et en basque de 44 dispositions légales de la Communauté Forale de Navarre, publiées dans le Bulletin Officiel de Navarre, une base de données bilingue a été élaborée, donnant un lexique de 7757 entrées organisées de façon sémasiologique bien qu'ayant une vocation onomasiologique. On a pour cela utilisé le logiciel MULTITERM qui comprend une série de données qui vont au-delà de l'équivalence lexicale et qui donnent non seulement le texte mais également le contexte du lexique résultant du dépouillement de ce corpus légal. L'objectif de cette démarche est double : fournir aux traducteurs un outil d'assistance et avancer dans la réalisation d'un espace juridique bilingue entre l'espagnol et le basque.

Mots-clés : corpus légal bilingue, lexique juridique bilingue, dépouillement terminologique, sémasiologie, onomasiologie, Communauté Forale de Navarre.

A corpus has been compiled from 44 bilingual (Spanish-Basque, Basque-Spanish) juridical texts published in the Official Gazette of the Charter Community of Navarre (region). On the basis of this corpus, a bilingual database made up of 7,757 entries has been prepared. It is organised according to semasiology, but without discounting the onomasiological perspective at any moment. The MULTITERM programme has been used for this purpose, and into it have been incorporated many details that go beyond the sphere of equivalent words with the aim of including the text and its context. The extraction carried out on this corpus has had two aims: the first, to be of use to translators, and the second, to move the configuration of the bilingual juridical sphere between Spanish and Basque forward.

Keywords: bilingual juridical corpus, bilingual juridical lexis, lexicographical extraction, semasiology, onomasiology, Charter Community of Navarre.

1. Sarrera. Euskarazko lexiko juridiko-administratiboa: sei ezaugarri

Aurten beteko dira hogeita bost urte, UZEI elkarteak *Zuzenbidea* hiztegia argitaratu zuenetik (1985-2010). Hura izan zen lehen aldia, lan batera bilduta ikusten zituena, modu antolatua eta egituratu baten bidez, euskaraz egon zitekeen lexikoa eta mundu juridikoa.

Lan hori, egungo ikuspegitik bederen, hobetzeko modukoa izan zela uste dugu gehienok, baina, aldi berean, aitor dezagun gutxi izan direla hura gainditzeko saioak. Saio horiek, gainera, ez dute, gure iritziz, behar bezala zaindu lexikografia juridikoak premiazko dituen horiek, hots, sistematikotasuna eta juridikotasuna, bi horiek hizkuntzaren eskakizunekin uztartuz.

Zalantzarik gabekoa da, azken hogeita bost urte hauetan aldatu eta ego-kitu egin dela gure pentsamoldean euskararen moduko hizkuntza gutxietsi eta gutxieneko batek galdatzen duen normalizazio- eta normatibizazio-lana, zuzenbideari dagokionez behintzat.

Horrexegatik, eta atari gisa, ez dugu uste alferrekoa denik halako ezaugarri batzuk zerrendatzea, horiek izan baitira, hain zuzen ere, gaur aurkeztuko dugun egitasmoaren abiapuntuak.

1.1. Elkarrekiko lana

Lehen ezaugarria da, bistan denez, elkarrekiko lanarena, legelariena eta hizkuntzaren teknikariena (hau da, itzultzaileena, terminologoena, hizkuntzaren normalizaziorako teknikariena...). Hori da, izan ere, nahitaezko baldintza, euskararen normalizazioa eta normatibizazioa abiarazteko, zuzenbidearen munduan.

1.2. Espezialitate-hizkerak

Bigarren ezaugarria dator azken aldiotan hizkuntzalaritzak gero eta nabariago barruratu duen gogotik, hain justu ere, espezialitateko hizkerak iker-

tzeko gogo horretatik. Horien artean, zuzenbidearena ez da laburrena. Horren adibiderik irtenena da gaiaren inguruko bibliografia ugaria.

1.3. Itzulpen juridikoa

Hirugarren ezaugarria ageriko zaigu euskararen baitan, itzulpen juridikoaren bidez. Hori dugu azken urteetako gertaera, hazkunde zabalekoa, eta, horrekin batera, hark erakarri dituen zereginak, besteak beste, terminologikoa, lexikografikoa, diskurtsiboa eta pragmatikoa.

1.4. Sistema juridikoa, Nafarroako Foru Komunitatean

Laugarren ezaugarria ematen digu egun bizi dugun antolamendu juridikoak berak. Hortaz, Mendebaldeko Europak ezarri sistema juridiko baten barruan ari gara, konstituzioa arau nagusi dugula, eta zuzenbidearen iturburuak hierarkia jakin baten arabera antolatuta daudela.

Jakina da legearen hizkuntzak baduela horretan lehentasuna, lege idatzia baita zuzenbidearen maila gorena eramaten duena. Nafarroako Foru Komunitatean ere, horixe dugu errealitatea, betiere zuzenbide zibilean ohiturari aitortzen zaion lehen lekua aherentzi gabe. Nolanahi den ere, horrekin batera, ezin ukatuzkoa da egun bi legeria bizi direla elkarrekin, Nafarroako Foru Komunitatean: aurrenekoa, estatuari dagokiona, eta, hurrena, Nafarroakoa, horrek dituen berezitasun guztiekin.

1.5. Bi hizkuntza, zuzenbide bera

Horiek horrela, bosgarren ezaugarriak ematen du bidea, agerian uzteko itzulpen juridikoak duela Nafarroan, Espainiako estatuko beste lurralde euskaldunetan bezalaxe, halako tenore berezkoa. Izatez, hemen bi hizkuntzen artean itzultzen da zuzenbide bera; ez, ordea, nazio artean ohiko izaten denez, bi hizkuntzen eta bi zuzenbideen artean, zuzenbide bakoitzak bere hizkuntza duela. Esan dezagun, oraingoz, gai hori, pisurik gabeko baina, esanguratsu gertatu dela gure eginahaletan.

1.6. Europako legeria

Azkenez, aitor dezagun seigarren ezaugarria, Europako zuzenbidea ere hor-
txe dagoela gogorarazteko, Nafarroako Foru Komunitatean indarreko zuzenbi-
dea dela eta, egun batean, luze baino lehen, hura izango zaigula, beharbada
euskararen bitartez, euskaldunon arteko lotunea eta partaidetzarako lanabesa.

2. Egitasmoaren nondik norakoak

2.1. Euskaltzaindiaren eta Euskarabidearen arteko hitzarmena: helburuak

Aurreko sei ezaugarri horiek baliatu ditugu, gure ustez hurrengo urteetan
euskarak egin beharreko bideetatik bat azaltzeko, batez ere, mundu juridiko
eta administratiboan.

Begien bistakoa da, orobat, langintza zabal eta amaierarik gabeko horretan,
pauzoz pauso joan behar dela. Pauso horien artean, laburrena ez da, inolaz ere,
egun hona batzen gaituena, alegia, terminologia juridiko-administratiboarena.

Langintza horretarako aurkeztuko dugu tresna berria, tresna hori lagun-
garri izan daitekeelako, gure aburuz, aurrerapauso hori emateko, euskarazko
lexikografia eta terminologia juridikoan, geroago azalduko dugun bezala.

Aurrerapauso horrek berarekin dakar, datu-base baten bidez, Nafarroako
foru-legeen corpusa oinarri hartuta, horren hustuketa edo erauzketa elebi-
duna egitea. Datu zehatzak jarraian emango ditugu.

Aurretiaz, alabaina, egin dezagun, sarrera laburra, Euskaltzaindiak eta
Nafarroako Gobernuak (Euskarabideak) egitasmo hau nola bultzatu duten
adierazteko.

2.2. Hautuaren arrazoiak

2007. urtean Euskaltzaindiak egin zuen proposamena, eta proposamen
horrek kontuan hartzen zituen ingurumari oso desberdinak. Lehena zen

Nafarroako itzultzaileek sarrera izatea, egun euskaraz egiten den terminologia juridiko-administratiboan. Bigarrena, haiek ere lanabes berria izatea, beraiek egiten duten itzultze-lan horretan, lagungarri izan zekien eurek sortutako terminologia sistematizatua, kontsultarako prest eta gerogarrenean zuzenketarako ere gaitua. Horretan, Nafarroako lege-testuak ziren egokienak, horiek baitute goi maila, lehen esan dugun moduan, Nafarroako antolamendu juridikoan.

Horretan geniharduela, bestelako helburuak ere bete genitzakeela uste genuen, euskararentzat eta akademiarentzat: bateko, Nafarroako Foru Komunitatean ari diren itzultzaile eta teknikarien lana Nafarroatik kanpo ezagutaraztea; eta, besteko, ezaupide hori erabilgarri izatea eragile juridikoen artean, datu-base baten bidez, datu-base horretara biltzen genituela hainbat unitate lexikal, geroago Euskaltzaindiak ere erabil zitzakeenak bere erabaki lexikalak hartzerakoan, Hiztegi Batuan nahiz osterantzekoetan.

Bazen, bestalde, halako abantaila eta muga, eginkizun horretan. Muga zen lege-testuen kopuruak ezartzen zuena. Abantaila ere, bide beretik zetorren, lege-testu elebidun horiek itzultzaile-talde jakin eta zehatz baten eskutik zetozelako. Hartara, norberak itzultzean izan dezakeen tankera eta eitea kontuan hartuta, argi dago horiek ahalbidetzen zutela, corpusaren aldetik bederen, ezaugarri testual eta paratestual bateratsuak.

3. Egitasmoaren edukia

3.1. Nafarroako lege-testuak: zerrenda

Berrogeita lau (44) arauk osatzen dute corpora. Corpus hitz hori erabiltzen dugu, MIRIAM URKIAK emandako definizioaren haritik:

Corpusa, adiera modernoan, baliabidea da, zehatzago: hizkuntzaren atal baten erakusgarri gisa erabiltzen den testu-multzo elektroniko egituratua, erabilera errealak jasotzen dituena, betiere irizpide zehatz batzuen arabera (MIRIAM URKIA, Corpusgintzaren garrantzia..., 1. or.).

Esan gabe doa corpusaren osaera Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernaren artean adostu genuela. Horrela, corpora osatzen duten berrogeita lau lege-testu horietatik hiru (3) foru-dekretuak dira.

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFREAN	Decreto Foral Legislativo 150/2002, de 2 de julio, por que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral del Registro de Explotaciones Agrarias de Navarra	NNUEFL	150/2002 Legegintzako Foru Dekretua, uztailearen 2koa. Onesten du Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroari buruzko Foru Legearen Testu Bategina
DFLTRLFCPN	Decreto Foral Legislativo 213/2002, de 14 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Cuerpos de Policía de Navarra	NPKFLTBLFD	213/2002 Legegintzako Foru Dekretua, urriaren 14koa, Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duena
ISD	Decreto Foral Legislativo 250/2002, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones	ODZ	250/2002 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Testu Bategina onesten duena

Gainerakoak, hau da, berrogeita bat (41) foru-legeak dira.

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFDPN	Ley Foral 4/2000, de 3 de julio, del Defensor del Pueblo de la Comunidad Foral de Navarra	NAFL	4/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzkoa
LFTRDRLFA	Ley Foral 5/2000, de 3 de julio, por la que se modifica el Texto Refundido de las Disposiciones de rango legal sobre Financiación Agraria	NFLMXTBFL	5/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, Nekazaritzako Finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testu Bategina aldatzen duena
LFIJPE	Ley Foral 6/2000, de 3 de julio, para la Igualdad Jurídica de las Parejas Estables	BEBJFL	6/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzkoa
LFSAN	Ley Foral 11/2000, de 16 de noviembre, de Sanidad Animal de Navarra	AOFL	11/2000 Foru Legea, azaroaren 16koa, Abereen Osasunari buruzkoa
LFAF	Ley Foral 12/2000, de 16 de noviembre, de Atención Farmacéutica de Navarra	FLFL	12/2000 Foru Legea, irailaren 16koa, Farmazia Laguntzari buruzkoa
LFGTN	Ley Foral 13/2000, de 14 de diciembre, General Tributaria	NTFLO	13/2000 Foru Lege Orokorra, abenduaren 14koa, Tributuiei buruzkoa

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFTPPACFNOA	Ley Foral 7/2001, de 7 de marzo, de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y de sus Organismos Autónomos	NFKAEATPPFL	7/2001 Foru Legea, martxoaren 27koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzkoa
LFCDN	Ley Foral 5/2001, de 9 de marzo, de Cooperación al Desarrollo de Navarra	GLFL	5/2001 Foru Legea, martxoaren 9koa, Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzkoa
LFDN	Ley Foral 15/2001, de 5 de julio, del Deporte de Navarra	NKFL	15/2001 Foru Legea, uztailaren 5koa, Nafarroako Kirolari buruzkoa
LFAANCAN	Ley Foral 18/2001, de 5 de julio, por la que se regula la Actividad Audiovisual en Navarra y se crea el Consejo Audiovisual de Navarra	NIJNIKFL	18/2001 Foru Legea, uztailaren 5koa, Nafarroako Ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena
LFRCN	Ley Foral 17/2001, de 12 de julio, Reguladora del Comercio en Navarra	NMAFL	17/2001 Foru Legea, uztailaren 12koa, Nafarroan merkataritza arautzen duena
LFIA	Ley Foral 1/2002, de 7 de marzo, de Infraestructuras Agrícolas	NAFL	1/2002 Foru Legea, martxoaren 7koa, Nekazaritza Azpiegiturei buruzkoa

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFDPVAIDC	Ley Foral 11/2002, de 6 de mayo, sobre los Derechos del Paciente a las Voluntades Anticipadas, a la Información y la Documentación Clínica de Navarra	GEABIAKFL	11/2002 Foru Legea, maiatzaren 6koa, Gaixoaren zenbait Eskubide, hain zuzen ere Biziaren gaineko Aurretiazko Borondateak egitekoa eta Informazioa eta Agiri Klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituen
LFEPA	Ley Foral 19/2002, de 21 de junio, reguladora de la Educación de Personas Adultas	HHFL	19/2002 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Helduen Hezkuntza arautzen duena
LFREAN	Decreto Foral Legislativo 150/2002, de 2 de julio, por que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral del Registro de Explotaciones Agrarias de Navarra	NNUEFL	150/2002 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 2koa. Onesten du Nafarroako Nekazaritza Ustiatarien Erregistroari buruzko Foru Legearen testu Bategina
DFLTRLFCPN	Decreto Foral Legislativo 213/2002, de 14 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Cuerpos de Policía de Navarra	NPKFLTBLFD	213/2002 Legegintzako Foru Dekretua, urriaren 14koa, Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duena

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFSBN	Ley Foral 32/2002, de 19 de noviembre, por la que se regula el Sistema Bibliotecario de Navarra	NLSFL	32/2002 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako Liburutegien Sistema arautzen duena
LFAFPMN	Ley Foral 34/2002, de 10 de diciembre, de Acogimiento Familiar de Personas Mayores de Navarra	PZFHFL	34/2002 Foru Legea, abenduaren 10ekoa, Pertsona Zaharrak Familian Hartzeari buruzkoa
ISD	Decreto Foral Legislativo 250/2002, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones	ODZ	250/2002 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Testu Bategina onesten duena
LFOTU	Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, de Ordenación del Territorio y Urbanismo	LAHFL	35/2002 Foru Legea, abenduaren 20koa, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa
LFTN	Ley Foral 7/2003, de 14 de febrero, de Turismo de Navarra	TFL	7/2003 Foru Legea, otsailaren 14koa, Turismoari buruzkoa
LFDRN	Ley Foral 17/2003, de 17 de marzo, de Desarrollo Rural de Navarra	NLGFL	17/2003 Foru Legea, martxoaren 17koa, Nafarroako Landa Garapenari buruzkoa

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFFN	Ley Foral 20/2003, de 25 de marzo, de familias numerosas	FUFL	20/2003 Foru Legea, martxoaren 25ekoa, Familia ugariari buruzkoa
LFMLFCPN	Ley Foral 30/2003, de 4 de abril, de Modificación de los artículos 35 y 43 del Texto Refundido de la Ley Foral de Cuerpos de Policía de Navarra, aprobado por el Decreto Foral Legislativo 213/ 2002, de 14 de octubre	NPKFLAFL	30/2003 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legearen Testu Bateginako 35. eta 43. artikulua aldatzekoa, zeina urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuak onetsi baitzuen
LFMLREPN	Ley Foral 4/2004, de 2 de junio, de modificación del artículo 21 de la Ley Foral 16/1986, de 17 de noviembre, reguladora de las elecciones al Parlamento de Navarra	NPHFLAFL	4/2004 Foru Legea, ekainaren 2koa, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 21. artikulua aldatzen duena
LFPPVN	Ley Foral 8/2004, de 24 de junio, de Protección Pública a la Vivienda en Navarra	NEBPFL	8/2004 Foru Legea, ekainaren 24koa, Nafarroan Etxebizitzari Babes Publikoa emateari buruzkoa

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFGNP	Ley Foral 14/2004, de 3 de diciembre, del Gobierno de Navarra y de su Presidente	NGLFL	14/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari Buruzkoa
LFACFN	Ley Foral 15/2004, de 3 de diciembre, de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra	NFKAFL	15/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoa
LF CFRP PHL TN	Ley Foral 17/2004, de 3 de diciembre, por la que se establece la Cuantía y Fórmula de Reparto del Fondo de Participación de las Haciendas Locales en los Tributos de Navarra para los ejercicios presupuestarios de 2005 a 2008	TONTPFZBFFL	17/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2005etik 2008ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako
LFIPA	Ley Foral 4/2005, de 22 de marzo, de intervención para la protección ambiental	IBEHFL	4/2005 Foru Legea, martxoaren 22koa, ingurumena babesteko esku hartzeari buruzkoa
LFPCAEN	Ley Foral 8/2005, de 1 de julio, de Protección Civil y Atención de Emergencias de Navarra	NBZLKFL	8/2005 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzkoa

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFT	Ley Foral 9/2005, de 6 de julio, del Taxi	TaFL	9/2005 Foru Legea, uztailaren 6koa, Taxiei buruzkoa
LFOAPMN	Ley Foral 10/2005, de 9 de noviembre, de Ordenación del Alumbrado para la Protección del Medio Nocturno	AGIBAFL	10/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Argiteria Gaueko Ingurumena Babestearren Antolatzeari buruzkoa
LFS	Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones	DFL	11/2005 Foru Legea, azaroren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa
LFPCN	Ley Foral 14/2005, de 22 de Noviembre, del Patrimonio Cultural de Navarra	NKOFL	14/2005 Foru Legea, azaroaren 22koa, Nafarroako kultur ondareari buruzkoa
LFPAPIA	Ley Foral 15/2005, de 5 de diciembre, de Promoción, Atención y Protección a la Infancia y a la Adolescencia	HNSLBFL	15/2005 Foru Legea, abenduaren 5koa, haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzkoa
LFOV	Ley Foral 16/2005, de 5 de diciembre, de Ordenación Vitivinícola	MAAFL	16/2005 Foru Legea, abenduaren 5koa, Mahastizaintza eta Ardogintza arautzeari buruzkoa
LFPCN	Ley Foral 17/2005, de 22 de diciembre, de Caza y Pesca de Navarra	NEAFL	17/2005 Foru Legea, abenduaren 22koa, Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzkoa

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFEPCCSP	Ley Foral 21/2005, DE 29 de diciembre, de Evaluación de las Políticas Públicas y de la Calidad de los Servicios Públicos	PPZPKEFL	21/2005 Foru Legea, abenduaren 29koa, Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea ebaluatzeari buruzkoa
LFPCP	Ley Foral 6/2006, de 9 de junio, de Contratos Públicos	KPFL	6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu Publikoari buruzkoa
LFDCU	Ley Foral 7/2006, de 20 de junio, de Defensa de los Consumidores y Usuarios	KEBFL	7/2006 Foru Legea, ekainaren 20koa, Kontsumitzaileak eta Erabiltzaileak Babesteari buruzkoa
LFSPN	Ley Foral 8/2006, de 20 de junio, de Seguridad Pública de Navarra	NSPFL	8/2006 Foru Legea, ekainaren 20koa, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzkoa
LFRRTCN	Ley Foral 12/2006, de 21 de noviembre, del Registro de la Riqueza Territorial y de los Catastros de Navarra	NLAEKFL	12/2006 Foru Legea, azaroaren 21koa, Nafarroako Lurralde Aberastasuaren Erregistroari eta Katastroari buruzkoa
LFNCN	Ley Foral 14/2006, de 11 de diciembre, de Cooperativas de Navarra	NKFL	14/2006 Foru Legea, abenduaren 11koa, Nafarroako Kooperatibei buruzkoa

3.2. Nafarroako lege-testuak: zuzenbidearen adarrak

Lege-testuak zuzenbidearen adar guztietakoak dira. Zenbait nabarmen-tzekotan, jarraikoak:

3.2.1. *Tributu-zuzenbidea*

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFGTN	Ley Foral 13/2000, de 14 de diciembre, General Tributaria	NTFLO	13/2000 Foru Lege Orokorra, abenduaren 14koa, Tributuiei buruzkoa
LFTPPACFNOA	Ley Foral 7/2001, de 7 de marzo, de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y de sus Organismos Autónomos	NFKAEATPPFL	7/2001 Foru Legea, martxoaren 27koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzkoa
ISD	Decreto Foral Legislativo 250/2002, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones	ODZ	250/2002 Legegitzako Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Testu Bategina onesten duena

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFCFRFPHLTN	Ley Foral 17/2004, de 3 de diciembre, por la que se establece la Cuantía y Fórmula de Reparto del Fondo de Participación de las Haciendas Locales en los Tributos de Navarra para los ejercicios presupuestarios de 2005 a 2008	TONTPFZBFFL	17/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, toki ogasunek Nafarroako tribuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2005etik 2008ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako

3.2.2. Nekazaritza-zuzenbidea

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFIA	Ley Foral 1/2002, de 7 de marzo, de Infraestructuras Agrícolas	NAFL	1/2002 Foru Legea, martxoaren 7koa, Nekazaritza Azpiegiturei buruzkoa
LFTRDLFA	Ley Foral 5/2000, de 3 de julio, por la que se modifica el Texto Refundido de las Disposiciones de rango legal sobre Financiación Agraria	NFLMXTBFL	5/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, Nekazaritzako Finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testu Bategina aldatzen duena

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFREAN	Decreto Foral Legislativo 150/2002, de 2 de julio, por que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral del Registro de Explotaciones Agrarias de Navarra	NNUEFL	150/2002 Legegin-tzako Foru Dekretua, uztailaren 2koa. Onestendu Nafarroako Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroari buruzko Foru Legearen testu Bategina
LFDRN	Ley Foral 17/2003, de 17 de marzo, de Desarrollo Rural de Navarra	NLGFL	17/2003 Foru Legea, martxoaren 17koa, Nafarroako Landa Garapenari buruzkoa

3.2.3. Zuzenbide politikoa

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFMLREPN	Ley Foral 4/2004, de 2 de junio, de modificación del artículo 21 de la Ley Foral 16/1986, de 17 de noviembre, reguladora de las elecciones al Parlamento de Navarra	NPHFLAFL	4/2004 Foru Legea, ekainaren 2koa, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 21. artikulua aldatzen duena

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LDFPN	Ley Foral 4/2000, de 3 de julio, del Defensor del Pueblo de la Comunidad Foral de Navarra	NAFL	4/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzkoa
LFGNP	Ley Foral 14/2004, de 3 de diciembre, del Gobierno de Navarra y de su Presidente	NGLFL	14/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari Buruzkoa
LFACFN	Ley Foral 15/2004, de 3 de diciembre, de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra	NFKAFL	15/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoa

3.2.4. Merkataritza-zuzenbidea

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFCN	Ley Foral 14/2006, de 11 de diciembre, de Cooperativas de Navarra	NKFL	14/2006 Foru Legea, abenduaren 11koa, Nafarroako Kooperatibei buruzkoa
LFDCU	Ley Foral 7/2006, de 20 de junio, de Defensa de los Consumidores y Usuarios	KEBFL	7/2006 Foru Legea, ekainaren 20koa, Kontsumitzaileak eta Erabiltzaileak Babesteari buruzkoa

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFRCN	Ley Foral 17/2001, de 12 de julio, Reguladora del Comercio en Navarra	NMAFL	17/2001 Foru Legea, uztailearen 12koa, Nafarroan merkataritza arautzen duena

3.2.5. Administrazio-zuzenbidea

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
DFLTRLFCPN	Decreto Foral Legislativo 213/2002, de 14 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Cuerpos de Policía de Navarra	NPKFLTBLFD	213/2002 Legegintzako Foru Dekretua, urriaren 14koa, Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duena
LFOTU	Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, de Ordenación del Territorio y Urbanismo	LAHFL	35/2002 Foru Legea, abenduaren 20koa, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa
LFSBN	Ley Foral 32/2002, de 19 de noviembre, por la que se regula el Sistema Bibliotecario de Navarra	NLSFL	32/2002 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako Liburutegien Sistema arautzen duena
LFTN	Ley Foral 7/2003, de 14 de febrero, de Turismo de Navarra	TFL	7/2003 Foru Legea, otsailaren 14koa, Turismoari buruzkoa

3.3. Nafarroako lege-testuak: aldikadak

Testurik zaharrena 2000koa da:

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFDPN	Ley Foral 4/2000, de 3 de julio, del Defensor del Pueblo de la Comunidad Foral de Navarra	NAFL	4/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzkoa

Eta arestikoena 2006koa:

Gaztelania		Euskara	
	TEXTO LEGAL		LEGE-TESTUA
LFCN	Ley Foral 14/2006, de 11 de diciembre, de Cooperativas de Navarra	NKFL	14/2006 Foru Legea, abenduaren 11koa, Nafarroako Kooperatibei buruzkoa

3.4. Nafarroako lege-testuak: elebitasuna eta ofizialtasuna

Nafarroako Foru Komunitatean, bertako aldizkari ofiziala (BON/NAO) gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzen da, zein bere aldetik. Hau da, ez da erabiltzen bi zutabeko sistema, Euskal Autonomia Erkidegoak aukeratu duena; aitzitik, gaztelaniazko bertsioa eta euskarazkoa bereiz kaleratzen dira. Nolanahi den ere, bata eta bestea ofizialak dira, eta, ondorenez, bi-biak maila berean baliatu daitezke, besteak beste, epaitegietan, organo administratiboetan eta abarrekoetan.

Ofizial izateak berarekin dakar kontu handiz idatzi beharra, gaztelaniaren kasuan, eta kontu handiz itzuli beharra, euskararen kasuan, bata bestea bezain ofiziala delako.

Nafarroako Aldizkari Ofizialaren webgunea gaztelaniaz kontsultatuz gero, bada atal edo esteka berezi bat, LEXNAVARRA izenekoa, lege-tes-tuen bilaketa egitea ahalbidetzen duena.

The screenshot shows the website **navarra.es** with the following elements:

- Language selection:** Castellano, Euskara, Français, English.
- Navigation menu:** NAVARRA, SERVICIOS, TEMAS, GOBIERNO, ACTUALIDAD.
- Sub-navigation:** Sala de prensa, BON, Boletines electrónicos, Galerías de fotos, Galerías de vídeos.
- Actualidad:** BON.
- Logo:** Boletín Oficial DE NAVARRA.
- Último boletín publicado:** BOLETÍN N° 27 - 1 de marzo de 2010.
- Sumario:**
 - 1. Comunidad Foral de Navarra
 - 1.2. Autoridades y Personal
 - 1.2.1. Ceses, nombramientos y otras situaciones
 - ORDEN FORAL 7/2010, de 28 de enero, del Consejero de Educación, por la que se nombra, con carácter interino, Jefa del Negociado de Profesorado de Educación Secundaria adscrito al Servicio de Recursos Humanos del Departamento de Educación a doña María Begonia Sanctet Ortiz.
 - ORDEN FORAL 10/2010, de 1 de febrero, del Consejero de Educación, por la que se nombra, con carácter interino, a doña Pilar Goñi Muro como Jefa de la Sección de Gestión de Personal del Servicio de Recursos Humanos del Departamento de Educación.
 - RESOLUCIÓN 126/2010, de 26 de enero, del Director Gerente del Servicio Navarro de Salud-Osasunbidea, por la que se nombra interinamente a don Juan Ignacio Yanguas Bayona, Jefe de Servicio/F.E.A. Adjupto de Dermatología del Hospital de Navarra del Servicio Navarro de Salud-Osasunbidea.
 - RESOLUCIÓN 148/2010, de 27 de enero, del Director Gerente del Servicio Navarro de Salud-Osasunbidea, por la que se nombra interinamente a doña Inés Gastón Zudaire, Jefa de Unidad de Enfermería de Centro de Consultas "A" de la Subdirección de Coordinación de Asistencia Ambulatoria del Servicio Navarro de Salud-Osasunbidea.
 - CORRECCION DE ERRORES de la Resolución 1625/2009, de 23 de noviembre, de la Directora General de Asuntos Sociales y Cooperación al Desarrollo, por la que se resuelve el procedimiento para la concesión de subvenciones para la realización de proyectos de cooperación técnica al desarrollo, en las modalidades de asistencia, formación e investigación, durante los años 2009 y 2010.
 - PARLAMENTO DE NAVARRA. Acuerdo del Pleno del Parlamento de Navarra por el que se nombra Presidente de la Cámara de Comptos de Navarra al Excelentísimo señor don Heliodoro Robledo Cabezas.

- Search and Access:**
- Buscador (with a search bar and "Buscar" button)
- Índice de Boletines
- Último Boletín
- MIBON
- Qué es el BON
- Preguntas Frecuentes
- Acceso a MIBON (with Email and Contraseña fields)
- Buscar en los boletines:**
- Palabras clave (with a search bar)
- Avuda / Búsqueda avanzada (with a search bar)
- enlaces relacionados:**
- LexNavarra
- Cómo enviar anuncios para publicar en el BON
- Impreso de Solicitud para publicar anuncios en el BON
- Normas de edición del BON
- Modelos de anuncios (Administración Local)
- Plantillas Orgánicas (PDF)
- Índices BON primer semestre 2009
- contacto de esta sección:**
- Boletín Oficial de Navarra
- C/ Leyre 6, 4ª planta
- 31002 - Pamplona
- 948-203800
- bon@for.navarra.es

Bilaketa hori sistematikoa izan daiteke, hau da, gaika, eta, orobat, Nafarroako Gobernuaren sail desberdinen arabera. Eroso gertatzen da, gertatu ere, argitalpen-data jakin gabe, eremu jakin batean indarrean dauden foru-arau oinarritzkoak eskuratu ahal izatea. LEXNAVARRA horren gaztelaniazko bertsioak zorrotz jokatzen du eta eskaintako testuen indarreko bertsioak eskaintzen ditu, jatorrizko testuak aldiari-aldiari izan dituen eraldaketak nabarmenduz. Horretarako, artikuluko eraldatuari etiketa jartzen dio (NV laburdurarekin; «nueva versión»), eta, etiketa horren gainean klik eginez gero, kasuan kasuko eraldaketa azaltzen da, hots, zein lege izan den eraldatzailea eta zein zen testuaren aurreko bertsioa.

Euskaraz, ordea, ez da LEXNAVARRA izenekorik. Eta, beraz, norbaitek arlo jakin batean indarrean dauden foru-arauak euskaraz eskuratu nahi baditu, ez du horretarako zuzeneko aukerarik izango, zoritxarrez. Eskaini beharreko zerbitzua dela uste dugu guk.

3.5. Baliabide teknikoa: Multiterm

Hustuketa terminologikoaren emaitzak jasotzeko, TRADOS lizentziaren barruko MULTITERM erreminta erabili da. WORDFASTek egun lortu duen zabalkundeari denik txikiena kendu gabe, eta *Erauzterm*, *Itzulterm* eta *UZEIren termino-erauzlea* balioetsita, guk erreminta hori aukeratu genuen bere garaian, bi abantaila eskaintzen zituelako: batetik, datu-baseak MULTITERM horren barruan sortzea eta kudeatzea erraz gertatzen da, kontsultarako hainbat aukera ematen ditu, eta inprimatzeko ere bai; eta, beste alde batetik, WORKBENCH deiturikoarekin lanean diharduenak, behin datu-basea aukeratuta, bistara izango ditu berbategiko sarrerak, halakoak agertzen zaizkionean itzuli beharreko segmentuan.

3.6. Eskaintza zabala: 7.757 sarrera

Datu zehatza emateko, esan beharra dago datu-baseak zazpi mila zazpiehun eta berrogeita hamazazpi (7.757) sarrera jasotzen dituela. Kopurua ikusita, eskaintza zabala dela uste dugu. Gainera, kontuan hartu behar da ez dela horretan bikoizketarik egin, gaztelaniazko unitateak euskaraz bi ordain dituenean. Haatik, fitxa bakar batera bildu da informazio hori. Esate baterako, gaztelaniazko *explotación* hitzaren kasuan, euskarazko ordainak «ustiategi» eta «esplotazio» dira; orobat, *extinción* (iraungitze/amaitze) eta *deducción* (kenkari/dedukzio) hitzen kasuan. Zenbaketak bikoizketa hori kontuan hartuko balu, sarrera-kopurua zortzi milatik gorakoa izango litzateke. Ikus ditzagun aipatu adibide horiek:

SDL MultiTerm [Proyecto Sin título.xdp]

Base de datos terminológica Proyecto Entrada Buscar Ver Ayuda

explotación Spanish Basque Flags layout

Default input model

Entry number: 7727
Iturria: LFP/IA/NAFL 2.2.
Iturria: LFP/IA/INSLBFL 16.1.

Spanish

explotación

Gaztelaniazko testuingurua: Actuaciones en materia de infraestructuras agrícolas.
2. La concentración parcelaria constituye, a estos efectos, el elemento básico de las actuaciones en infraestructuras. El procedimiento que desarrolle la misma deberá coordinarse temporal y jurídicamente con la tramitación ambiental, así como con las obras de transformación, modernización y construcción de redes de caminos y saneamientos. Su finalidad primordial será la de constituir explotaciones y, en su caso, unidades de riego, que sean viables desde los puntos de vista ambiental, agronómico, económico y social.

Gaztelaniazko testuingurua: Derecho a la vida y a la integridad física y psíquica.
1. Las Administraciones Públicas de Navarra realizarán actuaciones preventivas y atenderán a los menores que sufran cualquier forma de violencia, maltrato, crueldad, manipulación, negligencia, explotación o abuso sexual. Asimismo protegerán a los menores frente a cualquier clase de explotación laboral y de la práctica de la mendicidad.

Basque

ustiategi

Euskarazko testuingurua: Nekazaritza azpiegituren arloko ekintzak.
2. Lur-zati berrantolamendua, ondorio hauetarako, azpiegituren arloko ekintzen oinarritzko osagaia da. Hura garatzen duen prozedura koordinatu beharko da, juridikoki eta denborari dokioenez, ingurumenaren gaineko tramitazioarekin, bai eta bide eta saneamendu sareak aldatu, modernizatu eta erabitzeko obrarekin ere. Haren xede nagusia izanen da ustiategiak eta, kasu bada, ureztatze unitateak sortzea; betiere, ingurumen, agronomia, ekonomia eta gizartearen kusez gainetik bideragarriak badira.

esplotazio

Euskarazko testuingurua: Bizitzeko eta integritate fisiko eta psikorako eskubidea.
1. Nafarroako administrazio publikoek aurreneurriak hartu eta edonolako bortzikeria, tratu txarrak, anketasuna, manipularazio, zabarkeria, esplotazioa edo sexu abusua sufrizten dituzten adingabeek lagunduko diete. Horrez gain, adingabeak babestuko dituzte edozein lan esplotazioaren eta eskaltzaren kontra.

explotación /

Listo NUM

SDL MultiTerm [Proyecto Sin título.xdp]

Base de datos terminológica Proyecto Entrada Buscar Ver Ayuda

extinción Spanish Basque Flags layout

Default input model

Entry number: 30
Iturria: LFI/JPE/BEBJFL 4.4.
Iturria: LFI/JPE/BEBJFL 6.2.

Spanish

extinción

Gaztelaniazko testuingurua: Disolución de la pareja estable.
4. La extinción de la pareja estable implica la revocación de los poderes que cualquiera de los miembros haya otorgado a favor del otro.

Gaztelaniazko testuingurua: Reclamación de pensión periódica y de compensación económica.
2. La obligación prescrita por el artículo 5.4, en el supuesto de la letra a), se extingue, en todo caso, en el plazo de tres años, a contar desde la fecha de pago de la primera pensión, por las causas generales de extinción del derecho de alimentos y desde el momento en que quien la percibe contrae matrimonio o convive maritalmente; y, en el supuesto de la letra b), cuando la atención a los hijos o a las hijas cesa por cualquier causa o estos llegan a la mayoría de edad o son emancipados, salvo los supuestos de incapacidad.

Basque

iraungitze


Euskarazko testuingurua: Bikote egonkorra desagetzea.
4. Bikote egonkorren iraungitzeak bi kideetako edonork bestearen alde emandako botereak berreskuratzea ekarriko du.

amaitze

Euskarazko testuingurua: Mantenuagatik aldirka eman beharreko pensioaren eta konpentsazio ekonomikoaren eskaera.
2. 4.4. artikuluko manatuak betebeharra, a letraren kasuan, hiru urteko epean amaitzen da, lehenengo pensioaren ordaintzaren egunetik aitzina, oro har, elkagaletarako eskubidea amaitzeagatik eta horren onuraduna ezkontzen den momentutik edo ezkontzuek bezala botzen hasten denetik aitzina. b letraren kasuan aldir, arrazoi edozein delarik ere seme-alabenganako arduraren etenaren edo horiek adinez nagusi izatera iritsi edo emantzipatzaren direnaren; salbuespen izanien diraren ezgaitasun kasuak.

extinción /

Listo NUM



4. Egitasmoaren eduki linguistikoa

4.1. Lexikoaren hustuketa: unitateak zein

Eginkizunen artean ez da izan ñimiñoena datu-basea osatu behar zuten unitateak hautatzea. Izan ere, gure lana lexikografikoagoa izan da, terminologikoa baino. Lexikografikoa diogu ikuspegi deskriptiboa izan dugulako gehienbat. Hurrena ere, gure kezka izan da horra biltzea unitate lexikal soilak (lexemak) eta unitate lexikal multilexemikoak, bi-biak baitira gure lexikoaren sarrerak:


«A. Polguère reprend une typologie proposée en lexicologie explicative et combinatoire dans laquelle les unités lexicales simples (lexèmes) et les unités multilexémiques (phrasèmes complets) sont toutes deux traitées comme des entrées de dictionnaire et où les collocations sont décrites comme des expressions au sein desquelles les unités lexicales (mono- ou multilexémiques) peuvent apparaître


(MARIE-CLAUDE L´HOMME et SYLVIE VANDAELE, *Lexicographie...*, 5. or.)».

Horretarako arrazoia izan dugu gure iritzia. Hartara, gure ustez, espezialitateko hizkeretan, unitate lexikal horiek euren balio terminologikoa hartzen dute, eta unitate lexikal arruntetatik bereizten dira, jokoan diren semantika eta pragmatikaren arabera:

«Seule une théorie linguistique cognitive et fonctionnelle, c´est-à-dire qui renferme des composantes sémantiques et pragmatiques en plus d´une composante grammaticale, peut décrire le caractère spécifique des unités terminologiques et rendre compte de ce que ces unités ont en commun avec les autres unités lexicales non spécialisées. En outre, la pragmatique est indispensable pour expliquer l´activation de la valeur terminologique des unités lexicales (TERESA CABRÉ, *Lexicographie...*, 101. or.)».

Arean ere, datu-basearen sarrera batzuk unitate lexikal soilak dira, esate baterako, *transmitente* eta *solar*.





Beste batzuk, aldiz, unitate fraseologikoak dira, konparazio baterako, *a puerta cerrada* eta *a título oneroso*.

SDL MultiTerm [Proyecto Sin título.xdp]

Base de datos terminológica Proyecto Entrada Buscar Ver Ayuda

a puerta cerrada Spanish Basque Flags layout

Default input model

Entry number: 3496
Iturria: LFDN/NKFL 111.e

Spanish
a puerta cerrada
Gaztelaniazko testuingurua: Sanciones por la comisión de infracciones muy graves de las reglas del juego. Por la comisión de las infracciones muy graves de las reglas del juego se podrán imponer las sanciones establecidas en el artículo anterior o las siguientes sanciones específicas, debiendo figurar cuantificadas en la norma disciplinaria correspondiente, de acuerdo con lo establecido en el artículo 105 de la presente Ley Foral:
e) Celebración de juegos, pruebas o competiciones oficiales en terreno neutral o a puerta cerrada.

Basque
atea itxita
Euskarazko testuingurua: Joko arauen kontrako arau-hauste oso larrien zehapenak. Joko arauen kontrako arau-hauste oso larriak egiteagatik zilegi izanen da aurreko artikuluan jarritako zehapenak ezartzea edo ondoren aipatzen diren zehapen berariazkoak, kasuko diziplina arauan zenbatesita egonen direnak, foru lege honetako 105. artikuluko agintzen duenaren arabera:
e) partida, proba edo lehiaketa ofizialak terreno neutralean edo atea itxita egitea.

a puerta cerrada /

Listo NUM

SDL MultiTerm [Proyecto Sin título.xdp]

Base de datos terminológica Proyecto Entrada Buscar Ver Ayuda

a título oneroso Spanish Basque Flags layout

Default input model

Entry number: 102
Iturria: LFIJPE/BEBJFL 12.2.d.b

Spanish
a título oneroso
Gaztelaniazko testuingurua: Régimen fiscal.
2. Se introducen las siguientes modificaciones en las Normas para la exacción de los impuestos sobre sucesiones y transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados aprobadas por la Diputación Foral de Navarra el 10 de abril de 1970:
d) Nueva redacción de la letra b) del apartado 1 del artículo 40:
b) Los bienes y derechos que, en periodo de tres años anteriores al fallecimiento, hubieran sido adquiridos a título oneroso en usufructo por el causante y en nuda propiedad por un heredero, legatario, pariente dentro del tercer grado, cónyuge o pareja estable de cualquiera de ellos o del causante."

Basque
kostubidez
Euskarazko testuingurua: Araubide fiskala.
2. Onordetzaren eta ondare eskualdaketen gaineko zergak ordainaztearen esparruan Nafarroako Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10ean onetsitako arauetan ondoko aldaketak eginen dira:
d) 40. artikuluko 1. idatz-zatiko b) lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da:
"b) Heriotzaren aurreko hiru urteko epearen barnean kausatzaileak kostubidez usufuktuan eskuratutako ondasun eta eskubideak eta apaturiko epe horretan onordetako batek, legatu-har tzaile batek, hirugarren graduarainoko ahaide batek edo horietako edozeinen edo kausatzailearen ezkontide edo bikotekide egonkorrak jabetza solean eskuratutako ondasun eta eskubideak."


a título oneroso /

Listo NUM

Edota sintagma osoak, hala nola, *acta*, *vivienda* eta *régimen*.

The screenshot shows the SDL MultiTerm interface for the entry 'acta'. The left pane lists various terms related to 'acta' in Spanish, such as 'Acta complementaria de Reorganización de la propiedad' and 'Acta de Reorganización de la Propiedad'. The right pane displays the entry details for 'acta' in Spanish and Basque. The Spanish entry is numbered 213 and refers to 'LFCN/NKFL 12.2.', defining 'acta' as a document adopted by a constituent assembly. The Basque entry is numbered 47 and refers to 'LFLIPE/BEBJFL 5.3.', defining 'etxe' as a dwelling or residence.

The screenshot shows the SDL MultiTerm interface for the entry 'vivienda'. The left pane lists various terms related to 'vivienda' in Spanish, such as 'vivienda colectiva', 'vivienda de precio pactado', and 'vivienda protegida'. The right pane displays the entry details for 'vivienda' in Spanish and Basque. The Spanish entry is numbered 47 and refers to 'LFLIPE/BEBJFL 5.3.', defining 'vivienda' as a dwelling or residence. The Basque entry is numbered 47 and refers to 'LFLIPE/BEBJFL 5.3.', defining 'etxe' as a dwelling or residence.



Lehen esandakoak ez du bazterrean uzten, hala ere, datu-basean sarrerak egiteko orduan osterantzeko ezaugarriak izatea.

Horrela, lege-testuen ortotipografia gorde dugu. Horrek errazten du unitate lexikala zein lege-testutik atera eta testu horrekiko fidelotasuna. Inork ez dezala ikusi horretan gure legeria, lege-testuak duen balio performatibo eta arau-emailea ez baitugu horretaraino eramaten.

Ez gara larregi arduratu, bide beretik ere, teknika araugileaz, horretarako zuzentarauak ez baititugu Nafarroan ezagutzen.

Betoz hona bi adibide, azaldutakoaren lagungarri:

Batetik, letra larriak erabili direnean, euren horretan jaso dira datu-basean, kasurako, *Registro de Adopciones de Navarra* eta *Registro de Comerciantes Minoristas de Ventas Especiales de la Comunidad Foral de Navarra* izeneko kasuan.

SDL MultiTerm [Proyecto Sin título.xdp]

Base de datos terminológica Proyecto Entrada Buscar Ver Ayuda

registro de adopcione: Spanish Basque Flags layout

Default input model

Entry number: 7646
Iturria: LFPAPIA/HNSLBF 82.

Spanish

Registro de Adopciones de Navarra
Gaztelaniazko testuingurua: Registro de Adopciones de Navarra. Se crea el Registro de Adopciones de Navarra en el que se inscribirán todas aquellas personas que hayan realizado una solicitud formal de adopción, y cuya regulación será objeto de desarrollo reglamentario.

Basque

Nafarroako Adopzioen Erregistroa
Euskarazko testuingurua: Nafarroako Adopzioen Erregistroa. Nafarroako Adopzioen Erregistroa sortzen da. Horretan inskribatuko dira adoptatzeko eskabide formal bat aurkeztu duten pertsona guztiak. Erregelamendu bidez arautuko da.

Registro de Adopciones de Navarra /

Listo NUM

SDL MultiTerm [Proyecto Sin título.xdp]

Base de datos terminológica Proyecto Entrada Buscar Ver Ayuda

registro de Spanish Basque Flags layout

Default input model

Entry number: 6316
Iturria: LFRON/NMAFL 51.1.

Spanish

Registro de Comerciantes Minoristas de Ventas Especiales de la Comunidad Foral de Navarra
Gaztelaniazko testuingurua: Registro de Comerciantes Minoristas de Ventas Especiales de la Comunidad Foral de Navarra. 1. Se crea el Registro de Comerciantes Minoristas de Ventas Especiales de la Comunidad Foral de Navarra que dependerá orgánicamente de la Dirección General competente en materia de comercio. Tendrá carácter público y naturaleza administrativa y constará de las secciones de:

Basque

Nafarroako Foru Komunitateko salmenta berezien txikizkako merkatarien erregistroa
Euskarazko testuingurua: Nafarroako Foru Komunitateko salmenta berezien txikizkako merkatarien erregistroa. 1. Nafarroako Foru Komunitateko salmenta berezien txikizkako merkatarien erregistroa sortzen da, merkataritzaz alorreko eskumena duen Zuzendaritza Nagusiaren menpeko izanen dena. Izaera publiko eta administratiboa izanen du, eta honako atalak:

Registro de Comerciantes Minoristas de Ventas Espe /

Listo NUM

Bestetik, hitz elkarketak marrarekin egin direnean edo marrarik gabe, hori ere jaso egin da, adibidez, *moción de censura* eta *gestión urbanística* unitateen kasuan.

SDL MultiTerm [Proyecto Sin título.xdp]
 Base de datos terminológica Proyecto Entrada Buscar Ver Ayuda
 Spanish Basque Flags layout
 Default input model

Entry number: 6451
 Iturria: LFGNP/NGLFL 22.2.c
 Iturria: LFGNP/NGLFL 26.2.

Spanish
moción de censura
 Gaztelaniazko testuingurua: Disolución del Parlamento de Navarra.
 2. El Presidente del Gobierno de Navarra no podrá acordar la disolución del Parlamento de Navarra en los siguientes casos:
 c) Cuando se encuentre en tramitación una moción de censura;
 Suplencia del Presidente.
 2. Quien supla interinamente al Presidente tendrá derecho a los mismos honores y tratamientos que éste, y ejercerá sus funciones y competencias, salvo las relativas a plantear la cuestión de confianza, a disolver el Parlamento de Navarra y a cesar a los miembros del Gobierno de Navarra; no pudiendo ser tampoco objeto de una moción de censura.

EU Basque
zentsura-mozio
 Euskarazko testuingurua: Nafarroako Parlamentuaren desagitea.
 2. Nafarroako Gobernuako lehendakariak honako kasuotan ezin izan du erabaki Nafarroako Parlamentua desagitea:
 c) Zentsura-mozio bat tramitatzen ari den bitartean;

zentsura mozio
 Euskarazko testuingurua: Lehendakariaren ordezkapena.
 2. Bitarte baterako lehendakariaren ordeze ari denak lehendakariaren ohore eta tratamendu berberak izateko eskubidea izanen du, eta haren eginkizun eta eskumenak erabili ahaliko ditu, salbu eta konfiantza eskaera aurkeztearekin, Nafarroako Parlamentua desagitearekin eta Nafarroako Gobernuko ideak kargutik kentzearekin zerikusia dutenak. Bestetik, ezin izan zaio zentsura mozioren aurkeztu.

NUM

SDL MultiTerm [Proyecto Sin título.xdp]
 Base de datos terminológica Proyecto Entrada Buscar Ver Ayuda
 Spanish Basque Flags layout
 Default input model

Entry number: 4764
 Iturria: LFOTU/LAHAF1 136.1.
 Iturria: LFOTU/LAHAF1 139.1.

Spanish
gestión urbanística
 Gaztelaniazko testuingurua: Entidades para la gestión urbanística.
 1. Las Administraciones públicas y las entidades de Derecho Público dependientes de ellas podrán constituir mancomunidades, gerencias, consorcios y sociedades mercantiles para la gestión urbanística, conforme a lo dispuesto en su legislación reguladora. A los consorcios y sociedades mercantiles podrán incorporarse los particulares y las entidades de Derecho privado.
 Gastos de urbanización.
 1. Por gastos de urbanización se entienden todos aquellos gastos que precise la gestión urbanística y que deban ser sufragados por los propietarios afectados dentro de los cuales se comprenden al menos los siguientes conceptos:

EU Basque
hirigintza kudeaketa
 Euskarazko testuingurua: Hirigintza-kudeaketarako entitateak.
 1. Administrazio publikoek eta haien mendeko zuzenbide publikoko entitateak eratzen ahaliko dituzte hirigintza kudeaketarako merkataritza-sozietateak, mankomunitateak, gerentziak eta partzuergoak, beraien legedia arau-emaitzen vedatutakoaren arabera. Merkataritza-sozietate eta partzuergoetan partikularak eta zuzenbide pribatuko entitateak sartzen ahaliko dira.

hirigintza-kudeaketa
 Euskarazko testuingurua: Urbanizazio gastuak.
 1. Urbanizazio gastuetatik hartzen dira hirigintza-kudeaketarako behar diren gastu guztiak, ukitutako jabe guztien artean ordaindu beharko direnak, non guztienez ere kontzeptu hauek bildu beharko baitira:

NUM

4.2. Unitateak nola aukeratu: irizpide linguistikoak nahiz juridikoak

Ukaezina da, halako datu-base juridikoa egitean, irizpide juridikoak garrantzi handikoak direla. Irizpide horiek objektibizatzea, haatik, ez da lan erraza. Are gutxiago, horiek deskribatzea eta zerrendatzea.

Gaingiroki bederen, esan dezagun hurrengoak:

- a) Lege-testu zehatz batzuen gainean egin dugu lan, sistema juridiko oso baten barruan.
- b) Helburu genuen datu-base elebiduna prestatzea, bi ele horiek garatze-maila desberdina dutela zuzenbidearen munduan.
- c) Datu-basea osatzeko corpora testu itzuliek hornitu dute.

Horiek horrela,

- 1) Lehenetsi ditugu zuzenbidearen alorrean mundu hori egituratzeko erabili ohi diren irizpideak, arloka eta kontzeptuka. Horren ondorioz, gure tresnak izan dira doktrina juridikoak ohiko dituen bereizketak eta sailkapenak, metahizkeraren bidez gauzatzen direnak. Horrenbestez, kontzeptu abstraktuak dira gehienak, batik bat, unitate lexikal soilei dagozkienak.
- 2) Unitate lexikal soilez aparte, sartu ditugu beste tankerakoak, gorago azaldu dugun legez, guretzat horiek, ezinbestekoak ez ezik, guztiz adierazgarriak baitira zuzenbidearen esparruan, betiere osagai lexiko, semantiko eta pragmatikoa dutenean, horiek egiten baititu halakoak esanguratsu diskurtso juridikoaren barruan.

Horrela jokatzean, eskuratu nahi izan dugu THIRY egileak aldarrikatu duena:

«Este tratamiento del corpus para su más completa descripción bien puede parecerse al «vaciado» de la práctica lexicográfica; de semejante debate se ocupa el apartado siguiente. Anticiparemos sin embargo aquí que no se confunden para nada las dos prácticas de terminología y lexicografía, por la

mera razón de que nuestro trabajo del corpus no apunta a un (mal llamado) «vaciado» general (de tipo lexicográfico) del corpus, sino que se limita a lo relativo a términos-nociones, cuyo registro, selección y delimitación se fundamentan en la estructura nocional (THIRY, Terminología..., 193. or.)».

Beste hitz batzuetan esateko, hustuketaz harago joan nahi izan dugu (hustuketa horrek zama lexicografikoa duelako, eta ez horrenbesteko terminologikoa), nozio kontzeptua tartekatuz; eta, horren bidez, bi hizkuntzen arteko baliokidetzak bilatu nahi izan ditugu, horixe baita oinarrizko mekanismoa itzulpen juridikoan. Horrek, bestalde, abagune ederra eman digu, euskararen kasuan, terminologia baterako oinarriak jarri, eta normalizaziorako eta normatibizaziorako ekarpenak egiteko.

- 3) Aurrekoak gorabehera, subjektibotasuna ere gertatu da gure hautuan; hain justu ere, legelarien subjektibotasuna. Hura, dena den, orekatu nahi izan dugu, lege-testuak euskaratzeko eginkizunean lehendik daukagun eskarmentuarekin (ESTHER URRUTIA, *Zuzenbidearen irakaskuntza...*).

5. Fitxaren osagaiak

Mikroegiturari erreparatzen badiogu, fitxa bakoitzaren osagaiak dira azaldu beharrekoak. Fitxa guztietan, goiburu moduan, *entry number* izenekoa agertzen da, kontagailuak egindako lana islatzeko, besterik gabe. Hori alde batera utzita, fitxaren osagaiak hurrengoak dira:

5.1. Iturria

Osagai honek bi datu eskaintzen ditu: aurrenekoa, zein lege-testutatik hustu den unitate lexikala, eta, hurrena, lege-testu horren barruan, zein artikulutan edo zein xedapenetan dagoen jasota unitate zehatz hori. Betiere, lege-testuaren aipamena egiteko, izen ofizial osoa erabili beharrean, horren laburdura erabiltzen da, gaztelaniaz eta euskaraz jarrita, eta, aldameanean, artikulua zenbakia.

5.2. **Gaztelaniazko sarrera**

Esan bezala, datu-basea itzulpena egin zen norabide berean, hau da, gaztelaniatik euskarara abiatuta egin da, eta, ondorenez, gaztelaniazko unitate lexikala agertzen da, iturriaren ondotik.

5.3. **Testuingurua gaztelaniaz**

Behin unitatea bera jasota, horren testuingurua ageri da, testuinguruaren barruan hartzen baitu bere esanahi osoa unitate horrek.

«Desde el punto de vista comunicativo el texto es el signo lingüístico primario, es decir, el lenguaje en condiciones normales sólo se encuentra en los textos (Hoffman, 1998 (1988a) 77-8) por lo que éste, y no la palabra o la oración, debería ser el núcleo central en el trabajo con las LE, aunque las investigaciones sobre los planos léxico y sintáctico también son necesarias (CONTRERAS, El diccionario..., 71. or.)».

5.4. **Euskarazko sarrera**

Gaztelaniazko alderdia bukatuta, euskarazkoan lehenengo osagaia da gaztelaniazkoaren ordaina ematea. Hala bada, ordain bi edo gehiago ager daitezke jasota fitxa berean, lehen esan dugun bezala.

5.5. **Testuingurua euskaraz**

Euskarazko ordainak ere bere testuingurua behar du eta hori jasota dago fitxa bakoitzean. Ordainak bat baino gehiago direnean, zein bere testuinguruarekin jaso da; horrela argiro ikus daiteke egokia den ala ez euskaraz bi ordain egotea, gaztelaniaz unitate bakarra izanik.

Ikus ditzagun, fitxaren mikroegiturari buruz, zenbait adibide:

SDL MultiTerm [Proyecto Sin título.xdp]

Base de datos terminológica Proyecto Entrada Buscar Ver Ayuda

cédula Spanish Basque Flags layout

Default input model

Entry number: 3875
Iturria: LFPFIN/NEBPFL 24.2.

Spanish

cédula de habitabilidad

Gaztelaniazko testuingurua: Condiciones técnicas de construcción y rehabilitación.
2. Asimismo, podrá establecer las normas técnicas exigibles para el otorgamiento de cédula de habitabilidad a todas las viviendas construidas o rehabilitadas en Navarra, con sujeción a lo dispuesto en la legislación básica sobre edificación.

Basque

bizigarritasun-zedula

Euskarazko testuingurua: Erakuntzen eta zaharberritzen ezaugarri teknikoak.
2. Halaber, zilegi du Nafarroan eraki edo zaharberritutako etxebizitza guzti bizigarritasun-zedula emateko eska dakizkiekeen arau teknikoak ezartzea, erakuntzari buruzko legea onarritokioan ezarritakoan jarraituz betiere.

cédula de habitabilidad /

Listo

SDL MultiTerm [Proyecto Sin título.xdp]

Base de datos terminológica Proyecto Entrada Buscar Ver Ayuda

convenio Spanish Basque Flags layout

Default input model

Entry number: 4861
Iturria: LFOTU/LAHARL 158.

Spanish

convenio urbanístico de gestión

Gaztelaniazko testuingurua: Transmisión de terrenos.
Las transmisiones de terrenos o adjudicaciones de solares derivadas de la aplicación de alguno de los sistemas de actuación regulados en esta Ley Foral o realizadas mediante convenios urbanísticos de gestión, cuando se efectuen en favor de los propietarios comprendidos en la correspondiente unidad de ejecución y en proporción a sus respectivos derechos, estarán exentas con carácter permanente, si cumplen todos los requisitos urbanísticos, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, y no tendrán la consideración de transmisiones de dominio a los efectos de la exacción del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana. Cuando el valor de los solares adjudicados a un propietario exceda del que proporcionalmente corresponda a los terrenos aportados por el mismo, se grarán las liquidaciones procedentes en cuanto al exceso.

Basque

hirigintzako kudeaketa-hitzarmen

Euskarazko testuingurua: Lurren eskualdaketa.
Foru lege honetan araututako jarduketa sistemetakoren baten aplikazioaren ondoriozko lurren eskualdaketak edo orubeen adjudakazioak, edo hirigintzako kudeaketa-hitzarmenen bidez egindakoak, kasuan kasuko ekzekuzio unitateen saritutako jabeen alde eta dagozkien eskubideen araberako egiten direnean, hirigintza beharberhar gusaki betearen badiuzta, ondore eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentuetan gainera zerga ordaintzeki salbetsutik egonean dira beriko, eta ez dira jabeen eskualdaketatzat harutuko, hiri-lurren balio igogearan gainera zerga ordaintzeko orduan. Jabe bati adjudikatutako orubeen balioak gantitzen bada jabe horretxek ekarritako lurren proportzioz dagoelena, soberakinari dagozkion likidazioak igorriko dira.

convenio urbanístico de gestión /

Listo

SDL MultiTerm [Proyecto Sin titulo.xdp]

Base de datos terminológica Proyecto Entrada Buscar Ver Ayuda

administración tribu Spanish Basque Flags layout

Default input model

Entry number: 797
Iturria: ISD/ODZ 11.
Iturria: ISD/ODZ 19.

Spanish

Administración tributaria

Gaztelaniazko testuingurua: Adquisiciones "morts causa". Estarán exentas: Los sujetos pasivos del Impuesto no estarán obligados a presentar ante los órganos competentes de la Administración tributaria los documentos y declaraciones establecidos en el Reglamento y relativos a dichas adquisiciones.

Gaztelaniazko testuingurua: Determinación de la base imponible. Con carácter general, la base imponible se determinará por la Administración tributaria en régimen de estimación directa, sin más excepciones que las determinadas en esta Ley Foral y en las normas reguladoras de estimación indirecta de bases imponibles.

Basque

zerga administrazio

Euskarazko testuingurua: "Morts causa" eskurapenak. Salbuetsirik daude: Zergaren subjektu pasiboak ez daude beharuta Erregelamenduan ezarritako dokumentuak eta aitorenak, eskuratzeko honiei buruzkoak, aurkeztuta zerga administrazioko organo eskudunei.

tributu-administrazio

Euskarazko testuingurua: Zerga-oinarriaren zehaztapena. Oro har, tributu-administrazioak finkatuko du zuzeneko baloiespenez zerga-oinarria, eta ez da onartuko salbuespenik, ez bada foru lege honetan zehaztutako edo zerga-oinarrien zeharrek baloiespenaren arauetan jasotakorik.

Administración tributaria /

Listo NUM

SDL MultiTerm [Proyecto Sin titulo.xdp]

Base de datos terminológica Proyecto Entrada Buscar Ver Ayuda

poder Spanish Basque Flags layout

Default input model

Entry number: 34
Iturria: LFIJPE/BEBJFL 4.4.
Iturria: ISD/ODZ 22.6.

Spanish

poder

Gaztelaniazko testuingurua: Disolución de la pareja estable. 4. La extinción de la pareja estable implica la revocación de los poderes que cualquiera de los miembros haya otorgado a favor del otro.

Gaztelaniazko testuingurua: Adición de bienes. 6. El importe de los bienes o valores retirados en virtud de poder o autorización con posterioridad al fallecimiento del poderdante se adicionará al caudal líquido hereditario propiamente dicho y, en consecuencia, los interesados están obligados a incluir dichos bienes en el inventario de los relictos, sin que ello les releve de las responsabilidades en que, como consecuencia de haberlos retirado fuera de las condiciones legales, hayan podido incurrir en su caso.

Basque

botere

Euskarazko testuingurua: Bikote egonkorra desagitea. 4. Bikote egonkorriaren irautingitzaek bi kideetako edonork bestearen alde emandako botereak berreskuratzea ekarriko du.

ahalorde

Euskarazko testuingurua: Ondasun-gehitzea. 6. Ahalorde-ematea hil eta gero ahalordeaz edo baimenez baliatuz erretiratutako ondasun edo baloien zenbatekoa jarrauspeneo ondasuntzaren zenbateko likidoari gehituko zaio, eta, horrenbestez, interesatuak beharrik daude onordetzan utzitako ondasunen inbentarioan ondasun horiek sartzea, eta horrek ez ditu libratuko, legezko baldintzez kanpo erretiratzearen ondorioz bereganatuak izan litzaketen erantzukizunetatik.

poder /

Listo NUM

6. Egitasmoaren emaitzak

6.1. Lexiko egituratua: onomasiologia/semasiologia

Lehen puntua da datu-base horren izatea, onomasiologia edo semasiologiaren aldetik. Esan beharrik ez dago datu-basea modu semasiologikoan antolatuta dela.

Makroegituraren osatzea, beraz, hurrenkera alfabetikoan egin da, dela unitate lexikal soilentzat, dela besteentzat.

Ez dugu iritzi unitate lexikalen arteko batuketa, hitz multzoka egin daitekeena, eta, gure iritzi, itzulpen juridikoan, eta, areago, legearen korrekzioan pisu erabakigarria izan dezakeena (ENEKO OREGI, *Korredakzioa araugintzan...*). Hori defendatu dugu berrikitan, eta hortik ikusten dugu bidea, etorkizuneko lexikografia eta terminologia juridikoan (ANDRES URRUTIA/ESTHER URRUTIA, *Onomasiologia eta terminologia...*).

«Las palabras que forman parte de una familia se ordenan por orden alfabético, después de la «cabeza de familia». A ésta y a cada palabra de la familia corresponde una entrada aparte con un lema puesto de relieve. A contagio como cabeza de familia, por ejemplo, siguen contagiarse, contagiarse, contagiosidad, contagioso, contaminación, contaminado, contaminador y contaminar, y palabras como container o contal, que vendrían antes de contaminar, aparecen después, rompiéndose así el orden alfabético. Además, las palabras que están fuera del lugar que les corresponde alfabéticamente, aparecen en él también, pero sólo como lema (sin definición), remitiendo a la cabeza de familia, en nuestro caso, contagio. Este sistema es, por ejemplo, el del diccionario de M. Moliner (del que hemos sacado también los ejemplos) (HAENSCH, *La lexicografía...*, 453. or.)».

Horrek ekarriko luke, besteak beste, testu itzulientzat halako barne kohesioa, testuaren kalitatea, juridikoa nahiz linguistikoa, bermatuko lituzkeena.

Horrek ekarriko luke, berebat, lege-testuaren sistema juridikoa eta bi hizkuntzen arteko itzulpena edo transposizioa egiteko aukera aparta.

Ildo horretatik, nahiz eta oraingoan barruratu ez, sakondu izan dugu berrikitan lehen erakutsitako fitxa, gure ustez honako osagai hauek izan beharko lituzkeena, onomasiologiaren bidean:

[zk.] Hitz juridikoen multzoa identifikatzea

Arloa:

Iruzkina:

Eremu semantikoa:

[zk. eta letra] ES gaztelaniazko hitza

EU *euskarazko ordaina*

Lege-testua:

Euskaratze-bidea:


Eta fitxa horren adibideren bat jartzekotan, hona hemen:

[1] Ebazpen judizialak: motak

Arloa: Proz. zuz.

Iruzkina: Epaitegi eta auzitegiek emandako ebazpen judizialak hiru motatakoak izan daitezke: probidentziak, autoak eta epaiak. Probidentziak izapidetza hutseko ebazpenak dira. Autoek, berriz, erabakitzen dituzte auzipetuen, akusatzaile partikularren edo auzijartzaile zibilen gain zuzeneko eragina duten intzidentek edo funtsezko gaiak; epaitegi edo auzitegiaren eskumena; ezespena bidezkoa edo bidegabeya izatea; probidentziaren bat birjartzea; birjartzearen ukatzea; espetxeratzea eta askatzea; froga edo doako laguntza onartzea edo ukatzea; eta, azkenik, legeen arabera oinarriturik izan behar diren ebazpenak ere autoak izaten dira. Epaiak, bukatzeko, auzia behin betiko erabakitzen dute auzialdi bakoitzean.

Eremu semantikoa: Taxonomikoa da.



[1a] ES auto

EU *auto*

Lege-testua

PKL.160es: *Los autos que resuelvan indicentes se notificarán únicamente a los Procuradores.*

Euskaratze-bidea

PKL.160eu: *Intzidenteak ebazten dituzten autoak prokuradoreei bakarrik jakinaraziko zaizkie.*

[1b] ES providencia

EU *probidentzia*

Lege-testua

PKL.204es: *Las providencias se dictarán y firmarán inmediatamente que resulte de las actuaciones la necesidad de dictarlas, o en el mismo día o el siguiente al en que se hayan presentado las pretensiones sobre que recaigan.*

Euskaratze-bidea

PKL.204eu: *Probidentziak eman eta sinatuko dira, horiek emateko beharrezana sortu bezain laster, edo, probidentzia horiek zein uziri buruzkoak izan eta uzi horiek aurkezten diren egunaren biharamunean.*

[1c] ES sentencia

EU *epai*

Lege-testua

EK.165es: *En las sentencias que pronuncie el Tribunal Supremo en los recursos de casación o en los de revisión no habrá discordia, quedando al efecto desechados los resultandos y considerandos que no reúnan mayoría absoluta de votos.*

Euskaratze-bidea

EK.165eu: *Ez da desadostasunik egongo Auzitegi Gorenak kasazio- edo berrikuspen-errekurtsoetan ematen dituen epaien inguruan; ondore horretarako, baztertu egingo dira botoen erabateko gehiengo lortzen ez duten ikusizkoak eta kontuan hartuzkoak.*

Lehen pausoa dugu, beraz, oraindik semasiologikoa dena, baina molde osoz on daitekeena, onomasiologiara eramateko, edo, behintzat, biak ahalak biak eskaintzeko, horrekin erdiesten dela tresna osoagoa, itzulpenean

edo korredakzioan jokoan diren sistema juridikoak eta hizkuntzak barruratzten dituen.

6.2. Hiztegi lexikografikoa/terminologikoa: definizioen arazoa

Bigarren puntua da datu-basearen izate lexikografikoa edo terminologikoa. Zerbait eman dugu aditzera hasieran, eta orain hura berretsiko dugu. Hemen ez gaude datu-base terminologiko huts baten aurrean, lan lexikografiko baten aurrean baino. Egia da hiztegi, berbategi eta glosarioaren arteko bereizketa ez dela aise zertzen:

«Un diccionari general d´una llengua sol tenir pretensions d´exhaustivitat, i és així que conté un nombre important de mots en aquesta llista; un diccionari especilitzat, que abraça només un àmbit del saber, sol partir d´una llista més restringida de mots. Si el nombre de mots tractat és bastant reduït, en comptes de diccionari, l´obra se sol anomenar vocabulari o lèxic. Si es tracta d´un recull reduït que conté només els mots considerats de comprensió difícil en una obra o en un autor, o aquells sobre els quals convé fer algun aclariment, aleshores utilitzem el terme glossari (RAFEL, *Lexicografia*, 15. or.)».

Guretzat, berbategia izango litzateke berbarik egokiena, RAFEL lexikografo katalanaren eskutik, halako unitate lexikalen multzoa, datu-basera bilduta dagoena, izendatzeko. Datu-base horrek, esan gabe doa, izaera eta informazio mugatua du.

Berbategi elebidun hori, gainera, baliokideen berbategia da, euskararen eta gaztelaniaren artean; eta erabileraren berbategia ere bada, unitate lexikal horiek lege-testuaren barruan nola erabiltzen diren erakusten digulako. Horretan ere azpimarratu behar da ez dela hori maiztasun handikoa gure hiztegietan edo berbategietan, salbuespenak salbuespen (bata, «AGINTARITZA-ALDIZKARIETATIKAKO HITZ-BILDUMA/VOABULARIO DE LOS BOLETINES OFICIALES»; eta, bestea, «LURRALDE ANTOLAMENDU ETA HIRIGINTZARI BURUZKO HITZ-BILDUMA/GLOSARIO SOBRE TÉRMINOS DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y URBANISMO»).

Bi kasuotan hori egiten bada ere, aipamenak ez du lege-testuaren barruko kokapena eskaintzen, kasu honetan gertatzen den bezalaxe. Azpimarra dezagun erabileraren berbategi izate hori, gero eta sarriago argitaratzen baitira egun halakoak.

Gure eredia ez da bakarra izan. Aitzitik, eskura izan ditugu, besteak beste, galegoari eta gaztelaniari dagokiena («VOCABULARIO JURÍDICO-ADMINISTRATIVO GALEGO-CASTELÁN»), frantsesari eta gaztelaniari dagokiena («LEXIQUE BILINGUE DE TERMES JURIDIQUES, FRANÇAIS-ESPAGNOL»), eta, horien aldamenean, «DICCIONARIO JURÍDICO. TERMINOLOGÍA DE LA RESPONSABILIDAD CIVIL (ESPAÑOL-FRANCÉS/FRANCÉS-ESPAÑOL)» eta «PRIVATE LAW DICTIONARY AND BILINGUAL LEXICONS/DICTIONNAIRE DE DROIT PRIVÉ ET LEXIQUES BILINGUES», azken horrek jasotzen baititu, bi liburukitan, zin-zinezko hiztegiak, elebidunak eta lege-sistema bi batzen dituztenak.

6.3. Hiztegi berezia: hizkera juridikoa, lege-ingurunean

Lexiko hau, bistan da, espezialitateko hizkera baten berbategia da; are zehatzago, lege-hizkerarena, hori ere azpihizkera dela hizkera juridikoaren barruan, hizkera administratiboa, auzitegi-tako hizkera eta zuzenbide-doktrinarena diren ber:

«Il y a ainsi trois types de textes qu'on peut qualifier de juridiques: les textes normatifs, les textes des décisions qui appliquent ces normes, et enfin les textes qui exposent le contenu des règles de droit, ceux que l'on désigne d'une façon toute générale par le terme de doctrine (BOCQUET, La traduction juridique, 10. or.)».

Horrek berarekin dakartza lege-hizkerak ezartzen dituen baldintzak eta ezaugarriak. Ez dugu arlo hori orain sakonduko. Luzea da horren inguruan osa daitekeen artikuluzerrenda, esaterako, fraseologiaren gainean dagoena, eta, horren barruan, esaterako, lokailuen erabilera estrategikoak joka dezakeena.

Idatzi ere, Kanadan idatzi da, ez hain aspaldian, guri ere aplikagarri izan dakikeguna:

«En common law comme dans les systèmes d'inspiration romano-germanique, le système conceptuel est entièrement dépendant du discours. Et, au sein de ce discours du droit, la phraséologie tient une place de choix. D'où l'importance de trouver et d'employer les lexèmes susceptibles de se combiner de façon idiomatique pour former un énoncé déterminé. Ce phénomène s'appelle, en linguistique, collocation (ou cooccurrence) (BEAU-DOIN, La traduction..., 181. or.)».

Hitz gutxitan esateko, hizkera berezia dugu hau, eduki bereziko, eta hori da berbategira bildu dena.

6.4. Eginaren laburra

Aurrena ikusita eta hurrena aztertuta, joan gaitezen orain azkenaren bitetik, berbategi horren makroegiturak eta mikroegiturak ahalbidetzen baitute eginaren balantzea egitea:

Horretara,

6.4.1. *Aurrera goaz*

Euskarazko lexikografia juridikoaren inguruan aurrerapausoa da, beste batzuk beharko dituen; euskarri teknologiko estandar baten bidez ondu da; unitate lexikal juridiko batzuk biltzen ditu; eta, horrekin batera, unitate horiek esanguratsu den sistema juridikoari erreferentzia egiten die.

6.4.2. *Baliokidearen arazoa*

Kokatze hori kronologikoa eta testuala da, euskararen eta gaztelaniaren arteko baliokidetzak jasotzen ditu, eta testu itzulien eraberekotasun-maila zehazteko balio du.

6.4.3. *Kontsultarako lanabesa*

Kontsultarako tresna da, aurrerantzean Nafarroako Gobernuak eta Euskarabideak eskura dutena eta itzulpen juridikoa hobetzeko aukera ematen diena.

Hobetze hori, argi dagoenez, ez dagokio kalitate linguistikoari bakarrik; egin-eginean ere, gaur badira horretarako baliabideak:

«IDITE tresnaren azken xedea terminologia-egiaztazailea izatea da, baina, horretarako, hiztegi terminologiko normalizatua izan behar du oinarrian. EUSKALTERMeko terminologia juridikoa normalizatutzat jotzeko moduan denean, terminologia-egiaztazailearen oinarri ezin hobea izango litzateke. Edozein itzulpen juridiko egindakoan IDITE erabiliko balitz, itzulpenean erabili den terminologia normalizatua ote den jakingo litzateke (LEIRE ZENARRUZABEITIA, Euskarazko testu juridikoen..., 203. or.)».

Hobetze hori, beraz, kalitate linguistikoari ez eze, kalitate juridikoari ere badagokio, bitzok baitira erreferentzia saihestezinak, bi hizkuntza ofizialen arteko itzulpen juridikoa aitzinatzeko.

6.4.4. *Testua eta testuingurua*

Euskarazko lexikografia juridikoan ohiko izan dugun baliokidetzen zerrenda baino harago doa hau, beraren baitan baitu hautu juridiko baten irizpidea, eta, gainera, lege-hizkeraren unitate lexikalen erabilera ere barruan hartzen baitu, Nafarroako Foru Komunitatean.

6.4.5. *Etorkizuna: zuzenbidea/hizkuntza*

Etorkizunari buruz badu ibilbidea egiteko moldea, horrek lagundu dezakeelako lexikografia eta terminologia juridiko elebiduna jorratzeko unean, bi alderdiak, linguistikoa eta juridikoa, aintzat hartuz eta berme seguruagoa eskainiz.

6.4.6. *Euskararen normatibizazioa*

Bestalde, bada tresna esanguratsua ere, euskara arautzeko xedeetan. Hainbatez, gure buruari gero eta ozenago egin behar diogun galderak ere hemen du bere kokalekua, ukaezina baita egungo gizarteetan jakitate espezializatuak hiztegi orokorretan duen sarbide azpimarragarria:

«Kontua da espezialistena eta espezialitateko hori nola neurtu eta barruratu. Labur-zurrean esanda, orekaren nondik norakoak nola zehaztu. Horretan, zalantzarik ez izan, Euskaltzaindiak zuen lana beharko du, Akademiaren emaitzak balioets ditzazuen eta zuen arrangurak barrura ditzagun, ahal delarik, modurik sistematiko eta agerikoenetan. Horrelaxe lortuko dugu, menturaz, egun munduan zehar zabaltzen ari dena euskaraz ere egitea, hots, Cabre aditu katalanaren esanari helduz, terminologia in vitro batetik terminologia in vivo batera igarotzea, eten eta jausirik gabe (ANDRES URRUTIA, *Hizkuntza orokorra...*, 60. or.)».

Estatistikek erakusten dute horren gorakada. Euskararen kasuan, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuaren bigarren itzulian, %5,16koa da ehunekoa, lehen hiru letretan; DRAE '01 horretan, aldiz, %8koa:

«Las apariciones de marcas jurídicas en el DRAE '01 (1498) representan el 8% del total de apariciones de marcas técnicas (19.160) y colocan al Derecho como tercera disciplina más representada, después de la Medicina (10,2%) y el transporte marítimo (9,6%) (LÓPEZ SAMANIEGO, *La terminología...*, 296. or.)».

Horri gehitzen badiogu zuzenbideak euskararen historia linguistikoan duen ibilera urria, onargarria da lan lexikografiko eta terminologikoa, tesuinguru elebidunean, etorkizuna eta zeresana izatea, euskararen esparruan, hizkera arruntean nahiz espezialitatekoetan, eta, esan gabe doa, zuzenbidearen hizkeran ere.

6.4.7. *Azkena*

Bukaerarako utzi dugu guretzat pisu handikoa den azken oharra. Nafarroako Foru Komunitatearen legeen multzoak, corpus testual gisa hartuta,

datu-basea osatzeko bidea eman digu. Beharrezkoa da hori osatzea eta finkatzea, hain zuzen ere, itzultzaileek eta hizkuntza-teknikariek onurarik handienak atera ditzaten lantresna horretatik, eta, azken batean, euren eguneroko zereginetatik.

Gure aldetik, zuen harrera eta arreta eskertzea besterik ez dugu; zuen iradokizunak egiteko gaitasuna piztu; eta proposatu, beharbada, datu-base horren argitalpena, paperean bederen, euskarazko hiztegi juridiko elebidun baten hasiera izan dadin, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskaltzaindiaren artean egin daitekeena.

Gaur badugu bidea horretarako, eta beste lan batzuetarako ere bai. Horien guztien helmugak euskararen aitzinamendua izan behar duela uste dugu guk, uste dugulako, berebat, euskal kulturaren itzultzaile, teknikari eta legelariok zer esan eta zer egin ugari dugula.

7. Bibliografia

AGINTARITZA – ALDIZKARIETATIKAKO HITZ–BILDUMA. VOCABULARIO DE LOS BOLETINES OFICIALES, 1985. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava, 673.

AGUILAR, L., 2001, *Lexicología y terminología aplicadas a la traducción. Curso práctico de introducción*, Materials, 106. Bellaterra: Universitat Autònoma de Barcelona. Servei de Publicacions. Departament de Filologia Espanyola, 86.

AHUMADA, I. (arg.), 2002, *Diccionarios y Lenguas de especialidad. V Seminario de Lexicografía Hispánica. Jaén, 21 al 23 de noviembre de 2001*. Jaén: Seminario de Lexicografía Hispánica. Universidad de Jaén, 226.

AIERBE MENDIZABAL, A., 2007, «Las unidades fraseológicas eventivas del lenguaje administrativo español y su traducción a la lengua vasca», in LUQUE DURÁN, J. de D. eta PAMIES BERTRÁN, A. (arg.): *Interculturalidad y lenguaje 2. Identidad cultural y pluralidad lingüística*. Granada: Granada Lingüística. Serie Collectae, 13-23.

ALCARAZ VARÓ, E., MATEO MARTÍNEZ, J., YUS RAMOS, F. (arg.), 2007, *Las lenguas profesionales y académicas*. Bartzelona: Ariel Lenguas Modernas. IULMA, 325.

ALEJOS JUEZ, M. T., 2005, «El lenguaje jurídico-mercantil: análisis lingüístico de documentos contractuales en inglés», in CURADO FUENTES, A. eta beste batzuk

(arg.): *Languages for Academic and Professional Purposes in the 21st century University Framework*. Cáceres: Universidad de Extremadura, 16-26.

AZORÍN, D. eta SANTAMARÍA, M. I., 2004, «El diccionario de autoridades (1726-1739) y el diccionario castellano (1786-1793) de Terreros y Pando ante la recepción de las voces de especialidad». *Revista de Investigación Lingüística*, 7. zk., 49-69.

BEAUDOIN, LI. L., 2007, «La traduction juridique au Canada. Contraintes linguistiques et juridiques. L'apport de la jurilinguistique», in SUEUR, J. J. (zuz.), *Interpréter & Traduire. Actes du colloque international des 25 et 26 de novembre 2005 Faculté de Droit de Toulon*. Brusela: Bruylant, 171-184.

BOCQUET, Cl., 2008, *La traduction juridique. Fondement et méthode*. Brusela. De Boeck, 122.

BORJA ALBI, A., 2007, «Los géneros jurídicos». in ALCARAZ VARÓ, E. MATEO MARTÍNEZ, J., YUS RAMOS, F. (arg.): *Las lenguas profesionales y académicas*. Bartzelona: Ariel Lenguas Modernas. Ariel eta Institut Interuniversitari de Llengües Modernes Aplicades de la Comunitat Valenciana, 141-153.

CABRÉ, M. T. eta GELPÍ, C., 2000, «Lexicographie bilingue catalan-espagnol: exemples de contrastivité dans le lexique juridique», in SZENDE, Th. (zuz.): *Approches contrastives en lexicographie bilingue*. Paris: Honoré Champion Éditeur, 335-358.

CAMPOS PARDILLOS, M. A., 2007, «El lenguaje de las ciencias jurídicas: nuevos retos y nuevas visiones», in ALCARAZ VARÓ, E. MATEO MARTÍNEZ, J., YUS RAMOS, F. (srg.): *Las lenguas profesionales y académicas*. Bartzelona: Ariel Lenguas Modernas. Ariel eta Institut Interuniversitari de Llengües Modernes Aplicades de la Comunitat Valenciana, 155-165.

CAMPOS PLAZA, N. A., CANTERA ORTIZ DE URBINA, J., ORTEGA ARJONILLA, E., 2005, *Diccionario Jurídico-económico francés-español/español-francés*. Granada: Editorial Comares, 455.

CHROMÁ, M., 2004, *Legal Translation and the Dictionary*. Tübingen: Max Niemeyer Verlag, 122.

CONTRERAS IZQUIERDO, N. M., 2008, *El diccionario de lengua y el conocimiento especializado en la sociedad actual*. Jaén: Universidad de Jaén, 261.

DÍEZ DE REVENGA TORRES, P., 2001, «Innovación y tradición en las lenguas de especialidad: el ejemplo de la lengua jurídica», in BARGALLO, M. eta beste batzuk (arg.): *Las lenguas de especialidad y su didáctica. Actas del Simposio Hispano-Austriaco*. Tarragona: Universitat Rovira i Virgili. Departament de Filologies Romàniques, 103-112.

FALZOI ALCÁNTARA, M. del C., 2004, «Lenguaje jurídico y traducción: Hacia una propuesta didáctica», in BRAVO UTRERA, S. (arg.): *Traducción, Lenguas, Literaturas. Sociedad del Conocimiento. Enfoques desde y hacia la cultura*. Las Palmas Kanaria Handikoa: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Las Palmas de Gran Canaria, 57-73.

FERNÁNDEZ BELLO, P., 2008, «Las colocaciones en el lenguaje jurídico», in MELLADO BLANCO, C. (arg.): *Colocaciones y fraseología en los diccionarios*. Frankfurt am Main: Peter Lang, 69-84.

GÉMAR, J-C., 2003, «Langage du droit, Dictionnaire bilingue et jurilinguistique. Le cas du Dictionnaire de Droit Privé. Private Law Dictionary du Québec: Traduire ou exprimer le droit?», in SZENDE, Th. (zuz.): *Les écarts culturels dans les dictionnaires bilingues*. Paris: Honoré Champion Éditeur, 173-189.

GÉMAR, J-C. eta HO-THUY, V., 1997, *Difficultés du langage du droit au Canada*. Quebec.: Les éditions Yvon Blais Inc. 2. argitaraldia, 282.

GÓMEZ GUINOVART, X. eta TORRES PADÍN, A., 2004, *Vocabulario xurídico-administrativo galego-castelán*. Vigo: Universidade de Vigo, 539.

———, 2006, «Extracción dun vocabulario xurídico-administrativo galego-castelán a partir dun corpus paralelo». *Terminología y derecho: complejidad de la comunicación multilingüe. V Actividades de IULATERM de Verano (4-14 de julio de 2005)*. Bartzelona: Institut Universitari de Lingüística aplicada. Universitat Pompeu Fabra, 175-188.

GONZÁLEZ SALGADO, J. A., 2009, «El lenguaje jurídico del siglo XII». *Diario La Ley*. 7209 zk., 1-6.

GREENSTEIN, R. (zuz.), 2003, *Langue, culture et code: regards croisés*. Paris: L'Harmattan, 203.

GROFFIER, E. eta REED, D., 2007, *La lexicographie juridique. Principes et méthodes*. Quebec: Les éditions Yvon Blais Inc., 151.

HAENSCH, G., WOLF, L., ETTINGER, S., WERNER, R., 1982, *La lexicografía (De la lingüística teórica a la lexicografía práctica)*. Madril: Gredos, 563.

HENRÍQUEZ SALIDO, M. do C., 2002, *El vocabulario jurídico en el «Diccionario da Academia das Ciências de Lisboa» y el «Diccionario de la Real Academia Española»*. Lisboa: Academia das Ciências de Lisboa, 386.

———, 2005, *Para una historia de la lengua de la ciencia: el vocabulario jurídico en el Tesoro de Covarrubias*. Revista Portuguesa de Humanidades. 9. liburukia. 1/2. Faculdade de Filosofia da U.C.P. Braga, 115.

HERNANDO DE LARRAMENDI, M., 1999, «Caracterización del lenguaje legislativo español». *Lenguas para fines específicos (VI) Investigación y enseñanza*. Salamanca: Universidad de Alcalá, 207-215.

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA. EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA SAILA, 2002, *Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 63.

LÍBANO ZUMALACÁRREGUI, Á., 2001, «Raíces históricas del lenguaje de la economía y el comercio», in BARGALLO, M. eta beste batzuk (arg.): *Las lenguas de especialidad y su didáctica. Actas del Simposio Hispano-Austriaco*. Tarragona: Universitat Rovira i Virgili. Departament de Filologies Romàniques, 235-243.

L'HOMME, M. C. eta VANDAELE, S. (zuz.), 2007, *Lexicographie et Terminologie: Compatibilité des modèles et des méthodes*. Ottawa, Ontario: Université de Ottawa, 333.

LÓPEZ SAMANIEGO, A., 2005, «La terminología jurídica en los diccionarios de lengua del siglo XXI», in CURADO FUENTES, A. y otros (arg.): *Languages for Academic and Professional Purposes in the 21st Century University Framework*. Cáceres: Universidad de Extremadura, 289-298.

LURRALDE ANTOLAMENDU ETA HIRIGINTZARI BURUZKO HITZ-BILDUMA. GLOSARIO SOBRE TÉRMINOS DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y URBANISMO, 1995, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1010.

MARTÍN ZORRAQUINO, M. A. eta ALIAGA JIMÉNEZ, J. L. (arg.), 2003, *La lexicografía hispánica ante el siglo XXI. Balance y perspectivas*. Zaragoza: Gobierno de Aragón. Departamento de Educación, Cultura y Deporte. Institución «Fernando el Católico». Excma. Diputación de Zaragoza, 282.

MARTÍNEZ MOTOS, R., 2006, «La traducción de términos del derecho de sucesiones: asimetría cultural y búsqueda de equivalentes», in CABRÉ, M. T., BACH, C., MARTÍ, J. (arg.): *Terminología y derecho: complejidad de la comunicación multilingüe (V Simposio Internacional de Terminología)*. Barcelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada. Universitat Pompeu Fabra. Serie Activitats, 18, 217-231.

MATULEWSKA, A., 2007, *Lingua Legis in Translation. English-Polish and Polish-English Translation of Legal Texts*. Frankfurt am Main: Peter Lang, 324.

MAYORAL ASENSIO, R., 2004, «Lenguajes de especialidad y traducción especializada. La traducción jurídica», in GONZALO GARCÍA, C. eta GARCÍA YEBRA, V. (arg.): *Manual de documentación y terminología para la traducción especializada*. Madrid: Arco/Libros 49-71.

MOREL SANTASUSAGNA, J., 2001, «Observacions sobre la divulgació del coneixement especialitzat a propòsit del dret de família», in BRUMME, J. (arg.): *La historia de los lenguajes iberorrománicos de especialidad. La divulgación de la ciencia*. Madrid: Vervuert-Iberoamericana, 295-307.

NACIFF, S., 2008, «Terminología y traducción jurídica». *La Traducción. Hacia un encuentro de lenguas y cultura*. Córdoba (Argentina): Centro de Investigación y Traducción. Editorial Comunicarte, 217-224.

OBSERVATORI DE NEOLOGIA. INSTITUT UNIVERSITARI DE LINGÜÍSTICA APLICADA. UNIVERSITAT POMPEU FABRA, 2004, *Llengua catalana i neologia (Part I. La creació lèxica en català. Part. II. Recull de neologismes)*. Barcelona: Meteora, 399.

ORDOÑEZ SOLIS, D., 2002, «Lenguaje judicial: argumentación y estilo». *Diario La Ley*. 5564 zk., 1-38.

OREGI, E., 2010, «Korredakzioa araugintzan. Itzulpenaz haratago» www.erabili.com

ORTS LLOPIS, M. Á., 2005, «Vagueness vs ambiguity: the construction of legal texts in English and Spanish». in CURADO FUENTES, A. y otros (arg.): *Languages for Academic and Professional Purposes in the 21st century University Framework*. Cáceres: Universidad de Extremadura, 77-82.

OTAOLA OLANO, C., 2004, *Lexicología y semántica léxica (Teoría y aplicación a la Lengua Española)*. Madrid: Ediciones Académicas, S.A., 435.

PORTO DAPENA, J. A., 2002, *Manual de técnica lexicográfica*. Madrid: Arco/Libros, 367.

RAFEL I FONTANALS, J., 2005, *Lexicografía*. Bartzelona.: Editorial UOC, 177.

REY, A., 2008, *De l'artisanat des dictionnaires à une science du mot. Images et modèles*. Paris: Armand Colin, 303.

ROBLES MORCHÓN, G., 2007, *Pluralismo jurídico y relaciones intersistémicas (Ensayo de teoría comunicacional del Derecho)*. Iruñea: Thomson – Civitas, 250.

SALGADO, M. B., 2007, *Lexique bilingue de termes juridiques (français-espagnol)*. Paris: Ellipses, 328.

SAMANIEGO FERNÁNDEZ, E., 2005, «El lenguaje jurídico: peculiaridades del español jurídico», in FUERTES OLIVERA, P. (Koord.): *Lengua y Sociedad: Investigaciones recientes en Lingüística aplicada*. Valladolid: Universidad de Valladolid, 273-3SECO, M., ANDRÉS, O., RAMOS, G., 1999, *Diccionario del español actual*. Madril: Santillana Ediciones Generales. I. liburukia, 2274.

SECO, M., ANDRÉS, O., RAMOS, G., 2005, *Diccionario Fraseológico documentado del Español Actual. Locuciones y modismos españoles*. Madril: Santillana Ediciones Generales, 1084.

SUEUR, J.J. (zuz.), 2007, *Interpréter & traduire. Actes du colloque international des 25 et 26 novembre 2005 Faculté de Droit de Toulon*. Brusela: Bruylant, 366.

TABARES PLASENCIA, E., 2004, «Estudio de la formación de palabras en el ámbito del derecho civil español», in FABER, P., JIMÉNEZ, C., WOTJAK, G. (arg.): *Léxico especializado y comunicación interlingüística (VI Congreso Internacional de Lingüística Hispánica. Leipzig, del 8 al 12 de octubre de 2003)*. Granada: Granada Lingvistica. Serie Collectae, 159-175.

THIRY, B., 2005, *Diccionario jurídico. Terminología de la responsabilidad civil (español-francés / francés-español)*. Granada: Comares, 424.

THIRY, B., 2009, *Terminología y Derecho. La responsabilidad civil extracontractual. Contribución a su tratamiento terminográfico y a la Teoría de la Terminología*. Granada: Editorial Atrio, 346.

TORRENT, J., 2006, «El lèxic en la traducció jurídica», in VIGO I BONADA, J. eta MESTRES I SERRA, J. M. (Arg.): *III Seminari de Correcció de Textos (La terminologia i la correcció de textos)*. Bartzelona: Institut d'Estudis Catalans, 117-125.

UGARTEBURU GASTAÑARES, I., 2003, «Lexicografía especializada en lengua vasca», in GUTIÉRREZ RODILLA, B. M. (arg.): *Aproximaciones al lenguaje de la ciencia*. Burgos: Instituto castellano y leonés de la lengua. Colección Beltenebros, 1. zk., 465-497.

URKIA, M., (2010, «Corpungintzaren garrantzia hizkuntzalaritzan eta euskararen egoera» in *Plazaberrri* (2010-01-27), www.euskaltzaindia.net

URRUTIA BADIOLA, A., 2005, «Jurista euskalduna, jurista elebiduna» in LARRAZABAL BASAÑEZ eta OREGI GOÑI, E. (koord.): *Hizkera juridikoa eta itzulpengintza: euskararen norabidea. Deustuko Unibertsitatean j2004ko azaroaren 17 eta 18an egindako sinposioaren agiriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 147-171.

———, 2005, «Hizkuntza orokorra-xede berezietarako hizketrak. Hiztegi Batuaren zeregina» in *Uztaro*, 55.zk., 49-60.

———, 2008, «Legeen eta Administrazioaren hizkera, testu-antolatzaileen ikuspegitik» in *Euskera*, 53. liburukia, 525-546.

URRUTIA BADIOLA, A. eta URRUTIA IDOAGA, E., 2006, «Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua (2. itzulua: A, B, C letrak) eta euskarazko terminologia juridiko-administratiboa: ezaugarriak eta jokaerak». AVD-ZEA Academia Vasca de Derecho. Zuzenbidearen Euskal Akademia. 10. zk., 71-109.

———, 2007, «Onomasiologia eta terminologia: www.iev.deusto.es biblioteka juridiko elebidunaren hustuketarako irizpideak». AVD-ZEA Academia Vasca de Derecho. Zuzenbidearen Euskal Akademia. 13. zk., 91-152.

———, 2009, «Deustuko Unibertsitateko euskara juridikoaren ikerketa-taldeen esperientzia» in Zenbait Autore: *Nomografia eta arau-idazketa elebiduna. Nomografía y corrección legislativa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 91-128.

URRUTIA IDOAGA, E., 2005, «Zuzenbidearen irakaskuntza eta euskara, itzulpenaren ikuspegitik: Deustuko Unibertsitatea» in LARRAZABAL BASAÑEZ, S eta OREGI GOÑI, E. (koord.): *Hizkera juridikoa eta itzulpengintza: euskararen norabidea. Deustuko Unibertsitatean. 2004ko azaroaren 17 eta 18an egindako sinposioaren agiriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 173-208.

ZABALA, I., MARTÍNEZ, M., ELORDUI, A., 2006, «La variación terminológica en contextos sociolingüísticos minorizados: el caso de la lengua vasca», in CABRÉ, M. T., ESTOPÀ, R., TEBÉ, C. (Arg.): *La terminología en el siglo XXI. Contribución a la cultura de la paz, la diversidad y la sostenibilidad (Actas del IX Simposio Iberoamericano de Terminología RITERM04)*. Bartzelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada. Universitat Pompeu Fabra. Serie Activitats, 17, 837-850.

ZENARRUZABEITIA ALONSO, L., 2009, «Euskarazko testu juridikoen idazkuntza itzulpenaren bidez: UZEIko esperientzia» in ZENBAIT AUTORE: *Nomografia eta arau-idazketa elebiduna. Nomografía y corrección legislativa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 201-209.

ZENBAIT AUTORE, 1991, *Dictionnaire de Droit Privé et lexiques bilingues*. Montréal. Québec: Les Éditions Yvon Blais. 2. argitaraldia zuzendua eta osatua, 741.

———, 1991, *Private Law Dictionary and bilingual lexicons*. Montréal. Québec: Les Éditions Yvon Blais. 2. argitaraldia zuzendua eta osatua, 611.

———, 2005, *Novas palabras galegas. Repertorio de creaciones léxicas rexistradas na prensa e internet*. Vigo: Observatorio de Neoloxía da Universidades de Vigo. Área de Normalización Lingüística da Universidades de Vigo, 396.

———, 2008, *The Law of Bilingual Interpretation*. Markham. Ontario: Lexis Nexis Canada, 216.

———, 2009, *Nomografia eta arau-idazketa elebiduna. Nomografía y corrección legislativa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 275.

Itzulpen Atala: Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta bertze plaza batzuetan

TABERNA IRAZOKI, Mikel
Nafarroako Gobernuko Itzulpen Ataleko itzultzailea

0. Sarrera

Jaun-andreok, egun on!

Lehenik, eskerrak eman nahi dizkiet Euskarabideari eta Euskaltzaindiari egin didaten gonbitagatik. Eta mila esker zuei, baita ere, gure solasak aditzera etorri zaretelako.

Jardunaldiko nire azalpenarekin hasi baino lehen, bilera honetara ekarri nahi nuke Joxemiel Bidadorren oroitzapena. Gaizkitu zelako berria ikasi genuenetik airean geunden, jakinik hagitz egoera larrian zegoela. Eta herenegun arratsaldean, hunat ekartzeko hitzak prestatzen ari nintzen bitartean, irakurri nahi ez nituenak iritsi zitzaizkidan. Hemen gauden anitzek ezagutu genuen. Gizon gazte atsegina, euskararen unibertso ttipian argi propioa zuen ikertzaile distiratsua, eta, eginiko lanek salatzen dutenez, langile porrokatua. Hor dago utzi digun ondarea. Izan denagatik guztiagatik luzaroago nahi eta behar genuen gure artean. Besarkada bat bere jendaki eta lagunentzat. Goian bego.

Baina hemen gaudenok segitu behar baitugu, gaurko saiorako prestatu dudana gaira itzuliko naiz. Nire asmoa Nafarroako Gobernuko Itzulpen Atala eta bertan egiten dugun lana zuei ezagutaraztea da. Izenburuak dioen bezala, Aldizkari Ofizialean ez eze bertze jardun-gune batzuetan ere aritzen gara. Horien guztien berri ematen saiatuko naiz.

1. Historiako mugarri aipagarrienak

1.1. Itzulpen Atalaren sorrera

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 7. artikuluan ezarri zen Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala gaztelaniaz eta euskaraz emanen zirela argitara (aldibereko edizio bananduetan); eta lege bereko 9. artikuluan, Nafarroako Gobernuak Iruñean euskara-gaztelania itzulpen ofizialeko unitate administratiboa sortuko zuela.

Hain zuzen ere, lege agindu horien ondorioz, 1987an lehiaketarako dei egin zen, zazpi itzultzaile plaza betetzeko. Gisa horretan, beraz, hurrengo

urtean zazpi lagun hasi ziren itzulpen lanean, nafar Administrazioarentzat. Eta langile haiek bilduko zituen unitate administratiboa ere, Itzulpen Atala, urte hartan berean sortu zen, 1988an, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren baitan.

1.2. Atalaren eginkizunak

Zuzendaritza Nagusi berriaren sorrera onetsi zen foru dekretuan zehaztu ziren beraren mendeko unitate guztien eginkizunak. Honela aipatzen ziren Itzulpen Atalaren esku utzitakoak:

«*Boletín Oficial de Navarra* delakoaren euskarazko alean sartu beharreko xedapen orokor, administrazio ebazpen eta beste egintza eta dokumentuen itzulpen ofiziala.

Administrazio Publikoek nahiz partikularrek eskatzen dizkieten euskara-gaztelera eta gaztelera-euskara itzulpen ofizialak, Euskarari buruzko Foru Legean xedatua dagoenari jarraikiz.

Euskara-gaztelera eta alderantzizko itzulpen ofizialetan entitate lokalei eta beste administrazio publikoei aholkua ematea».

Handik urte batzuetara, aholku emateko eginkizunaren barranean, zeregin berezi bat azpimarratu zen, Hezkuntza eta Kultura kontseilari Javier Marcoteguik sinaturiko 161/1998 Foru Aginduaren bitartez. Agindu hura zela medio, Atalak «euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara itzulpenak ofizialki baliozkoteko eskumena» berea zuela zehaztu zen espresuki.

Hiru eginkizun nagusi horiek, aparte erantsitako zehaztapena barne, gaur egun ere indarrean dira.

1.3. Departamentu batetik bertera

Itzulpen Atala, erran bezala, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren mendean sortu zen, eta Zuzendaritza Nagusia, bere aldetik, Lehendakaritza eta Barne Departamentuaren barranean. Baina gerora,

1996an, Zuzendaritza Nagusi osoa Hezkuntza eta Kultura Departamentura pasatu zuten, bere *zerbitzu*, *atal* eta *bulego* guztiekin.

2000. urtean, aldiz, aldaketa handiak izan ziren Gobernuan, eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari berari bete-betean eragin zioten. Horren ondorioz, Zuzendaritzaren izena aldatu zen. Izen berria eman zioten: *Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia*. Horrekin batera, Itzulpen Atala Zuzendaritza horretatik atera eta bertze leku batean txertatu zen: Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzuan, berriz ere Lehendakaritza eta Barne (eta Justizia) Departamentuan. Hori bai, lehengo eginkizun berberak zituen, eta itzultzaileak ere, bat ez bertze gainerako guztiak, unitate berrira pasatu gintuzten.

1.4. Xehetasun pare bat

1.4.1. Lehenbiziko zazpi itzultzaileak 1988an hasi ziren lanean, eta 1990ean bertze zazpi gehiago. Hamalau lagun haiek osatu zuten hasierako blokea. Gero beste lau lanpostu gehiago sortu ziren.

1.4.2. Hasierako hamalau lagun haiek *itzultzaile* lanpostuak bete zituzten. Ez zen kontuan hartu interprete lana ere egin beharko zela. Ordea, suertatu zen horrelako zerbitzuak emateko beharra ere (haietako batzuk gizartean oihartzun handia izan zuten kasuetan, epaitegietatik etorritako eskariari erantzuteko). Horren ondorioz, atzetik etorri ziren lanpostu berriak *itzultzaile-interpreteentzat* izan ziren. Gaur egun, Ataleko plantillan itzultzaileok hamalau plaza ditugu, eta itzultzaile-interpreteek lau.

1.5. Laburpen gisara

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legean ezarritakoaren ondorioz, 1988an sortu zen Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia, eta beraren baitan Itzulpen Atala. Hagitz gertaera garrantzitsua, nire iritziz, euskara nafar Administrazioaren plazara JALGI zelako, ordurarte sekula izan ez zuen estatusarekin.

2. Gaur egungo egoera eta jarduna

2.1. Lanpostuak eta lan banaketa

2.1.1. Itzultzaileak

Plantillako plaza guztiak beterik ez badaude ere, dagoeneko abiatua den lehiaketa amaitzen denean, hemezortzi itzultzaile izanen gara (horietatik lau itzultzaile-interprete, gainerako hamalauak itzultzaile huts), denak *atalburu* baten zuzendaritzapean. Inork ez du organikoki eginkizun berezirik atxikita; alde horretatik, denak berdinak gara. Baina, lan motaren arabera, geure arteko espezializazio moduko bat egina dugu. Batzuek Aldizkari Ofizialeko lanak itzultzen dituzte (eta horien barrenean ere bakoitza sail batean ari da), eta bertze batzuk aldizkaritik apartekoetan aritzen dira.

2.1.2. Zuzentzaileak

Aldizkarirako iragarkien sail bakoitzak bere zuzentzailea du, eta *aldizkaririk* aparteko sailak ere bai. Zuzentze lana ez dago pertsona jakin batzuen esku; denok sartuak gaude eginkizun horri dagokion gorpulean, eta, txandaka-txandaka, guztiok ari behar izaten dugu zeregin horretan, egokitzen zaigunean, hiru hilabeterako bederen. Lankideen itzulpenak (eta kanpoko enpresak eginak, eta elebitan iristen direnak) orratzaz gainera, aldi aldi zuzentzailea bere sailari dagokion kaieraz arduratzen da. Hartan idazten ditu eztabaidagai iruditzen zaizkion kontuak eta bururatzen zaizkion proposamenak, zuzentzaile denboran atzeman dituen arazoei buruzkoak.

2.1.3. Terminologia

Une honetan, taldekide bat arduratzen da, bere lan denbora osoan, proposamenak bideratu eta erabakiak biltzeaz eta datu-baseak eguneratzeaz. Halere, gure historian hori ez da beti horrela izan. Sinetsiak gaude koordina-

tzaile edo terminologo eginkizuna ere nahitaezkoa dela, baina ez dago organigraman, eta, horregatik, neurri batean, lan-kargaren eta Ataleko nahiz Zerbitzuko buruen borondatearen mende dago.

2.1.4. *Lan bereziak*

Bertzelako mandatuak ere esleitzen zaizkigu itzultzaile guztioi, tartekata-terteka. Betiere egiten dugun lanarekin zerikusia dutenak. Konparazio baterako, euskaraturik ditugun lege-testu garrantzitsuenen bilduma egitea, gero Gobernuaren web gunean txertatzeko, gaztelaniazkoak Lex Navarra gunean dauden gisara; gai jakin batzuetako glosategi bereziak zehaztea (Justizia, Hirigintza...); iragarki eta inprimaki-ereduak prestatzea...

2.1.5. *Kanpoan eginiko lanak*

Bertzalde, Atalak bere baliabideekin egin ezin dituen lanak kanpora ateratzen dira, eta enpresa baten esku uzten, baina horiei ere Ataleko zuzentzaileek azken begiratua ematen diete, itzulpenaren egokitasuna eta testu guztien koherentzia (terminologikoa eta estilistikoa) ahal den neurrian bermatzeko.

2.2. **NAOn eta bertze plaza batzuetan**

Aitzineko puntuetan aipatu dudan bezala, nahiz eta Atala gaur egun Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzuan txertatua egon, aldizkarirako itzulpenak egitea Atalaren eginkizunetako bat bertzerik ez da.

Egia da lan-karga mardulena Aldizkariaren itzulpenetik datorrela, eta jende-multzorik handiena ere horretan aritzen dela, baina bertzelako itzulpen lanak eta aholkularitzakoak ere ez dira gutti, kopuru aldetik, eta, jakina, NAOkoak bezain garrantzitsuak.

Beraz, hitzaldiari jarritako izenburuak dioen bezala, plaza bat baino gehiagotan aritzen gara. Zehazki, lau jardun-gune ditugu, Atalaren esku

utzitako lau eginkizunen ondoriozkoak, lau plaza, lau lantegi, hemezortzi lagun artean banatuak.

2.2.1. *Lehenbiziko plaza: Nafarroako Aldizkari Ofiziala*

Nafarroako Aldizkari Ofiziala ez da ehuneko ehun euskaraz argitaratzen, horretarako bidean bada ere, Euskararen Legean ezarritakoa bete beharko bailitzateke:

«Aldizkari Ofiziala gaztelaniaz eta euskaraz emanen da argitara (aldibereko edizio bananduetan)...».

Progresio bat izan da, eta berriki hasi gara euskaraz ere argitaratzen, adibidez, udalen hirigintza planak, Justizia Administrazioako iragarkiak, ur konfederazioenak..., orain arte euskaratzen ez zirenak.

2009an, NAOan, 16.000 orri editatu ziren, eta horietatik % 70 inguru euskarara itzuli ziren (gaur egun, azken erabakien ondorioz, are handiagoa da itzultako orrien portzentajea). Gai aldetik ere, denetik izaten da, mota guztietako herritarrei eragiten dietenak: legeak, foru dekretuak, lan deialdiak, eraikitze lizentziak, isunen jakinarazpenak...

Iragarki batzuk elebitan iristen dira gurera, alegia, euskaraz eta erdaraz igortzen dituzte sortzen diren lekuetatik. Zehazki, udal batzuetatik bidaltzen dituzte horrela; Nafarroako Unibertsitate Publikotik; Gobernuako departamenturen batetik (Hezkuntzatik, Lehendakariatzako Administrazio Publikoaren Institututik...)... Baina testu gehien-gehienak hizkuntza bakarrean iristen zaizkigu, gaztelaniaz, eta geronek itzuli behar izaten ditugu. Elebitan ailegatzeko zaizkigun proportzioa oraindik txikia da, nahiz eta gero eta gehiago izan.

Bi hizkuntzetan iristen diren iragarkien argitaratze-bidea desberdina izaten da. Zuzentzaileak gainbegiratu egiten ditu, eta, ahal dela, igorlearekin harremanetan jartzen da, nolabaiteko adostasun terminologikoa lortzeko, Atalean finkatuak ditugun erabakiekin bat etor daitezten.

Benetan pozgarria da iragarki elebidunen kopurua berretzen doala ikustea, euskara, pixkanaka bada ere, bertze administrazioegune batzuetan heda-

tzen ari dela jakitea, euskarazko testu administratiboak, gaztelaniazkoen ordaina emateaz gainera, egiazki erabiltzen direla ohartzea.

2.2.2. *Bigarren plaza: bertzelako itzulpen ofizialak*

Erran bezala, Itzulpen Ataleko lanak ez dira Aldizkariaren eremu karra-tuan amaitzen. Muga horietatik kanpora ateratzen direnak ere egiten ditugu. *Itzulpen Unitatea* deitzen diogun azpiatala arduratzen da horretaz. Eta hor zer itzultzen da? Oro har, Gobernuko Administrazioaren edozein bulegotatik eskatzen diguten zernahi: Gazteriaren Institutuko aldizkariak, Osasunbideko kanpainak ezagutarazteko informazio orri edo liburuxkak, Gobernuko lehendakariak errepide puska baten inaugurazioan erran behar dituen hitzak, kontseilari edo zuzendari nagusiek udaletara eta ikaste-txeetara bidaltzen dituzten gutunak, errotuluak (errepideetakoak, nahiz eraikin ofizialetakoak), errenta aitorpenerako inprimakiak, webguneak edo Internet bidez eskaintzen diren zerbitzuak... eta abar. Euskaratik gaztelania-
ra ere bai: Administrazioari eginiko erreklamazioak, herri batzuetako udal bilkurak (departamenturen batera hala bidali duelako udalak)...

Bereziki azpimarratu nahi nuke jardun-gune hau, jende anitzek ez baita-ki honelako itzulpen lanak egiteko eskumena dugula. Informazio falta hori saihestu eta gaingitu nahi genuke. Horretarako, Interneterako esteka bat prestatzen ari gara, Gobernuaren webgunean txertatzeko, eta haren bidez interesdun guztiei ezagutarazi Itzulpen Atalak eskaintzen dituen zerbitzuak.

2.2.3. *Hirugarren plaza: aholku ematea*

Aholku eta informazioa ematen dugu, Gobernuko Administrazioiko ber-tze bulego batzuetatik, edo udaletatik, edo bertze edozein administrazio publikotatik (Trafiko Zuzendaritzatik, konparazio baterako), eskaririk egi-
nez gero. Zeri buruz? Zehazki itzulpen ofizialei buruz, baina baita horiekin lotutako bertze gai batzuei buruz ere: toponimiaz (larriaz eta xeheaz); ka-leen izenaz; edo gurean nahiz guretik kanpo euskaraturik dauden lege eta araez, eta abar.

2.2.4. *Laugarren plaza: itzulpenen gaineko irizpena*

Eginkizun hau ere esleitua du Atalak, sorrerari eta eginkizunei buruzko lerroaldeetan aipatu dudan bezala. Esate baterako, egiaztatu behar izan dugu testamenturen baten itzulpena zuzena ote zen; zenbait elkarteren estatutuak (erregistroan euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu direnak) ...

2.2.5. *Bertze eginkizun bat: interprete lana*

Bakan samar, baina suertatzen denean egin behar izaten dute itzultzaile-interprete direnek. Konparazio baterako, Nafarroako Eskola Kontseiluaren edo Euskararen Aholku Batzordearen bileretan izan dira Ataleko interpreteak; baita bertze kasu bitxiago batzuetan ere. Adibidez, Nafarroako Auzitegi Nagusitik eskaera egin zitzaion Gobernuari interpreteak behar zituela Gartzaingo hilketa ospetsuaren epaiketarako.

2.3. **Laburpen gisara (eta gogoetaxka)**

Horiek horrela, gaur egungo gure antolamenduaz eta jardunaz, puntu hauek azpimarratu beharrekoak iruditzen zaizkit:

- Hezkuntza Departamentuak bere beharretarako Euskarabidean dituen itzultzaileak kenduta, Nafarroako Gobernuaren Administrazio osorako gainerako itzulpen lan guzti-guztiak Itzulpen Ataleko itzultzaileon esku daude.
- Atala Aldizkari Ofizialaren Zerbitzuan txertatua dagoenez, irudipena dugu jende anitzek ez dakiela itzultzaile talde honek aldizkaritik aparteko itzulpen ofizialak ere egiten dituela, ez eta itzulpen ofizialen gaineko aholkua emateko eginkizuna esleitua dugula ere.
- Lan asko sartuagatik, uste dugu informazio falta horren ondorioz ez dela eskaera gehiago ailegatzen, eta zerbait egin beharko litzatekeela Atalak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak ezagutarazteko. Espero dugu Gobernuaren webgunean jarri gogo diren argibide eta estekek horretan lagunduko dutela.

- Ia Administrazio osoari (eta bertze administrazio batzuei ere bai, neurri batean) itzulpen unitate bakar batek zerbitzu ematea baino hobea litzateke, segur aski, nolabaiteko deszentralizazioa gertatzea, eta Departamentu bakoitzak bere itzultzaileak izatea. Era horretan, gauza gehiago itzuliko liriateke (ustez), eta itzultzailea hurbilago egonen litzateke kasu bakoitzean zerbitzu horren beharra duen pertsonarengandik.
- Halere, bertzalde, nahitaez erran beharra dago zein inportantea izan den, guretzat eta oro har Itzulpen Atala martxan jartzeko, hogeitaz (eta) urte honetan elkarrekin egotea. Neurtezina da taldean aritzeak zenbat eman digun gutako bakoitzari, zenbat ikasi dugun. Beteranoenak (multzo handiena) eskola zaharrekoak gara eta bertatik bertarako komunikazioan ohituak. Sekulako suertea izan da, gure ikasbiderako, elkarrekin honela gertatzea.

3. Itzulpenaz eta Terminologiaz

3.1. Itzulpen lanaren urratsak gurean

Itzulpen lana egiteko, gaur egun, itzulpen-memoria bat erabiltzen dugu, *Trados* izeneko aplikazio informatikoa. Sekulako laguntza ematen digu baliabide horrek, baina, aldi berean, itzultzailea eta zuzentzailea are kontu handiagoz lan egitera behartzen du, memorian gordetzen dena, geroko erabilgarri geldituko dena, egokia eta, une bakoitzeko erabakien arabera, zuena dela egiaztatu behar baita.

Beraz, itzultzaileak itzulgaia hartu, aplikazio horren bidez itzuli eta zuzentzaileari ematen dio. Zuzentzaileak bere oharrak egiten ditu eta, horiek kontuan hartuta, itzultzaileak azken ukituak egiten dizkio testuari, argitaratzeko edo dagokionari bidaltzeko prest uzteko.

Zuzentzailearen lana funtsezkoa da, itzulpenaren egokitasun orokorrak gainera, hizkuntza arauak, toponimia kontuak, lantaldean hartu ditugun erabakiak eta gainerako guztiak errespetatu eta aplikatzen ote diren begiratzeko duelako.

3.2. Itzulgaia eta itzultzailea

Testu administratiboak izaten ditugu langai. Ordea, horien artean, espezializazioaren ikuspegitik, ez dira denak maila berekoak izaten, hizkera arruntetik hurbil daudenetatik hasi eta espezialitateetako *teknolektoetara* bitarte.

Konparazio baterako, udalek ematen dituzten ordenantza batzuk... animaliak etxean edukitzeari buruzkoak edo hilerriko tasak arautzen dituztenak, adibidez, arrunt samarren zakuan sartuko genituzke; udal horietxen hirigintza planak, berriz, edo Nafarroako Gobernuak emandako zenbait foru dekretu, ekonomia arlokoak, adibidez, espezializazio maila handi samarrekoak dira.

Nolanahi dela ere, egia da terminologia espezifikoa behar duten testu espezializatuak izaten direla franko, jatorrizko hizkuntzan arloan arloko adituek sortuak: Zuzenbidea, Ekonomia, Hirigintza, Medikuntza, Biologia, Arteak... Eta lehenbiziko buruhaustea hor sortzen da, testu espezializatuari aurre egin behar izaten diolako, kasu gehienetan, espezializatu gabeko itzultzaileak, gai horretaz sobera ez dakienak.

Gure artean denetik dago (Biologia, Medikuntza, Historia, Filologia, Kazetaritza, Kimika... ikasketak eginak), eta horri esker nolabait moldatzen gara itzulgaiaren mami osoa geureganatzeko. Baina Administrazioan, Nafarroakoan behinik behin, hagitz gaizki antolatuak daude gauza batzuk, eta hau da horietako bat, itzultzaileok apenas dugulako harremanik testuen sortzaileekin. Eta itzultzaileak, ahal izanez gero, testuaren egilearengandik hurbil egon beharko luke, edo, bertzetik ez bada, harengana iristeko modu garbiren bat izan beharko luke.

Administrazioari inporta bazaio euskarazko testuaren egokitasuna, eta badakigu Administrazioarentzat zein inportantea den letra idatzia, lehenbiziko urrats hori hobeki antolatu beharko luke: itzultzaileak norbait behar luke eskura, zalantza guztiak argitzeko. Eta hori ez da normalean hala gertatzen. Nahikoa litzateke dokumentu bakoitzean ohartto bat jartzea: *honi buruzko zalantza eta galderak halako jaunari edo emakumeari galdetu...*

3.3. Euskarazko terminologia

Horiek horrela, nolabait ere itzultzen hasi eta ordainak aurkitu behar izaten ditugu, euskaratik, jatorrizko hizkuntzan termino zehatzez ongi hornitua heldu den testuarentzat. Euskaraz ere adiera zehatzeko termino ego-kiak behar.

Itzulpen Atalean ez gara terminologia-sortzaileak, salbuespen kasuren batean kenduta (oker ez banaiz, *foruzain* izena eta ingurukoak –*Foruzaingoa* eta abar– gurean sortuak dira; eta, bidenabar erranen dut, oraindik ere Euskaltzaindiaren «onespenaren» zain daude, ez baitira Hiztegi Batuan sartu, ezta bigarren itzulian ere).

Gu terminologia-erabiltzaileak gara, eta, praktika horretan, termino finkorik ez dagoenean, terminologia-hautatzaile. Gure egoera ez da bertze edozein «itzultegitan» bide dagoenetik oso diferentea, eta, denboraren joanean, garai bakoitzean eskura izan ditugun baliabideen arabera erantzun diogu eginkizun honi. Arlo honetan egoera izugarri aldatu baita, orain dela hogeita bi urte hasi ginenekoarekin alderatzen badugu.

Aldatu dira baliabide materialak, zeren denbora hartan erabiltzen genituen hiztegiak eta gainerako glosario eta informazio iturri guztiak paperean baikenituen, ez bertzelako inolako euskarritan. Ordenagailua asmakizun berria zen, baina Internet eta posta elektronikorik gabe hasieran. Aitzinamendu horiek geroago etorri ziren, eta urratsez urrats joan ziren garatzen (eta gu haietara egokitzen) gaur egun ditugunetara ailegatu arte. Etenik gabeko «iraultza», oraindik ere amaitu gabe bide dagoena.

Eta baliabide materialen bilakaeraren arrimuan, euskarazko terminologiaren panorama ere dezente aldatu da. Ez du lehenak nahitaez bigarrena ekarri, baina ukazina da baliabide informatikoen eragina, bereziki, urte hauetan itzultzaileok eta terminologoek eginiko bidean.

Lehenbiziko urte haietan, gehienbat *UZEI*ren hiztegi espezializatuak erabiltzen genituen, eta, haiekin batera, *Elhuyarenak* eta garai hartan eskura genituen orokor guztiak ere bai. Beharrik haiei guztiei, baina, halere, denak eskas!

Interneten etorrerarekin, *Euskalterm* eskura izatea hagitz garrantzitsua izan zen. Gainera, orduko Zuzendaritza Nagusiak hitzarmena sinatu zuen UZEIrekin, datu base terminologiko hori Nafarroako Gobernuaren barreneko sarean txertatzeko (eta aholkularitza zerbitzuetarako), eta zinez aurre-rapauso nabarmena izan zen gure eguneroko zereginei begira. Guk ez eze Gobernuaren Administrazioaren zerbitzuko gainerako langile guztiek ere ikus eta balia zezaketen aplikazioa.

Haren ondotik etorri zen hiztegi eta glosategi guztien sareratze orokorra; Euskaltzaindiaren ondare guztiarena; posta elektronikoaren bidezko komunikazioa erabat hedatu eta normalizatzea. Bai eta itzultzaileen *Itzulist* foroa ere, *Eiziek* prestatu zuena; *2tzul*; *Eimaren* lan monografikoak...

Horiekin batera, nire iritziz izugarri garrantzitsua izan da EAEn Terminologia Batzordea sortzea eta Euskalterm, orain, *Terminologia Banku Publikoa* izatea. Iruditzen zait gertaera hori mugarri azpimarragarria izanen dugula euskarazko terminologia-lanaren historian. Uste dut sekulako jauzia emanen dugula (aitziner, jakina, bromarik gabe), falta genuen erreferente onartua bilakatzen bada eta erritmo egokian lan egiten bada.

3.4. Terminologia arazoak eta gure jokabidea

Beraz, eskura izan ditugun baliabide guztiak erabili ditugu beti, unean unekoak. Hiztegi eta glosategiak, hango eta hemengo corpusak. Betiere, bereizten jakinik hiztegi klasikoak eta modernoak; orokorrak eta espezializatuak... Denen beharra izan dugu, batean aurkitzen ez genuena bertzeak emanen ote zigun begiratzen genuelako, edo, itzulgai berarentzat ordain bat baino gehiago aurkitzen baldin bagenuen, zein forma nagusitzen zen jakitea interesatzen zitzaigulako.

Horrela joan gara osatzen geure datu base propioa, geure hiztegi partikularra. Geure barne koherentzia behar genuelako, bederen!

Ahal izan den neurrian, saiatu gara arlo bereko gainerako itzultzaileekin (EAEko nahiz Nafarroako administrazioetakoekin) batera joaten, ondorio eta erabaki berberetara iristen, baina hori ez da beti posible izan: komu-

nikazioak mugatu gaitu. Hor ere aurrerapauso handia eman dugu. Baliabide informatikoen alorrean, gaur egun aitzakiarik ez dago. Ia dena eskura dugu. Harreman pertsonalen sarean, ordea, oraindik zer hobetu badagoela uste dut.

Atalean ez dugu antolamendu «eredugarria» izan terminologia lantzeko. Gure agintariak maiz ez dute aintzat hartu eginkizun hau, eta itzultzaileok kolpeka funtzionatu dugu, boladaka. Garai batzuetan modu arautu samarrean, diziplina guttienekoari jarraikiz; bertze denboraldi batzuetan, berriz, desantolamendua eta inprobisazioa nagusitu dira gure jardunean.

Nolanahi ere, oro har, ordu asko eta asko eman dugu ikertzen, galdetzen, eztabaidatzen. Makina bat ordu. Gutako bakoitzarentzat zinez ariketa aberasgarria izan da. Baina, bertzalde, aitortu behar dugu etsipengarri samarra ere izan dela ohartzea lan horrek guztiak apenas izanen zuela bertze inon oihartzunik. Irudipena dugu Nafarroa urrun samar ez ote den gelditu euskararen terminologia zehazten joan den guneetatik, ez dela behar edo nahi bezalako zubi lanik egin.

Halere, nafarrok eskerrak eman beharrean gaude, itzulpengintzaren eta hiztegegintzaren nahiz terminologiaren alorretan eta, oro har, euskararen normalizazioarenean, Euskal Autonomia Erkidegotik jaso dugun eta jasotzen ari garen guztiagatik. Hortik xurupatu eta xurupatzen baitugu guk! Ez dakit zer egingen genukeen gai honetan lanean aritu eta ari diren hango erakunde publiko eta pribatuak hor izan ez balira.

3.4.1. *Gure ikerketa partikularrak*

Baliabide guttiago genuen garaian bezalaxe, gaur egun ere gure ikerketa xumeak egin behar izaten ditugu terminoren bat falta dugunean, edo behin-behinekoz harturiko erabakiren bat norbaitek berriz ere auzitan jartzen duenean.

Normalean (ez beti) ez dugu inor «molestatu» nahi izaten, eta, posta elektronikoaren bidez edo telefonoz bertze erabiltzailereren bati zuzenean galdetu beharrean, Interneten murgiltzen gara, han zer aurkituko.

Gauza jakina da, ordea, bilaketa horren emaitza bilatzailearen abildadearen esku dagoela, neurri batean. Zaila da Internetek eman dezakeen guztia-
ren berri izatea. Denok kontrolatzen ditugu web gune batzuk, baina noizna-
hi deskubritzen ditugu lehen ezagutzen ez genituenak.

Bilatzen hasi eta begiratzen ditugu *Hiztegi Batua* eta *Orotariko Euskal Hiztegia*; *Euskalterm*; hiztegi orokorrak (*Zehazki*, *Elhuyar*, 3.000 hiztegia...); hiztegi entziklopedikoak (*Elhuyar*, *Lur*...); EIZIEren *Itzul* foroan inoiz eztabaidatu ote den; bertze aldizkari ofizialen testuak (Aldundienak, Parlamentuenak, Eusko Jaurlaritzarena...); erakunde publiko eta pribatuek sartuak dituzten glosategiak edo bertzelakoak (Bizkaiko Foru Aldundia, ETB, Jaurlaritzako Justizia Departamentua, Elhuyarren corpusak, ...); *Ereduzko Prosa*...

Arrunt interesgarriak iruditzen zaizkit, niri behinik behin, irakaskuntza espezializatueta materialak, unibertsitateetakoak bereziki. Egiatzko erabilitzaileenak direlako, espezialista euskaldunenak. Pentsatzen dut nahitaez egon behar dutela nonbait, baina, salbuespen batzuk kenduta, kasu gehienetan ez naiz halakoetara ailegaten, txiripaz ez bada.

Leioako Biologia Fakultateak aurten 30 urte ditu euskaraz irakasten hasirik. Hor nahitaez terminologia nahiko finkatua eduki behar dute; hala ere, badirudi ez dela dena hiztegietara ailegatu. Nonbait behar du! Donostiako Arkitektura Fakultatekoak hiztegia egiten ari dira eta dagoeneko behin-behineko bertsioa ikus daiteke. Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak ere badu bere webgunea (eta hiztegia egiteko asmoa), baina bertze batzuen falta sumatzen dut: non daude Ingeniaritzakoak, Arte Ederretakoak, Historiakoak...?

Nolanahi dela ere, bilaketaren amaieran, hondarreko, proposamen bat edo batzuk aukeratzera iristen gara. Behin horiek eskura ditugula, batzuetan, berriz ere Interneteko corpus osoan begiratzen dugu, hautagaien maiztasunak alderatzeko.

Tarteka-tarteka «onddo beltz» bat edo bertze aurkitzen dugu («gorringorik» ia inoiz ez), baldintza guztiak betetzen dituen: adiera, hizkuntz araua eta, beharbada inportanteena, adostasun-maila handia erabiltzaileen artean (eta gu «enteratu» gabe!)

Normalagoa izaten da, ordea, bilaketa horren amaieran atsekabetuxeak gelditzea aurkitu dugunarekin. Ez dugulako «jateko» deus fidagarririk aurkitu (saskia hutsik), edo, bertzerik gabe, dispertsio handiarekin topo egiten dugulako (aurkitzen dugunak ez du gure gosea aseko).

Nolanahi ere, horrekin guziarekin, kasuan kasuko hitzari buruz ahalik eta informaziorik gehien bildu ondotik, proposamen bat prestatzen dugu. Aipatuko dugu zer aukera dugun, eta bakoitzaren aldeko eta aurkako argudioak emanen ditugu. Gero, bileran elkaturik, erabaki bat hartuko dugu. Nahitaez ordain bat behar dugulako, ezin garelako esperoan egon auzia argitzen den arte.

3.5. Ordezko protokoloa behar

Terminologia Batzordeak aurreikusi bezala lan egiten badu, euskarazko terminologiagintzaren ikuspegia erabat argituko da, dudarik gabe. «Ezer ez da berdin» izanen. Nik, behinik behin, hala izatea espero dut. Uste dut, zinez, Euskalterm berriak aurrerapen handia ekarriko digula, eta zain nago agindutako fitxak (argibide gehiagorekin, ponderazio markekin...) noiz agertuko.

Ordea, Batzordeak denbora puska bat beharko du oraindik terminologia bankua osatzeko eta, hori gertatzen den bitartean, iruditzen zait erabil-tzaileok ordezko protokoloen bat beharko genukeela, aitzineko puntuan deskribatu dudana baino zerttobait hobea.

Hasteko, Administrazioarentzat ari garenok, bederen, harreman motaren bat finkaturik eduki beharko genuke, erakundeek beren artean dituztene-tatik aparte. Problema berberei ez bada, oso antzekoak direnei egin behar izaten diegulako aurre. Oraindik erabaki gabeko kasuetan, behin-behine-koak adosten saiatu beharko genuke.

Egia da badugula elkarren berri eta, batzuetan, gutxienez, elkarrengana jotzen dugula itzulgai jakin batzuen ordainetan akort izateko. Adibidez, hauteskundeetarako paper klase guztiak itzuli behar direnean (Nola itzuli «credencial de interventor»? Nik dakidala, oraindik finkatu gabe ditugu

«credencial» eta «interventor»). Erokeria litzateke Nafarroan modu batean ematea eta EAEn bertze modu batean (eta Iparraldean?). Horregatik, azkeneko bozketaldietan, behinik behin, lortu dugu ahal zen gehiena batera ematea halakoetan erabiltzen diren testuak.

Adibide hori bezalako ehunka aipa genitzake. Eta errealtatean bakoitzak berea isurtzen du, eta gure ordain guztiekin «itsaso urdinik» egiten ez duten putxu xikin kontaezinen anabasa sortzeko arriskua dugu.

Horregatik, orain ditugun baliabideak bertzela baliatu edo bertze zerbait asmatu beharko genuke, eta horren bitartez lortu nolabait handitzea finkatu gabe dauden terminoei buruz hartzen ditugun erabakien segurtasuna. Ez daitezela hain behin-behinekoak izan. Ez dut uste ezinezkoa denik, baina ez dakit ohartu beharko genukeenok konturatzen ote garen, ez eta behar adinako garrantzia ematen ote diogun ere.

3.6. Nafarroa eta Terminologia Batzordea

Eusko Jaurlaritzako Terminologia Batzordean ez dago gaur egun gure erkidegoko kiderik, eta uste dut ongi legokeela nafarren bat izatea. Ez bakarrik euskalki eta geografia guztiak ordezkatuak egoteko. Eta hori ere ez da kalte. Kontua da garbi dudala erabakiak hagitzez aiseago ulertu eta aplikatzen direla norbera inplikaturik (ordezkatua) sentitzen bada.

Horrekin batera, bidezkoa iruditzen zait erratea gustatuko litzaidakeela nafar Administrazioak ere babestea Batzordea, hitzarmen bidez edo, garai batean Euskalterm Gobernuaren intranetean txertatzeko UZEIrekin egin zuen bezala. Ez, ordea, gure Administrazioari dirua nolanahi gastarazi nahi diodalako. Baina uste dut, alde batetik, justua litzatekeela dagokion partez arduratzea, eta, bertzetik, gure agintariek aintzat hartu beharko luketela euskararen garapena arlo honetan, eta ohartu eginkizun hau ere beharrezkoa dela.

Barka atrebentzia, baina hor dago proposamena, dagokionak, nahi izanez gero, kontuan har dezan.

3.7. Gure itzulpenen erabiltzaileak

Terminologiaren arazo zehatza alde batera utzi eta, begiak goiti eginez, urrunagotik begiratu nahiko nieke gure itzulpen lanei. Uste dut gero eta hobeki ari garela, eta denboraren poderioz -ardo batzuen gisara- itzultzaile hobeak garela gaur egun. Gutako bakoitzak bere aurrerabidea izan du, eta lankideekin nahiz gainerako itzultzaileekin esperientzia partekatuz, anitz ikasi dugu.

Iruditzen zait baldintza egokietan lan eginez gero, kalitate oneko itzulpenak egiteko gai garela, eta egin egiten ditugula. Ez nuke erranen zer hobetu ez dugunik, baina, horretarako, funtsezkoa den zerbait falta dugu: beharrezkoa da gure testuak ahalik eta gehien erabiltzea; eta gero, erabiltzaileen iritzia jakin.

Onartzen badidazue sukaldarien paperean jartzea, iruditzen zait hagitxer jakin gustagarriak prestatzen ditugula; batez ere, edozeinek kontsumi ditzakeenak; inori kalte egiten ez diotenak. Halere, jakina, hori nire irudipena da, eta aitortu beharko dut betiere duda koxkor bat gelditzen zaidala gure produktuen ondasun horretaz. Zergatik? Jaleak ez zaizkigulako hurbiltzen euren iritzia ematera. Ez hori bakarrik, ez dakigu atera dizkiegunak jan dituzten edo zakarrontzira ez ote dituzten bota.

Txantxa modura errana dago, baina ez da broma. Hori inportantea da guretzat. Horrek lagunduko liguke produktua hobetzen, eta, dudarik gabe, are gehiago motibatuko gintuzke.

Nafarroako Administrazio zentralerako eta udaletako bulegari, teknikari, idazkariak... Osasunbideko mediku eta erizainak... Ogasunerako inprimakiei buruzko argibideak ematen dituzten teknikariak... Ikastetxeetako mota guztietako langileak... Sindikalistak... Kargudun politikoak... Euskarazko komunikabideetako kazetariak... Eta herritar arruntak ere bai. Horiek denek, zer iritzi dute gure testuez?

Aldizkari Ofizialean haiei eragiten dien iragarkiren bat ateratzen denean; edo argitaratu den zerbait bertze norbaiti ezagutarazi nahi diotenean; edo euren bulegora edo etxera Administrazioaren argibide-orri bat iristen zaie-

nean, nahiz eta euskaraz jakin eta alfabetatuak egon, nora jotzen dute/dugu? Gaztelaniazko testura? Zergatik? Testuak ez du funtzionatzen edo ohitura falta da?

Bertze ikuspegi batetik, antzeko kezka agertu du berriki iritzi-artikulu batean Lasarte-Oriako Udaleko euskara teknikariak: *Euskara EAEn ofiziala dela 30 urte baino gehiago bete direnean, zergatik ateratzen dute gidabaimena gaztelaniaz Gipuzkoako gazte guztiek?*

Uste dut badela garaia kontu hauek argitzen joateko. Eta jendea ez baizaigu etortzen iradokizunak, kexak eta oro har iritzia ematera, guk joan beharko dugula, nolabait ere, jendearengana, erantzun eske.

Lehenik, administrazioetan (Gobernuan eta udaletan, eta Estatuaren mendekoetan) euskaraz aritzen direnekin harreman estuagoa behar dugu. Elkarrekin ari, testu berberak erabiltzen ditugulako. Gurean sortzen diren testuek hor frogatu behar dute balio dutela (eta ez naiz bakarrik terminologiaz ari). Horretarako, nahitaezkoa da elkarren berri izatea, eta kritika saio etengabea.

Bigarrenik, gure testuak zabal ditzaketenekin solas egin beharko genuke (komunikabideak, euskaltegiak...).

Eta gero, hortik aitzinerako guztiak.

4. Ondorio eta proposamenak

Jardunaldi honetan eskaini zaidan aukeraren bitartez, saiatu naiz esplikatzen Itzulpen Atala zer den eta zertan-nola aritzen garen bertako itzultzaileok. Bertzalde, gaiak berak ekarri du, halabeharrez, gogoeta egitea gure jardunaz, egin beharko genukeenaz, egin genezakeenaz... Hona hemen errandako guztia laburbiltzeko gogoratzen zaizkidan ondorio batzuk, eta haiei loturiko zenbait proposamen:

1. Itzulpen Ataleko itzultzaileok hogeita bi urte ditugu Nafarroako Gobernuaren mendeko Administrazioarentzat itzultzen hasirik. Lehengotik hasia zen euskara Administrazioaren oihan usuan habia egiten.

Oraindik mesfidatirik gelditzen bada, uxa ditzala berehala zalantza guztiak. Testuak sendoak dira eta arazorik gabe jasaten dute itzulgaiaren pisua.

2. Protokolo edo antolamenduren bat behar dugu terminologia arloan, Administrazioarentzat ari garenon artean, bederen, terminologia arras finkatzen den bitartean, behin-behinekoz hartzen ditugun erabakiak ahalik eta sendoenak izan daitezten.
3. Erran bezala, berme osoko testuak sortzeko gai gara. Baina horretarako, behar diren baldintzak lortu behar ditugu. Elebitasuna aintzat hartu behar dute testugintzan zerikusia duten estamentu guztiek.
4. Beharrezkoa da testu hauek erabiltzea Administrazioan-Administrazioarekin-Administrazioarentzat euskaraz lan egiten duten pertsona guztiek. Funtsezkoa zaigu haien iritziaren berri izatea. Elkarrekiko harremana nolabait egituratu behar dugu.
5. Hitzun arruntak ere ohitu beharko luke administrazioa hizkerarekin, edozein herritarrek ohikoak dituen beharretarako (inprimakiak bete, lan deialdiak kontsultatu, kartelak prestatu...). Ikastetxeek (eskola-ikastolek, institutuak, unibertsitateak, administrazioetako langileen ikastegieki, euskaltegieki...) aintzat hartu beharko lukete eginkizun hau, eta komunikabideek ere zubi lana egiten lagundu dezakete.
6. Nafarroako Gobernuak orain arte baino gehiago esku hartu beharko luke euskarazko terminologiagintzari loturiko arloetan: hizkera administratibo-juridikoaren sorreraren eta ezarpenaren gaineko ikerketetan; euskara Administrazioan normalizatzeko eman beharreko urratsetan. Gaurko saioa urrats bat da, baina jarraipena behar luke, hau bezalako ekitaldi gehiagoren bidez eta auzo erkidegoan dagoeneko martxan diren edo gerora sortuko diren ekimenetan parte hartuz.

Nafarroako Parlamentuko itzultzaile- interpreteak: zer-nolako harremana dugu terminologiarekin?

IRIZAR APAOLAZA, Ander
Nafarroako Parlamentuko itzultzaile-interpretea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Nafarroako Parlamentuko itzultzaile-interpreteek beren eguneroko lanean terminologiarekin duten harremana aztertzen da artikuluan. Terminologiaren erabiltzaile eta sortzaile badira ere, planifikatu gabe dituzte, ordea, terminologia zabaltzeko eta errotzeko bideak. Bide horiek planifikatzearen garrantzia agerian gelditzen da kontuan hartzen badugu balizko eginbide planifikatu horien hartzaile nagusiak parlamentariak eta kazetariak izango liratekeela; izan ere, horien hizkerak eragin aski handia du hizkuntzaren erabiltzaile arruntengan.

Hitz-gakoak: Nafarroako Parlamentua, itzultzaile-interpreteak, terminologia, terminologia-plangintza, terminologiaren zabalkundea, terminologiaren errotzea.

Se analiza la relación que en su labor diaria tienen los traductores-intérpretes del Parlamento de Navarra con la terminología. A pesar de ser usuarios y creadores de terminología, no tienen sin embargo planificados los cauces para su difusión e implantación. La importancia de planificar dichos cauces queda de manifiesto si se tiene en cuenta que las acciones planificadas de difusión e implantación, en caso de realizarse, tendrían como principales destinatarios a los parlamentarios y los periodistas, cuyos usos lingüísticos tienen una repercusión notable en los usuarios comunes de la lengua.

Palabras clave: Parlamento de Navarra, traductores-intérpretes, terminología, planificación terminológica, difusión terminológica, implantación terminológica.

Cet article analyse les relations que les traducteurs-interprètes au Parlement de Navarre entretiennent avec la terminologie dans leur travail quotidien. Bien qu'ils soient à la fois usagers et créateurs de terminologie, ils n'ont cependant pas planifié les procédés nécessaires à sa diffusion et à son implantation. Il est très important que soient planifiées ces procédés si l'on tient compte du fait que les actions qui seraient menées pour sa diffusion et son implantation toucheraient surtout les parlementaires et les journalistes dont le langage a une grande influence sur les usagers habituels de la langue.

Mots-clés : Parlement de Navarre, traducteurs-interprètes, terminologie, planification terminologique, diffusion terminologique, implantation terminologique.

This paper examines the relationship the translators-interpreters of the Parliament of Navarre have with terminology in their everyday work. Even though they are users and creators of terminology, the channels for spreading and establishing it have not been planned. The importance of planning these channels becomes apparent if we bear in mind that the main target users of these eventual channels would be the members of parliament and journalists; in fact, their speech exerts a considerable influence on the ordinary users of the language.

Keywords: Parliament of Navarre, translators-interpreters, terminology, terminology planning, spreading of terminology, establishing of terminology.

1. Sarrera

Hasteko eta behin, nire irudipen bat ekarri nahi nuke hona, eta ohar bat egin ere bai hurrengo. Irudipena da Administrazioan ari garen itzultzaileok, eguneroko lanaren zurrunbiloan harrapatu-edo, sarri askotan ez dugula behar den tarterik harrapatzen hats pixka bat hartu, hausnartu eta geure ahaleginak egoki bideratzeko. Buru-belarri aritze horrek badu, gainera, beste ondorio gaizto bat, eta da ez duela biderik ematen harremanik izateko ingurukoekin: hurbil-hurbilekoekin zein haratxeagokoekin, gure lanbide berekoekin nahiz gurearekin zerikusia duten lanetan ari direnekin. Buru-belarri aritze horrek ez ote dakarren, batzuetan, behar adina bururekin ez, eta belarri gutxitxorekin ere aritzea... Gaitzok ez dira seguruenik han-hemenago administrazioetan ari garen itzultzaileonak bakarrik, baina, gureak ere badirenez, eman diezaiegun ongietorria honelako jardunaldiei eta topaketei; batetik, hausnartzeraz behartzen gaituztelako, eta, bestetik, euskararen inguruan ari garenon arteko ezaupidea indartzen dutenez, lankidetzarako bideak prestatzen ere lagun diezaguketelako. Bestalde, eta irudipenaren ondotik noan orain oharkizunarekin: hona dakardan nire hausnarketa hau ez da terminologian aditua den norbaitena, baizik eta administrazio jakin batean lanean ari den itzultzaile eta interprete soil batena; hori du berezitik, eta horixe du, halaber, mugetako bat.

Aldez aurretik adierazi beharrekoak adierazita, azal dezadan orain nola ikusten dudan Nafarroako Parlamentuko itzultzaile-interpreteok terminologiarekin gaur egun dugun harremana.


2. Nafarroako Parlamentuko itzultzaile-interpreteen gaineko zenbait datu eta argibide (2010)

Kokatzen laguntzeko, eta, ikusiko dugunez, nolabaiteko garrantzia ere baduelako, zenbait datu eta argibide emango ditut hasteko: gaur egun, 2010ean, zenbat garen, zein dugun egoera organikoa eta zertan gauzatzen den gure itzulpen-lana.


- Nafarroako Parlamentuan bost itzultzaile-interprete gara gaur egun. Datu horri neurria hartzen laguntzeko, hona beste zenbaki batzuk: Na-

farroako Parlamentuak guztira 56 funtzionario ditu; behin-behineko langileak, berriz, 16 dira (parlamentu-taldeen laguntzaileak eta beste-lako langileak); eta parlamentariak, azkenik, 50 dira, zeinetatik, VII. legegintzaldi honetan (2007-2011), 9 baitira parlamentu-saioren baitan euskara erabili dutenak, hein handiagoan edo txikiagoan, eta horietatik 5, berriz, idazkiren bat euskaraz aurkeztu dutenak.

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan ari diren langileak (2010)



Foru parlamentariak, hizkuntza-jardueraren arabera (VII. legegintzaldia: 2007-2011)



– Itzultzaile-interpreteok Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuaren barruan gaude; zerbitzu horren buru egiten duen pertsona da gure nagusia, eta ez da euskalduna. Gainerako lau zerbitzuak honako hauek dira: Zerbitzu Juridikoak; Zerbitzu Orokorrak; Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzua; eta Kontu-hartzaitza eta Ekonomia Gaierako Zerbitzua.

– Zertan gauzatzen da gure itzulpen-lana?:

- Itzulpen-lana (idatzia):

- Funtsean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala euskaratzen dugu. Parlamentuko aldizkaria, Euskarari buruzko Legearen 7. artikulua hala aginduta, gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzen da, aldibereko ale bereizietan. Parlamentuko aldizkarian, legebiltzar baten eginkizunekin zerikusia duena argitaratzen da. Esate baterako, legegintzarekin zerikusia duena: lege proposamenak, lege proiektuak, ekimen horiei proposaturiko zuzenketak, legearen behin betiko testua, eta abar. Edota Gobernu kontrolatzeko eginkizunarekin zerikusia duten parlamentu-ekimenak: parlamentariak nahiz parlamentu-taldeak aurkeztutako mozioak eta jabeldurak, edo parlamentariak Gobernuari eginiko galderak. Gobernuak parlamentarien galderei emaniko erantzun idatziak ere itzuli eta argitaratzen ditugu, eta Comptos Ganberaren txostenak eta Nafarroako Ikus-entzunezko Kontseiluarenak ere bai; izan ere, bi horiek, Erregelamenduak ezartzen duenez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharrekoak dira. Nafarroako Arartekoaren txostenak ere argitaratzen dira gure aldizkari ofizialean, baina horiek itzulita iristen zaizkigu orain.

- Gaztelaniara itzultzen ditugu, bestalde, euskaraz aurkeztu diren parlamentu-ekimenak eta Parlamentuko Erregistroan euskaraz aurkeztu diren idazkiak. Horrelakoak oso gutxi izaten dira.

- Eta, azkenik, gaztelaniara itzultzen ditugu, Bilkura Egunkarirako hain zuzen, parlamentariak euskaraz eginiko hitzaldien transkripzioak.

- Interpretazio-lana (aldiberekoa):

- Gaztelaniara itzultzen dugu parlamentarien euskarazko jarduna, hala Osoko Bilkuretako nola batzordeetako.

- Halaber, batzordeen *lan bilera* esaten diegunetara etortzen den kanpoko jendearen euskarazko jarduna ere itzultzen dugu.

3. Terminologia eta gu

Aipatu berri dudan jardunbide horretan guztian dugu harremana, modu batean edo bestean, terminologiarekin. Eta, jakina, ez bakarrik arlo juridiko-administratiboko terminologiarekin –nahiz eta terminologia hori zedarritzea erraza ere ez den beti–, baizik eta terminologiarekin oro har. Hor sartzen ditut, baita ere, erakundeen organigrametako izendapen ofizialak adibidez, hertsiki terminoak ez badira ere, lekua badute-eta datu-base terminologikoetan. Baina nolakoa da harreman hori? Bada, harreman gazi-goza, esango nuke. Eta, seguruenik, gauza bera gertatuko zaio, arrazoi bat dela edo bestea dela, euskara langai duen askori.

Gure kasu zehatzera etorrira, esan behar dut, begi-bistakoa bada ere, itzultzaile eta interprete garen aldetik, terminologiaren erabiltzaileak garela, *kontsumitzaileak* modu grafikoagoan esatearren. Esan genezake, azken urteotako aurrerabide teknologikoei esker, gaur egun harreman gozo antzekoa dugula horri dagokionez. Horrela, Internetez kontsulta ditzakegu bai Euskalterm, bai beste hiztegi espezializatu zein arrunt mordoxkada bat ere; bestalde, geuk sortutako testuetan bilatzeko moduak ere asko erraztu zaizkigu itzulpen-tresnek eskaintzen dizkiguten aukerekin; gure kasuan, Tradosen *Concordance* aukerarekin, eta, hein txikiagoan –ondo bidean alderantziz beharko balu ere–, Multitermekin. Hala ere, irudipena daukat, berriro diot, lanean ari garelarik erraz antzean-edo ekartzen ditugula unean-unean sukaldean beharrezkoak gertatzen zaizkigun gaiak; besterik da kasuan-kasuan ekarritako material horiek erabat asetzen ote dituzten gure beharrak, hau da, beti ordain bakarra aurkitzen dugun, baliatzen dugun terminoa egokia eta biribila den, eta abar.

Arlo asko ukitzen dituzten testuak itzultzen ditugunez –era askotako testuak euskaratzea egokitzen baitzaigu, esan dudan bezala–, batzuetan, nahi-taez, terminologia-sortzaile ere bagara¹. Terminoen sorbideari dagokionez,

¹ Batzuetan, parlamentu-terminoak izan daitezke sortzen ditugunak. Konparazio baterako, Nafarroako Parlamentuan, 2007. urtean, *foru parlamentarien elkartea* izeneko figura (*agrupación de parlamentarios forales*) sortu zuten. Labur esanda, parlamentu-taldera izatera iristeko adina kide ez duen parlamentari multzoa da, eta euskararen eremuko legebiltzarretan, oraingoz, ez da halakorik inoiz izan –nik dakidala–. Beste batzuetan –gehienetan–, beste arlo batzuetako terminoak izaten dira sortzen ditugunak. Lege-testuetan, esate baterako, nahiko ohikoa da legegileak arlo jakin bateko

harremana ere gozo-antzekoa dela esango nuke, nahiz eta sorbidearen ondortik etorri beharrekoari erreparatzen badiogu, gelditzen zaigun aho zaporea ez den hain gozoa. Hala, esate baterako, sortzen dugun terminologia ez dugu modu sistematikoan biltzen; horrela jokatzeko arrazoiak bat baino gehiago dira, baina *de facto* hala da. Itzulpen-lanerako, hutsune hori ez zaigu itogarria gertatzen, terminologia-beharrak, lehen esan bezala, erraz antzean-edo asetzen ditugulako (tira, gu aseta gelditzen gara, hartzaileak –halakorik baldin badugu– ez dakit); horrek esplika dezake, hein batean bederen –arrazoi gehiago ere badira–, zergatik ez garen gar biziagoz jartzen terminologia biltzeko lan horietara. Edozein modutan, itzulpen-lanean terminoez behartzen garenean ere, alegia terminologia *kontsumitzerakoan* –aurreko irudiarekin jarraitzearren–, ohartzen gara zenbait gauza modu sistematikoan gordeak izango bagenitu, batzuetan lana erraztuko litzaigukeela, eta txikiagoa genukeela, esate baterako, koherentzia-akatsak izateko arriskua ere. Baina, hori baino garrantzitsuagoa da, agian, bilketa-lan horren emaitza baliagarria gerta leki-gukeela beste eginkizun batzuetarako ere, geroxeago azalduko dudanez.

Egindakoaren gaineko bilketa-lan sistematikoari gagozkiola, ez nuke aipatu gabe utzi nahi geuk egindakoak, ordea, edo geuretik pasatuak, bai erabiltzen direla, edo kontuan hartzen direla, kanpotik eginiko lan sistematikoagoetarako. Hor dago, konparazio baterako, Andres Urrutiak eta Esther Urrutiak aurkeztu berri diguten Nafarroako lege-testuen lexiko juridiko elebidunaren hustuketa, edota UZEIk prestatze bidean duen *Sektore publikoko kontratuen hiztegia*, zeinetan Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko Foru Legea ere kontuan hartzen ari baitira. Legeei buruz, bai zehaztu nahi nuke, edonola ere, testu horiek abiapuntu, askotan, Gobernuak prestatutako lege proiektuak iza-

adigaiak zehaztea. Adibidez, 8/2011 Foru Legean, hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzkoan (lege testu horrek foru lege proposamen bat izan zuen oinarri; hau da, foru lege proiektuak ez bezala, Nafarroako Parlamentuan itzuli zen), zehaztuta ageri da nola ulertuko diren, lege horren ondorioetarako, honakoak: *baimen informatua* (*consentimiento informado*), *zainketa aringarriak* (*cuidados paliativos*) *aurretiazko borondatean adierazpen-agiria* (*documento de voluntades anticipadas*), *biziari eusteko neurria* (*medida de soporte vital*), *obstinación terapéutica* (*setatze terapeutikoa*), *sintoma immunea* (*sintoma refractario*), *sedazio aringarria* (*sedación paliativa*) edo *bizi-testamentua* (*testamento vital*). Terminologia klasikoaren ikuspegi zurruna gainditzen badugu, zerrendatu ditugun horiek terminotzat hartzekoak dira. Horri gagozkiola, Antton Elosegik (Elosegik, 2002) jakingarri ugari biltzen ditu terminologiaren gaineko teoria orokorrari egindako kritikei buruz, terminologiaren arteko diferentzietan buruz eta terminoen forma linguistikoari buruz.

ten dituztela, eta proiektuok Gobernuko itzultzaileek euskaratuta iristen zaizkigula. Beraz, Nafarroako Parlamentutik ateratzen diren legeetako asko, funtsean, Gobernuko gure lankideek mamituak dira, nahiz eta testuok gurean ere aldaketak izaten dituzten, dela legegileek hala erabakita –gaztelaniazko testuan erabakita, jakina–, dela geuk, hobe beharrez, hala erabakita.

Terminologiaz eta terminologia-lanaz hitz egiten dugunean, itzultzaile apaloi, hasieran behintzat, horrelako hustuketak eta terminologiako lan sistematikoak datozkigu gogora. Bada gauza bat, ordea, oso kontuan izan beharrekoa; hain zuzen ere, terminologia-lana ez dela amaitzen terminologia-produktuak sortzearekin, askotan uste ohi dugunez. Ez dugu aski terminoen glosarioak eta zerrenda elebidunak izatea, are gutxiago guk soilik erabiltzeko badira, baldin eta ez badugu ezer egiten termino horiek behar bezala zabaltzeko (*diffusion*) eta erabileran errotzeko (*implantation*). Egia hori, begi-bistakoa dirudiena, eta atzo goizekoa ere ez dena², ez dakit behar bezala geureganatua eta barneratua dugun. Ideia hori hobeki azaltzeko asmoz, aipamen teoriko labur bat egingen dut lehenbizi, eta, gero, aurrekoa oinarri, Parlamentuko egoera aztertuko dut, argigarri gerta daitekeelakoan beste egoera batzuk ere aztertzeko.

4. Teoria pixka bat

Gogoratu behar da hizkuntza baten normalizazioak prozesu planifikatua izan behar duela, eta plangintza terminologikoak zentzua duela soilik hizkuntza-plangintza orokor baten barruan. Horrela, Cabrék (1993, 109), Auger quebecarrak plangintza terminologikoaren ezaugarri diren sei fun-

² «Dans la perspective de l'aménagement linguistique (et aussi du développement terminologique d'une langue) il faut se débarrasser de l'idée reçue qui veut que le produit terminologique (appelons-les dictionnaires, lexiques, vocabulaires) soient seulement des outils servant à la traduction des textes spécialisés, à leur encodage ou à leur rédaction. Conçus spécifiquement pour une clientèle de traducteurs, de rédacteurs spécialisés, ils ont été voués à des rôles essentiellement statiques qu'illustre bien le rangement qu'on en fait sur les tables de travail ou au mieux, sur des étagères parfois. C'est un fait généralement reconnu qu'on ne lit pas les dictionnaires et qu'en conséquence il ne suffit pas de distribuer de lexiques pour amorcer aussitôt une modification des habitudes langagières des individus». Auger (1986, 49)

tzioak oinarri hartuta³, prozesu dinamiko bat proposatzen du, urrats hauek izan beharko lituzkeena:

- Egoera batek dituen behar terminologikoak aztertu.
- Lan-plan bat prestatu, egoerara egokitua.
- Terminologia bera prestatu.
- Terminologia normalizatu, terminologian normalizazioari ematen zaion esanahiarekin, hau da, autoritatea duen norbaitek termino bat proposatzea.
- Aukeratu zer euskarritan eta zer modutan eman behar den terminologia, haren zabalkunderako.
- Terminologia errotzen saiatu erabiltzaileen artean, dinamizazio-ekintza egokien bidez. Adituen ustez, termino bat erabileran errotu dadin gutxi gorabehera hamar urte behar omen dira.
- Terminologiaren erabileraren jarraipena egin.
- Terminologia etengabe eguneratu.

Hasierako lau urratsek corpusarekin dute zerikusia, hizkuntzaren kodifikazioarekin nolabait esatearren, eta azken laurek, aldiz, estatusarekin, hau da, alderdi soziolinguistikoekin.

5. Nafarroako Parlamentuko egoera, aurrekoaren argitan

Behin erreferentzia teoriko horiek emanda, etor gaitezen orain Parlamentuko kasura, eta har dezagun adibide gisa terminologia parlamentarioa. Oso kasu zehatza da, baina bere txikian baliagarria gerta daiteke aztertzeko zer gertatzen den beste kasu batzuetan; hau da, zer gertatzen den beste administrazio edo gune batzuetan, zer gertatzen den beste arlo batzuetako terminologiarekin, eta are, hein batean, zer gertatzen den lexiko orokorrarekin ere –muga zehatzik ezartzerik baldin badago terminologiaren eta lexiko orokorraren artean–.

³ «... nous caractériserons l'aménagement terminologique par six fonctions fondamentales: a) fonction recherche, b) fonction normalisation, c) fonction diffusion, d) fonction implantation, e) fonction évaluation et contrôle et f) fonction mise à jour...» Auger (1986, 48)

Horrenbestez, geurera etorritz, eta, azaldu berri dudan ikuspegi horretatik aztertzen badugu egoera, lehen harreman gozo-antzekoa genuena, orain zapore gazi, eta are mikatz, bihurtzen zaigu. Ikus dezagun. Terminologia parlamentario bat badugu sortua, neurri batean normalizatua esan genezake –lehenago zehaztutako esanahiarekin–, baina hortik aurrera emandako pausoak, egia esateko, urriak izan dira orain artean. Hala, irudipena dugu (zorrotz jokatuta, ebaluatu egin beharko litzateke baina) terminologia horren lehenasunezko erabiltzaile direnek, gure kasuan nagusiki foru parlamentariak eta komunikabideek, sarri samar, ez dutela kontuan hartzen terminologia normalizatu hori. Esan genezake parlamentu-termino mordoxkada bat (horietako batzuk lexiko orokorrekoak ere badirenak) errotu gabe daudela haiengan; batzuetan, gainera, horien orde, forma ez oso egokitzat jotzen direnak dituzte sartuta beren hizkeran⁴. Eta har dezagun kontuan, begi-bistakoa bada ere, euskaldun arruntarengan askoz ere eragin handiagoa duela komunikabide batean entzundakoak –kzetari bati, politikari bati edo beste edozeini– aldizkari ofizial batean argitaratutako edozerk baino. Erreferentziazko bihurtzen diren hitzun horien jokabidea juzgatzerakoan, ordea, kontuan izan beharko genuke, besteak beste, guk zer bitarteko jarri ditugun parlamentu-terminologia hori zabaltzeko eta erroztzeko. Egia esan behar bada, adibidetarako hartua dugun terminologia hori zabaltzeko, bitarteko gutxi, eta erroztzeko, berriz, are gutxiago edo batere ez.

Estatusaren arlo horretan, nire iritziz, gehiago saiatu beharko genuke, nork bere esparruan eta bere eragin-eremuan, eta ahal duen neurrian noski. Eta horretarako bai behar ditugu biltze sistematikoak, zerrendak eta abar, hau da, corpusa; lan horiek beharrezkoak ditugu, hain zuzen, gero, kasuan kasuko bideak erabiliz, eragin ahal izateko bai ezagutzan eta bai erabileran.

⁴ Ohikoa da parlamentariak *bozka* esatea, *boza* edo *boto* esan beharrean, edo *emendakin* erabiltzea *zuzenketa* beharrean; *parlamentari* (iz.) eta *parlamentario* (izond.) nahastea ere nahiko arrunta da. Adibide gisara aipatu ditugunok parlamentu-terminoak izateaz gain, argi samar dago lexiko orokorrekoak ere badirela, eta hain zuzen ere horregatik ditugu horien gaineko argibideak Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan. Hala, euskararen hiztegi arauemailean xehetasun hauek aurki dituzakegu: «boz 2 1 iz. *Ipar.* 'botoa'»; «bozka iz. *Ipar.*: *bozka-eguna*» [*bozkak* beraz, *bozketa* edo *botazio* esan nahi du]; «emendatu, emenda, emendatzen. *da/du* ad. 'gehitu, erantsi' (ez du 'zuzendu' adierazi nahi)»; «parlamentari iz.: *parlamentarien bilera*»; «parlamentario izond.: *talde parlamentario* (hala ere, hobe *parlamentu[ko] talde*».

6. Arau-testuetan ezarritako terminologia eguneratzerakoan agertzen den oztopo berezi bat

Goiago aipatu dudan prozesu dinamiko horren argitan, beste kontu bat ere agertu nahi nuke hemen, bide batez. Ikusi dugunez, prozesu horren azken pauso gisa ageri dena da terminologia etengabe eguneratzea. Horretara, batzuetan, iristen gara; ez terminologiaren erabilera zorrozki jarraitzen eta ebaluatzen dugulako eta horrek bideratzen gaituelako terminoak berraztertzea, baizik eta hartara eramaten gaituztelako hizkuntza-arauen bilakaerek, termino baten hutsunez ohar-tzeak, besteen jokabideek (terminologia parlamentarioaren kasuan, beste legebiltzar batzuetan dituzten jokabideek esaterako), eta abar. Gertatzen dena da, ordea, arlo juridiko-administratiboan, terminoak sarritan arau-testuetan dauzkagula ezarrita, halako moduz non kinka gaizto batean gertatzen baikara behin baino gehiagotan; hain zuzen ere, erabaki behar dugunean kasuko arau horrekin izan koherente, ala men egin, aldiz, araua sortu ondoren hartuak diren hizkuntz erabakiei edota eskarmentuak erakutsi digunari.

Berriro ere Parlamentua adibide hartuz, pentsa dezagun terminologia parlamentario gehiena Erregelamenduan dagoela jasoa, hori izaten baita legebiltzar baten arau nagusia; eguneroko lanean, ahal dela, testu horretan ezarritako terminologiari jarraituko zaio –hala ematen du agintzen duela zentzuak–, eta jokabide zentzuzko hori, horrela, oztopo gertatzen da, neurri handiagoan edo txikiagoan, termino horiek eguneratzeko. Antzeko zerbait gertatzen da, halaber, lege-aldaketa bat izaten denean; zentzuak agintzen du, izan ere, lege zaharrago bat aldatzen duen legean, ahal izanez gero, lege hartan erabilitako terminologia errespetatuko dela, azken batean legean txertatuko baita aldaketa; eta, horrelakoetan ere, zentzuzko jokaera dena nolabaiteko oztopo bihurtzen da terminologiaren eguneraketarako. Hara hemen ere gazitasun pixka bat terminologiarekiko gure harremanean, bai eta kontuan hartu beharreko elementu bat, agian, terminologiaren balizko jarraipen planifikatuan.

7. Amaitzeko

Gure itzulpen-zerbitzuetan, beraz, terminologiaz arduratzean, ez genuke geuregan bakarrik pentsatu behar, beste asko ere gogoan izan beharko genituzke: gure lanaz balia daitezkeen, eta, batzuetan, are baliatu behar luketen beste asko.

Haiengana iristeko bideak landu beharko genituzke, eta haiek guregana iristeko bideak ere bai. Eta horrek gure itzulpen-zerbitzuak, ahal den neurrian, zerbitzu orokorrago bihurtu beharko lituzke nire ustez, zerbitzu linguistikoen moduko zerbait-edo. Jakina, ongi dakit horrek baduela alderdi arantzaturik, baina gure ikuspegia pixka bat zabaltzea beharrezkoa dela iruditzen zait, hizkuntzaren kodifikazioaren arloko ahalegin eta lanak, terminologiaren esparrukoak barne, ahalik eta probetxugarrienak gerta dakizkion ahalik eta jende gehienari.

8. Bibliografia

AUGER, P., 1986, «Francisation et terminologie: l'aménagement terminologique», in Guy Rondeau eta Juan Carlos Sager (argit.), *Termia 84 : terminologie et coopération internationale : la terminologie, outil indispensable au transfert des technologies. Colloque international de terminologie, Luxembourg, 27-29 août 1984*. Quebec : Girsterm, 47-55.

CABRÉ, M.T., 1993, *La terminología. Teoría, metodología, aplicaciones*. Barcelona: Antàrtida-Empúries.

———, 2003, «Terminología y normalización lingüística», in *Especialitate-Hizkerak eta Terminologia: Jardunaldiak*. Leioa : EHUko Argitalpen Zerbitzua, 11-25.

———, 2010, «La implantación de la terminología: conceptos, estrategia, recursos y estudios realizados sobre el francés de Quebec y el catalán», in «Euskararen garapena esparru akademikoetan». *Especialitate Hizkerak eta Terminologia IV*. Leioa : EHUko Argitalpen Zerbitzua, 2-18.

COLOMER I ARTIGAS, R., 1997, «Dimensión social de la normalización terminológica», in *Nazioarteko terminologia biltzarra = Congreso internacional de terminología = Congrès international de terminologie = International congress on terminology*. Donostia – Gasteiz : UZEI – HAEE-IVAP, 295-306.

ELORDUI, A., 2007, «Especialitate-hizkeren garapen lexiko-diskurtsiboa: aldakortasun terminologikoa tratatzeko zenbait irizpide», in *Especialitateko Hizkerak eta Terminologia II*. Euskara estandarra eta especialitate hizkera. Leioa : EHUko Argitalpen Zerbitzua, 81-94.

ELOSEGI, A., 2002, *Zuzenbideko euskal hizkera berezia. Lege-corpus itzuli bateko terminologiaren azterketa linguistikoa eta terminologia*. Bilbao : EHUko Argitalpen Zerbitzua.

ZAPIRAIN, J., 2008, «Terminologia hizkuntza-kudeaketaren baitan», *Senez*, 35 (2008) 103-112.

Euskarazko terminologia-lanaren plangintza

DIAZ DE LEZANA, Araceli

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako
Hizkuntza Plangintzako ordundira

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (1999) terminologia-lanaren plangintza egitea agindu zuen. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak plangintza egin zuen bi ardatz nagusi aintzakotzat hartuta: batetik, Terminologia Banku Publikoa sortu zuen 2001ean eta, bestetik, Terminologia Batzordea eratu zuen 2002an Euskararen Aholku Batzordearen barruan, Batzorde-atal berezi moduan.

Artikulu honetan, plangintza bera eta lan-metodologia eta, plangintza sortu zenetik, Terminologia Batzordeak egindako lanak aurkezten dira.

Hitz-gakoak: terminologia-plangintza, terminologiaren normalizazioa, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa, Terminologia Batzordea, terminoen fidagarritasuna, terminoak gomendatzea.

El Plan General de Promoción de Uso del Euskera (1999) estableció la necesidad de llevar a cabo la planificación del trabajo terminológico en euskera. Así, la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco elaboró el Plan sobre la base de dos ejes fundamentales: por una parte, en 2001, creó el Banco Terminológico Público y, por otra, en 2002, constituyó la Comisión de Terminología en el seno del Consejo Asesor del Euskera, como Comisión Especial.

En este artículo, además del plan y la metodología de trabajo, se presentan los trabajos realizados por la Comisión de Terminología desde la puesta en marcha del Plan.

Palabras clave: planificación terminológica, normalización de la terminología, EUSKALTERM Banco Terminológico Público, Comisión de Terminología, fiabilidad de los términos, recomendar términos.

Le Plan Général de Promotion de l'Utilisation de la Langue Basque (1999) a démontré la nécessité de mener à bien la planification du travail terminologique en basque. Le Sous-ministère de la Politique Linguistique du Gouvernement Basque a donc élaboré un Plan basé sur deux axes fondamentaux : d'une part il a créé en 2001 la Banque Terminologique Publique et, d'autre part, en 2002, il a constitué une commission spéciale au sein du Conseil Consultatif de la Langue Basque : la Commission de Terminologie.

Dans cet article, mis à part le plan et la méthodologie de travail, sont présentés les travaux réalisés par la Commission de Terminologie depuis la mise en marche du Plan.

Mots-clés: planification terminologique, normalisation de la terminologie, Banque Terminologique Publique EUSKALTERM, Commission de Terminologie, fiabilité des termes, recommander des termes.

The General Plan to Promote Basque Language (1999) established the need to plan terminology work. The Sub-ministry for Language Policy of the Basque Autonomous Community Government produced the planning, taking two basic aspects into consideration: firstly, the setting up of the Public Terminology Bank in 2001, and secondly, the constituting of the Terminology Committee in 2002, as a special committee section within the Advisory Committee for Basque.

This paper presents the planning itself and the working methodology, as well as the work carried out by the Terminology Committee since the planning was set up.

Keywords: terminology planning, terminology normalisation, EUSKALTERM Basque Public Term Bank, terminology Committee, reliability of terms, recommending of terms.

Euskararen Aholku Batzordeak **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia** (EBPN) egin zuen 1998an. Urtebete beranduago, 1999an, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak berretsi egin zuen hurrengo hamar urteotarako hizkuntza-politika finkatu zuen Plana.

EBPNk terminologia-lanaren plangintza egitea agindu zuen VI.3.2.c atalean. Hori horrela, Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak (HPS) plangintza egiteari ekin zion eta, horretarako, bi ardatz nagusi ezarri zituen: batetik, **Terminologia Banku Publikoa** sortu zuen 2001ean eta, bestetik, **Terminologia Batzordea** eratu zuen 2002an Euskararen Aholku Batzordearen barruan.

Euskarazko terminologia-lanaren plangintza


1999, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

Plangintzaren bi ardatzak:

- **2001**, Terminologia Banku Publikoa
- **2002**, Terminologia Batzordea

Bestalde, terminologia-lanean erabiltzeko bi erreferentzia-lan argitaratu zituen Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak 2003an: *Terminologia hiztegia*, euskarazko terminologiaren kontzeptuak eta izendapenak finkatzen dituen, eta *Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua*, euska-

razko terminologia-lanak egiteko orduan erabili beharreko metodologia zehazten duena. Terminologia-lana egiteko metodologia, bai teoria orokorra bai terminologiaren praktika edo terminografia, nazioarte mailan oso finkatuta dago baina hizkuntza bakoitzaren ezaugarrien arabera moldatu behar da eta hori da, hain zuzen, eskuliburuak eskaintzen duena.



EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa
www.euskara.euskadi.net/euskalterm

Bankua UZEIk 1987an sortutako EUSKALTERM bankuaren oinarrian sortu zen 2001ean eta, orduetik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen du. Bankua Terminologia Batzordeak finkatutako lehentasunen arabera eguneratzen da eta HPSk eta IVAPek finantzatzen dituzte

EUSKALTERM mantentzeko eta elikatzeko lanak, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez. Banku Publikoa mantentzeko eta eguneratzeko lanak lehiaketa publikoaren bidez kontratatzen ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. EUSKALTERM publikoa denetik, UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroa izan da eguneratze- eta mantentze-lanen ardura izan duen entitatea.

Terminologia Batzordea

Terminologia Batzordea 179/2002 Dekretuaren bidez sortu zen Euskararen Aholku Batzordearen barruan Batzorde-atal berezi moduan (EHAA, 148 zk., 2002-08-07). Dekretuak honako **egiteko** hauek ezartzen dizkio Batzordeari:

- Terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea.
- Lan-proposamenak egitea eta urteko jarduketa-planetan jasotzea.
- Terminologia-lanerako irizpideak ematea.
- Termino bat baino gehiago dagoenean termino hobetsia proposatzea.
- Landutako terminologia-lanei onespena ematea.
- Finkatutako terminologia zabaltzeko bideak proposatzea eta terminologia zabaltzea.
- Onetsitako terminologiaren erabilera gomendatzea.

Euskararen Aholku Batzordearen azken dekretua 2007an argitaratu zen (EHAA, 204. zk., 2007-10-23).

Batzordearen **osaerari** dagokionez, dekretu horrek, 19. artikuluan, hauxe zehazten du:

- a) **Lehendakaria:** Hizkuntza Politikarako sailburuordea
- b) **Lehendakariordea:** IVAPeko zuzendari nagusia
- c) **Idazkaria:** Euskara Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren idazkaria
- d) Ondorengo erakundeek eta organismoek proposatuta izendatuko diren kideak:

- **Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako** ordezkari bat
 - **IVAPeko** ordezkari bat
 - **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren** Euskara Zerbitzuko ordezkari bat
 - **Euskaltzaindiko** ordezkari bat
 - **UZEIko** ordezkari bat
 - **EHUko Euskara Institutuko** ordezkari bat
- e) Gehenez ere **sei kide**, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak euskararen eta terminologiaren arloan ospe aitortua duten pertsonen artean izendatutakoak.
- f) Aztertzekoa den **terminologia-arloaren arabera**, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak **beste aditu batzuk** ere izenda ditzake, arlo horretako batzorde-atal bereziko kideei **aholku emateko. Izendapenak dena delako lan hori amaitu artean iraungo du.**

2003-2005 aldian, hauek izan ziren Terminologia Batzordeko kideak:

Patxi Goenaga, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, lehendakaria
Jon Urrutia, IVAPeko zuzendaria, lehendakariordea
Miren Mateo, HPSko Koordinaziorako zuzendaria, EABko idazkaria
Araceli Diaz de Lezana, HPSkoa
Eneko Oregi, IVAPekoa
Ibon Olaziregi, Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzukoa
Andrés Urrutia, Euskaltzaindikoa
Miel Loinaz, UZEIkoa
Xabier Alberdi, EHUko Euskara Institutukoa
Antton Gurrutxaga, aditua
Pascual Rekalde, aditua
Joseba Erkizia, aditua
Jose M. Berasategi, aditua
Charles Videgain, aditua
Alberto Atxabal, aditua

Idazkaritza teknikoa: **Lurdes Arruti**

2007ko dekretuaren ostean, hauek izan ziren kideak:

Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, lehendakaria
Jon Urrutia, IVAPeko zuzendaria, lehendakariordea
Erramun Osa, HPSko Koordinaziorako zuzendaria, EABko idazkaria
Araceli Diaz de Lezana, HPSkoa
Mertxe Olaizola, IVAPekoa
Ibon Olaziregi, Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzukoa
Andoni Sagarna, Euskaltzaindikoa
Iker Etxebeste, UZEIkoa
Xabier Alberdi, EHUKo Euskara Institutukoa
Alfontso Mujika, aditua
Asier Larrinaga, aditua
Joseba Erkizia, aditua
Miel Loinaz, aditua
Alberto Atxabal, aditua

Idazkaritza teknikoa: **Izaskun Osinalde**

Dekretuak agindutakoa kontuan, ikus dezagun orain arte Batzordeak egindako bidea:

- **Lehentasunak finkatzea.** Batzordeak hainbat lehentasuneko eremu finkatu zituen: irakaskuntza (bereziki lanbide-heziketa eta unibertsitatea, horien jarraipena enpresa-mundua dela aintzakotzat hartuta); hizkuntza-paisaia (jaketxeetako menuak, errotuluak...); esparru sozio-ekonomikoa; herri-administrazioa (Zuzenbidea); eta teknologia berriak.
- **Terminologia-lanerako irizpideak ematea.** Terminologia-lanean erabakiak modu koherentean eta sistematikoan hartu ahal izateko, Batzordeak hainbat irizpide ezarri zituen. Terminologia-lanean ez dira erabiltzen bakarrik irizpide linguistikoak, bestelakoak ere beharrezkoak baitira. Horrela, Batzordeak irizpide linguistikoak (Hiztegi Batuari irizpideen oinarrian), irizpide terminologikoak eta irizpide soziolinguistikoak / pragmalinguistikoak onartu eta bildu zituen dokumentu batean. Halaber, terminologia-lanean maileguak eta kalkoak integratzeko irizpideak landu eta onartu zituen. Bi dokumentuak irekiak dira eta, Batzordeak lan egin ahala, osatuz eta eguneratuz joango dira.

Irizpideak ezartzeko orduan Batzordeak hainbat maila desberdin bereizi zituen terminologiaren barruan:

- Terminologia zientifiko-teknikoa: oro har, nazioartekoa (*international words*) eta, beraz, hizkuntza gehienetan berdin erabiltzen denez, euskaraz normalean ez du arazorik sortzen.
- Euskal terminologia tradizionala: tradizioz euskararen unibertsoan terminologiaren ikuspuntutik oso aberatsak diren eremuak (arrantza, nekazaritza, abeltzaintza, burdingintza...) baina gure oraingo gizarte teknologikoan desagertzeaz daudenak. Hala ere, terminologia hori erreferentzia, inspirazio izan daiteke termino berriak sortzeko orduan.
- Eguneroko bizitzako terminologia edo sasi-terminologia (elikagaiak, jantziak, etxeko tresnak, altzariak...), hau da esparru sozio-ekonomikoa. Eremu hau maileguz beteta dugu, izan ere, eguneroko bizitzan maileguak modu masiboan sartzen zaizkigu etengabe eta, hori dela eta, oso garrantzitsua da erabakitzea zelako bidea hartuko duen hizkuntzak, hau da, zelako hizkuntza nahi dugun geroari begira. Horregatik, irizpide argiak eta garbiak behar dira arlo horretan modu sistematikoan aplikatzeko.
- Azkenik, terminologia juridiko-administratiboa dugu. Zuzenbide propiorik izan gabe, terminologia hori berezia da gure testuinguruan, terminologiaren iturri itzulpena baita. Beraz, irizpide bereziak finkatu behar dira eremu horretan espresuki aplikatzeko.

Bestalde, kontuan izanda terminologia-lana eta terminologiaren normalizazioa egiteko orduan beti agertzen direla arazoak, Terminologia Batzordeak «normalizazio-txostena» dokumentua onartu zuen. Dokumentuak termino baten gaineko azterketa sakona egiteko, hau da termino horren gainean erabakiak hartzeko behar den informazioa jasotzeko, balio du.

Hala ere, beti gelditzen dira konpondu gabeko arazoak edo modu puntualean konpontzen direnak. Hori kontuan, Terminologia Batzordeak «Arazo terminologikoen inbentarioa» egitea erabaki zuen. Laneko dokumentua da eta sistematizazioa mantentzen laguntzen du. Horrela, arazoak konpontzeaz bat, irizpideen dokumentura pasatzen dira eta, horrela, normalizazio-prozesua bizirik eta dinamiko mantentzen da.

- **Termino bat baino gehiago dagoenean termino hobetsia proposatzea.** Erabiltzaileei terminoen fidagarritasunari buruzko informazioa eman behar zaie eta, horretarako Batzordeak bost ponderazio-marka ezarri zituen:

0 *Baztertu beharreko terminoa* (T. Batzordeak onartzen ez duena)

1 *Termino erabilia* (aztertu gabea baina besterik ezean erabiltzen dena)

2 *Termino proposatua* (baina oraindik T. Batzordeak normalizatu gabea)


3 *Termino onartua* (baina ez lehenetsia, T. Batzordeak beste bat gomendatzen duelako)

4 *Termino normalizatua / gomendatua*

Beraz, 1 eta 2 markak, bereziki, lan egiteko orduan erabiltzen dira, 0 erabili behar da, espresuki, termino baten erabilera baztertu behar denean, eta 3 eta 4 dira Terminologia Banku Publikoan, EUSKAL-TERMen, bereziki, ikusiko ditugunak. Azpimarratu behar da 3 marka daraman terminoa Batzordeak sinonimo moduan onartzen duela, baina gomendatzen duena 4 marka daramana dela.


Esan bezala, erabiltzailearentzat oso praktikoa da terminoen fidagarritasunaren gaineko informazioa aurkitzea eta banku gehienek ematen dute informazio hori. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- **IATE, Interactive Terminology for Europe** (aurreko EURODI-AUTOM):




Markatuta agertzen da: «3 (Reliable)».

- **Grand Dictionnaire Terminologique (GDT)**, Quebec-eko Gobernua-ren terminologia-bankua (Office québécois de la Langue française):




Sarreraren azpian argi eta garbi agertzen da gomendioa: «*recommandé officiellement par la Commission générale de terminologie et de néologie (France)*». Gainera, behean ikus dezakegu noizko erabakia izan zen: «*Arrêté du 14 septembre 1990*».

- **TERMCATeko** (Kataluniako Terminologia Zentroa) **Neoloteca**. TERMCATeko *Consell Supervisor-ek* onartutako terminoak daude bilduta bertan. *Consell Supervisor* da terminoak onartzen dituen organoa.



Ezkerrean dagoen terminoak asteriskoa (*) darama. Horrek esan nahi du baztertu beharrekoa dela, baina bide ematen du termino normalizatuaren fitxara joateko. Horrela, eskuineko fitxan, behean, espresuki, esaten da: «*Formes desestimades: ...*»

- **Landutako terminologia-lanei onespena ematea.** Behean agertzen den eskeman ikus daiteke nola dagoen antolatuta euskarazko terminologia normalizatzeko prozesua:



1. Hiztegi terminologikoak enkarguz egiten dira. Eusko Jaurlaritzak lehiaketa irekiaren bidez esleitzen ditu lanak. EUSKALTERM mantentzeko eta eguneratzeko kontratuaren barrukoak UZEI Terminologia Zentroak egiten ditu. Hala ere, beste bide batzuetatik etorritako hiztegiak ere onartzen dira Terminologia Batzordearen normalizazio-prozesuan.
2. Landutako eremuaren arabera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak adituz eta hizkuntzalariz osatutako batzorde teknikoak antolatzen ditu (Terminologia Batzordearen eraketa-dekretuaren f) atalean aipatutakoari jarraituz). Gehienez ere, lau lagunek osatzen dituzte batzorde teknikoak eta prozedura zehatz eta jakin baten arabera lan egiten dute. Lehenengo bileran materialekin batera lan egiteko prozedura ematen zaie, hau da hiztegia aztertzeke egin beharrekoak: lehenengo eta behin

hiztegian dagoen eremu-zuhaitza aztertu, gero, eremu-zuhaitzaren arabera, hiztegioko sarreraren pertinentzia aztertu, antzeman faltako lirartekeen kontzeptuak eta proposatu, hiztegioko definizioen egokitasuna aztertu eta zuzendu, sinonimiaren tratamendua (ponderazio-markak) aztertu eta horren gainean proposamenak egin eta, azkenik, beste hizkuntzetako baliokideak aztertu eta, beharrezkoa izanez gero, zuzendu.

HPSk 2004-2008 artean 18 batzorde tekniko antolatu zituen.

3. Batzorde teknikoek lana amaitu ostean, beraiek landutako material guztiak (aktak, normalizazio-txostenak...) pasatzen zaizkio Terminologia Batzordeari eta horrek, prozedura jakin baten arabera ere, hiztegiak aztertu, proposamenak eta eztabaidak egin eta, azkenean, hiztegiak onartzen ditu.

Terminologia Batzordeak orain arte 21 hiztegi onartu ditu. Eremuaren arabera sailkatuta, hau da Batzordeak finkatutako lehentasunen arabera sailkatuta, hauek dira:

Hezkuntza (lanbide-heziketa, Unibertsitatea):

- Norbere Irudia, Ile-apaindegiak eta Estetika
- Iturgintza
- Turismoa
- Irudia, Ikus-entzunezkoak eta Soinua
- Soziolinguistika

Hizkuntza-paisaia:

- Jatetxe, Taberna eta Kafetegiak
- Errotuluak
- Merkataritza-guneetako Errotuluak

Esparru sozio-ekonomikoa:

- Hipermerkatuetako produktuak
- Bulego-materialak
- Oinetakoak
- Altzariak
- Arropa-dendak

- Elektrizitate-dendak
- Lanbideak
- Kirol-materialak

Herri-administrazioa (Zuzenbidea):

- Datu-babesa
- Toki-administrazioa

Teknologia berriak:

- Bulegotika

Bestelakoak:

- Laburtzapenak (laburdurak, siglak eta ikurrak)
- Ingurumena (Elhuyarrek Ingurumen Sailaren enkarguz egindako hiztegia)

Lan berezi bat:


- *Exintasan, desgaitasun eta gaixotasunen sailkapena*, Osasunaren Munduko Erakundearena: Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatuta, Terminologia Batzordeak sailkapena gainbegiratu zuen eta bertako terminologia aztertu, eztabaidatu eta onartu egin zuen Terminologia Batzordeak.

Batzordeak orain arte esparru sozio-ekonomikoari eman dio lehentasuna, ikusita euskaraz hutsune handia dagoela arlo horretan.


Beste hizkuntzen kasuan, hizkuntza arrunteko hiztegietan agertzen da eguneroko bizitzako lexikoa baina euskaraz ez da hori gertatzen eta hori da arrazoia Batzordeak lehentasun hori markatzeko.

Horregatik, ahalegin handia egin du Batzordeak erabiltzaileei tresna horiek eskaini ahal izateko, nahiz eta jakin, hemendik urte batzuetara, lexiko hori hizkuntza arrunteko hiztegietan integratzen denean, seguru-eruenik aldaketak izango direla.

4. Hiztegiak Terminologia Batzordeak onartu eta gero, **EUSKALTERM** Terminologia Banku Publikoan argitaratzen dira www.euskara.euskadi.net/euskalterm:




Horretaz gain, paperezko formatuan ere argitaratzen dira hiztegiak:



- **Finkatutako terminologia zabaltzeko bideak proposatzea eta terminologia zabaltzea. Onetsitako terminologiaren erabilera gomendatzea.** Terminologia Batzordearen helburuekin bat etortzeko beharrezkoa da EUSKALTERMen interfazea eta funtzionalitateak aldatzea eta horretan dabil Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza azken urteotan. Beraz, lanean aurrera egiteko, ponderazio-marketan moldaketa bat egin da eta, horrela, batzorde teknikoek lana amaitu eta gero, hiztegiak Bankuan txertatuko dira 4 ponderazioarekin baina behin-behinean, zeren eta, azken urratsa Terminologia Batzordearen onespina izango baita.


Beraz, Batzordeak onartu ostean, 4 markari ikur bat gehituko zaio onarpen hori eta erabiltzeko gomendioa espresuki adierazteko.

Hortaz, honela gelditzen da 4 ponderazio-marka:




Onartutako eta gomendatutako terminologiaren zabalkundea

Ponderazio-markak (terminoen fidagarritasun-maila):

- 3** Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)
- 4** Termino behin-behinean normalizatua/gomendatua (T. Batzordearen onespeneren zain)
- 4** +  Termino normalizatua/gomendatua

EUSKALTERMeko fitxen bertsio berrian, informazioa, honela egongo da antolatuta:



Terminologia Batzordea: 2010-2013 aldia

Batzordeak 2010-2013 aldiari lan hauek egin behar ditu:

- Onartutako terminologiaren zabalkundea: hiztegi guztiak argitaratu eta gero, erabiltzaile estrategikoei bidali behar zaizkie. Horretaz gain, bes-telako ekimenak ere pentsatu beharko da.
- 2008-2009ko Jarduketa-planaren balantzea: jarritako helburuak zenbateraino bete diren aztertu.
- 2010-2013 Jarduketa-plana, orain arte egindako aurreko bi jarduketa-planen jarraipena izango dena. Honez gero, hiztegi asko dago egin-

da normalizazio-prozesuaren zain, horietako batzuk Zuzenbide arlokoak:

- Laneko Segurtasunaren Hiztegia
- Herri Ogasunaren Hiztegia
- Negoziazio Kolektiboaren Hiztegia
- Administrazioarekiko Auzien Hiztegia
- Mendekotasun Hiztegia

Aldi berri horretan, Zuzenbide arloari lehentasuna ematea erabaki dezake Batzordeak. Interesgarria litzateke, normalizazioaren praktikatik etorriko bailirateke eremu horrek behar dituen irizpide bereziak, hau da batzorde teknikoek nahiz Terminologia Batzordeak aplikatuko dituztenak.

Bestalde, esan behar da EUSKALTERM eguneratzeko eta mantentzeko indarrean dagoen kontratuan Zuzenbide arloko hainbat hiztegi egingo direla 2012aren amaiera bitartean:

- Europako Tratatuaren Hiztegia
- Hauteskundearen Hiztegia
- Herri Ogasunaren Hiztegia
- Ezgaitasunen eta Urritasunen Hiztegia
- Euskal Herriko erakunde politikoen Hiztegia
- Herri Administrazioen Kontratuen Hiztegia (eguneratu)
- Hezkuntza Legearen Hiztegia
- Funtzio Publikoaren Hiztegia (eguneratu)
- Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsaren Hiztegia
- Lan-arloko Prozeduraren Hiztegia
- Erregistro Zibilaren Hiztegia
- Prozedura Zibilaren Hiztegia
- Prozedura Kriminalaren Hiztegia
- Zigor-arloko eta Espetxe-zaintzaren Hiztegia

Hiztegi batzuk eginda daude baina sakondu beharra ikusi da.

– Terminologia Batzordeak gomendatutako terminologiaren jarraipena eta ebaluazioa: Batzordearen ibilbidea nahikoa luzea denean egin beharko da hau.

Adituek hamar urteko epea uztea gomendatzen dute baina, gure tesuinguruan, aztertu beharko da noiz egin eta nola egin.

Hemen aipatutako euskarazko terminologia-lanaren plangintzari nahiz Terminologia Batzordeari buruzko informazioa www.euskara.euskadi.net webgunean dago kontsultagai:



Bai eta Terminologia Batzordeak onartutako hiztegiak ere:

Hemen zaudet: [Hasiera](#)

Terminologia-lana

Euskara Aholkerritzeko Plan Nagusiak (EBPN, 1998), besteak beste, Terminologia-lanaren plangintza egitea agintzen du. Hori betetze aldera, bi akimen garantzitsu burutu dira honoz gero: batetik, 2001ean, EUSKALTERM, Euskal Terminologia Banku Publikoa sortu zen (UZELI 87an egindako bankuaren oinarrian), hain zuzen ere, terminologiaren erabiltzaileentzako erreferentzia dena; eta, bestetik, 2002an Terminologia Batzordea eratu zen Euskararen Aholku Batzordearen baitan. Terminologia Batzordeak dituen egitekoen artean, jarduketara-plana egitea, terminologia-lanerako izpideak finkatzea eta terminoak proposatzea eta gomendatzea daude.

a) Terminologia-plangintza:

[Terminologia-lanaren plangintza labur-labur \(pdf, 43 kb\)](#)

b) Terminologia Batzordeak:

2003-2005 aldia

- [Eraketa Dabretua](#) (pdf, 35 kb)
- [Kideen zendapena](#) (pdf, 110 kb)
- [2003-05. jarduketara-plana](#) (pdf, 61 kb)
- [Batzordeak onartutako lan-materialak:](#)
 1. [Terminologia-lanerako izpideak](#) (pdf, 115 kb)
 2. [Malgueak eta kalteak terminologia-lanean](#) (pdf, 42 kb)
 3. [Normalizazio-txostena eta lantzeko gida](#) (pdf, 44 kb)

2006-2009 aldia

- [Berritze-dabretua](#)
- [Kideen zendapena](#)
- [2003-2005. aldaren balantzea](#)
- [2008ko jarduketara-plana](#)
- [Terminologia Batzordeak onartutako hiztegiak](#)

Hemen zaudet: [Hasiera](#)

Terminologia Batzordeak onartutako hiztegiak

Eskuragarri jarri ditugun hiztegiok Euskararen Aholku Batzordearen (EAB) Terminologia Batzordearen jarduketara-plana baitan egin dira. Lehenengo eta behin, UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak eginak dira, segidan hizkuntzalariei eta arloko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertuak, eta bukatzeko, Terminologia Batzordeak onartuak.

Beraz, hemen duzue **Terminologia Batzordeak gomendatzen duen terminologia:**

- [Jaietxe, Taberna eta Kafategiaren Hiztegia](#)
- [Hipermerkatuetako Produktuen Hiztegia](#)
- [Kirol-materialien Hiztegia](#)
- [Merkataritza-guneetako Errotuluen Hiztegia](#)
- [Bulego-materialien Hiztegia](#)
- [Arropa-dendaren Hiztegia](#)
- [Dinatxakoen Hiztegia](#)
- [Nortara irudia, ile-apaindegia eta Estetika Hiztegia](#)
- [Elektrizitate-dendaren Hiztegia](#)
- [Altzarien Hiztegia](#)
- [Iturgintza Hiztegia](#)
- [Turismo Hiztegia](#)
- [Errotuluen Hiztegia](#)
- [Irudia, ikus-entzumezkoak eta Soinua Hiztegia](#)
- [Toki Administrazioaren Hiztegia](#)
- [Lanbideen Hiztegia](#)
- [Soziolinguistika Hiztegia](#)
- [Rulegika Hiztegia](#)
- [Datu-babesaren Hiztegia](#)
- [Laburtzapenen Hiztegia](#)

Helbide interesgarriak

www.euskara.euskadi.net (Euskararen Corputa eta Teknologia berriak –Terminologia). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

www.euskara.euskadi.net/euskalterm EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa

www.iate.europa.eu Interactive Terminology for Europe (lehen EURODICAUTOM)

www.olf.gouv.qc.ca Grand Dictionnaire Terminologique (Gouvernement du Québec)

www.termcat.cat Kataluniako Terminologia Zentroa (Cercaterm terminologia-bankua)

www.btb.termiumpius.gc.ca Kanadako gobernuaren terminologia-bankua

www.cilf.org/bt.fr.html Conseil International de la Langue française

Bibliografia

EUSKO JAURLARITZA, 1999, *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2002, *Terminologia Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2002, *Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2009, *Jatetxe, Taberna eta Kafetegien Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2009, *Turismo Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2009, *Altzarien Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2009, *Arropa-denden Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2009, *Elektrizitate-denden Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2009, *Errotuluen Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2010, *Norbere Irudia, Ile-apaindegiak eta Estetika Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2010, *Iturgintza Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2010, *Irudia, Ikus-entzunezkoak eta Soimua Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2010, *Soziolinguistika Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2010, *Merkataritza-guneen Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2010, *Hipermerkatuetako produktuen Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2010, *Bulego-materialen Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2010, *Oinetakoan Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2010, *Lanbideen Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2010, *Kirol-materialen Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2010, *Datu-babesaren Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2010, *Toki-administrazioaren Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2010, *Bulegotika Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2010, *Laburtzapenen Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Terminologia juridiko-administratiboa, Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzuan: arazo nagusiak

ERREA, Inma

Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzuko itzultzailea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzuaren ibilbideak eta eguneroko jardunak zuzeneko eragina dute terminologia-arazoei heltzeko eran. Aldi berean, udal baten zerbitzura egoteak eta administrazio-jardunean gertatzen ari diren aldaketa eta berrikuntzek ere eragiten diote.

Bestetik, erakundeetako itzulpen-zerbitzuek arazo eta irtenbide asko partekatzen ahal dituzte terminologiaren eta espezializazio-hizkeren arloan, eta horregatik artikulugileak horien arteko komunikazioa areagotzea proposatzen du.

Hitz-gakoak: udal-terminologia, estandarizazioa, bateratze-arazoak, espezializazio-hizkerak, komunikazioa, baliabide terminologikoak

La trayectoria del Servicio de Traducción del Ayuntamiento de Pamplona, su dinámica de trabajo, el hecho de estar al servicio de una entidad local y las innovaciones introducidas en la actividad administrativa influyen en el tratamiento de la problemática terminológica.

Por otra parte, dado que en el ámbito de la terminología existen muchos problemas y soluciones comunes a todos los servicios de traducción institucionales, la autora propone incrementar la comunicación entre ellos.

Palabras clave: terminología local, standarización, problemas de unificación, hablas espezializadas, comunicación, recursos terminológicos.

Le mode de fonctionnement du Service de Traduction de la Mairie de Pampelune, sa dynamique de travail, le fait d'être au service d'une collectivité locale et les innovations apportées à l'activité administrative ont une influence sur le traitement de la problématique de la terminologie.

Par ailleurs, étant donné que dans le domaine de la terminologie de nombreux problèmes et leurs solutions sont communs à tous les services institutionnels de traduction, l'auteur propose que l'on établisse entre eux une meilleure communication.

Mots-clés : terminologie locale, standardisation, problèmes d'unification, vocabulaires spécialisés, communication, ressources terminologiques

The track record of Iruñea-Pamplona City Council's Translation Service and its everyday activities have had a direct impact on the way terminology problems have been tackled. At the same time, the fact that it is a municipal service plus the changes and innovations taking place in administrative work have also made their effects felt.

On the other hand, the translation services of the institutions could have many problems and their corresponding solutions in the area of terminology and specialized language in common, and that is why the author of the paper proposes that communication among the institutions be intensified.

Keywords: municipal terminology, standardisation, unification problems, specialized language, communications, terminology resources

Sarrera

Hitzaldi honen helburua da azaltzen saiatzea nola heltzen diogun Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzuan terminologiaren arazoari. Hori egiteko, alabaina, alde zuretik hainbat kontu argitu behar direla uste dut.

Hasteko, agerikoa den gauza bat azaldu nahi dut. Ni itzultzailea naiz, eta hemen itzultzaile baten ikuspegitik hitz egingo dut, gaia terminologia bada ere.

Terminologia, itzultzaileontzat, arazoa da askotan, ezinbestean terminologiaren inguruko gorabeherekin topo egiten baitugu, gehienetan nahi gabe. Hitzunek nor bere gisa barneratzen dituzte hizkuntzak, eta aukera egiten dute, hizkuntza bakoitzak eskaintzen dizkieten baliabideen artean. Itzultzaileok hiztun gara hein handi batean, eta hiztun arrunten gisa jokatzeko joera dugu: testu bat itzultzean testu hori geure barneko diskurtsoa baliatuta itzultzen dugu, hau da, gure-gureak diren hitzak, esamoldeak eta ezagutzak erabilia.

Baina itzultzaileok ez gara, soilik, hiztun arruntak, eta, gure hizkuntza-baliabide pertsonalez gain, beste bitarteko batzuk erabili behar ditugu. Eta BEHAR hori azpimarratu nahi dut, BEHAR hori BETEBEHARRA dela esateko. Hitz egokienak bilatu behar ditugu gure itzulpen-lanak egiteko, eta joskera nahiz adierazpide txukun eta argienak ere, eta hizkuntza ahalik eta modu zuzen, egoki eta adierazkorrean erabili behar dugu.

Betebehar horiei eusteko, kontuan hartu behar ditugu, sorburu- nahiz xede-hizkuntzen arau, aukera eta baliabideez gain (gramatikak, hiztegiak eta abar), kasuan kasuko gaiari dagozkion hizkuntza-berezitasunak.

Berezitasun horietako bi ditugu terminoak, hau da «erabileremu baten barruan era unibokoan kontzeptu bakarra izendatzen duen unitate linguistikoak» (Terminologia Hiztegia, 2003) eta espezialitate-hizkerak (jakintza-esparru jakin bateko esamolde eta adierazpideak). Horregatik esan dut itzultzaileok topo egiten dugula terminologiaren inguruko arazoekin, noiz eta jakintza-esparru zehatz bateko testuak itzuli behar ditugunean.

Izan ere, terminologia «*behar bat*» da itzultzaileontzat, «jakintza espezializatuaren irudikapenean, adierazpenean, komunikazioan eta irakaskuntzan zerikusia duten gainerako profesionalentzat» den bezala (Cabré, 2003).

Haatik, hori, terminologia baliatu behar izatea, ez zaie itzultzaile guztiei gertatzen edo, behinik-behin, ez, itzuli behar dituzten testu guztietan. Literatura itzultzaile batek, esate baterako, beste arazo batzuk izango ditu, baina terminologiarekin ez du kasik topo egingo. Zientzia- edo jakintza-gaiak itzultzen aritzen denak, berriz, etengabe heldu beharko die arazo terminologikoei. Eta oso itzultzaile espezializatua bada, agian adar zientifiko jakin bateko terminologiarekin lan egingo du bakarrik.

Horri guztiari dagokiolarik, Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzuan egoera berezia dugu. Hasteko, Zerbitzuko itzultzaileok administrazio-itzultzaileak gara, baina multzo horren barruan udal-itzultzaileen azpimultzoan gaude kokatuta. Eta udal-itzultzaileen artean, gu hiriburu bateko Udalerako egiten dugu lan, hau da, egitura handi eta konplexu samarreko udal baterako. Horrek guztiak ondorioak ditu terminologiaren arloan ere, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Ematen du administrazio-itzultzaileen lana testu administratibo eta juridikoak itzultzea baino ez dela. Baina, kasu batzuetan behintzat, mota horretako testuak itzultzen baditugu ere, ez ditugu soilik halakoak itzultzen. Udal-itzultzaileon kasuan, esate baterako, testu juridiko eta administratiboetz gain, beste testu mota asko ditugu itzulgai, arlo eta helburu askotarikoak. Esan dudanaren frogara, aurrerago azalduko dudanarekin bat, Iruñeko Udaleko itzultzaileen egoera eta zereginak.

Gu bezalako udal-itzultzaileok esparru ugari jorratu behar dugunez, terminologiari eta espezialitate-hizkerei buruz ditugun beharrak konplexuak dira. Etengabe aritzen gara esparru batetik bestera pasatzen, hizkuntza-erregistro batetik beste batera, eta testu-mota batetik beste batera. Eta horietan guztietan, kasuan-kasuko arloko termino eta esamolde berarizkoen euskarazko baliokideak bilatu eta eman behar ditugu.

Batzuetan, denbora luzea eman behar izaten dugu ikertzen termino edo esamolde egokia aurkitu arte, baina gure lan-zama handia denez,

horretarako denbora-falta ere nozitzen dugu. Halakoetan, malda gora egiten zaigu euskarazko termino argi edota adostutako bat ez aurkitzea. Adibide bat jarriko dut, terminologia administratiboa eta juridikoarekin zerikusirik ez badu ere: Iruñeko Udalean musikaren arloko testu asko itzultzen ditugu, eta ez dugu aurkitu oraindik arlo horretan gaztelaniaz baliatzen dituzten termino eta esamolde bereziak modu azkar batean formulatzeko manera.

Arazo bera dugu beste hainbat arlotan, eta horien artean, testu juridiko eta administratiboetan. Arlo horretan asko aurreratu da, eta baditugu esku-
ra oso baliabide indartsuak, baina sarri egiten dugu topo desadostasun terminologikoekin, batez ere, arauzko testuei dagokienez, aurrerago azalduko dudan bezala.

Hori egin baino lehen, dena den, Nafarroako hiriburuko Udalean itzulpen-lanek izan duten bilakaeraren berri eman nahi dut, bilakaera horrek terminologiari dagozkien arazoetan zuzeneko eragina duelakoan.

1. Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzua: historia eta zereginak

1.1. Itzulpen zerbitzua, Iruñeko Udalean: bilakaera

1996ko maiatzean, Iruñeko Udalak itzultzaile-lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin zuen. Lanpostua betetzeko probak eta lehiaketa urte bereko irailetik azarora egin eta gero, haien ondorioz, ni (Inma Errea), bilakatu nintzen Iruñeko Udalaren historiako lehen itzultzailea.

Baina horrek ez du esan nahi aurretik ezer ez zela itzultzen Nafarroako hiriburuko Udalean. Izan ere, ordura arte garai hartako Kultur Aferen Alorrean kokaturik zegoen Euskara Zerbitzuaren ardura ziren itzulpen-lanak. Iñaki Azkonak, Euskara koordinatzaileak, zeukan ardura hori. Hark egiten zituen itzulpen-lanen parte bat, eta beste bat, Nafarroako Gobernuako itzultzaileei zein kanpoko profesionaleri enkargatzen zien.

Udalbatzaren Osoko Bilkuran euskaraz mintzatzen hasi ziren zinegotzien hitzen aldibereko interpretazioa ere Euskara koordinatzaileak berak egingen zuen.

Horrekin batera, Iruñeko Alkateak, Alkatea Alfredo Jaime zen garaian, ofizial administrari euskaldun bat gaitu zuen herritarrek euskaraz aurkeztutako eskabideak gaztelaniaratzeko, udal-organoek haiek bideratze aldera, eta osoko bilkuretako zinegotzien euskarazko mintzaldien gaztelaniazko itzulpena egiteko, horiek euskaraz eta gaztelaniaz aktetan jasotze aldera (osoko bilkuren aktetan euskaraz parte hartzen dutenen hitzak euskaraz eta gaztelaniaz jasotzen dira, eta gaztelaniaz egindakoak, hizkuntza horretan soilik).

Ni 1997ko urtarrilean hasi nintzen lanean Iruñeko Udaleko itzultzaile gisa, eta handik gutxira sortu zen Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzua, orduko Zerbitzu Orokorretako Alorraren barruan. Alorren izenetan izandako aldaketen ondorioz, Zerbitzua Lehendakaritza Alorrean dago kokaturik orain.

Lehen itzultzailea lanean hastearekin batera, itzulpen-lanen beharra ugaritu egin zen Udalean. Horretan eragina izan zuen 1997. urte hartan bertan Euskara Zerbitzuaren gidaritzapean Iruñeko Udalbatzak Euskarari buruzko Ordenantza onetsi izanak. Ordenantza horrek, batetik, bultzada eman zion elebitasunari Iruñeko Udalean, halako eran non gero eta gehiago ziren herritarrei eskaintzen zitzaizkien agiri elebidunak. Bestetik, Ordenantzaren onspenaren ondorioz edo, Udalari idatziz euskaraz zuzentzen zitzaizkion herritarren kopurua ere handitu zen.

Horren guztiaren ondorioz, urtebete geroago, 1998an, bigarren itzultzailea kontratatu zuen Udalak. Bigarren lanpostu hori 1999ko plantillan finkatu eta urte berean deialdia egin zen. Deialdi haren ondorioz, Patxi de Vicente bihurtu zen Udaleko bigarren itzultzaile finkoa.

2000. urtean, Zerbitzuaren funtzionamendurako beste urrats garrantzitsu bat eman zen: itzulpenari laguntzeko memoria erabiltzen hasi ginen bertan. TRADOS memoria-programa. Harrezkerotik, horrekin ari gara lanean, nahiz eta lan-zamaren ondorioz dugun denbora-falta dela medio ezin izan

dugun garatu horrek eskaintzen dituen abantaila guztiak, eta horien artean, terminologiaren kudeaketarako hain baliagarria den Multiterm tresna. Hori da Zerbitzuaren duen gabezia nagusietako bat.

Bestetik, kontuan hartu behar da Zerbitzua sortu zen unetik beretik itzulpenen eskaerek gora egin dutela etengabe Iruñeko Udalean, testu-motak ere asko dibertsifikatu direlarik. Elebitasunaren erabileran murrizketak izan direnean ere Itzulpen Zerbitzua lanez gainezka egon da, eta dago. Hori dela-eta, bertako itzultzaileon eskaeretako bat beti izan da Zerbitzuan itzultzaile gehiago kontratatzea.

Gure eskaera horren ondorioz, 2006. urtean hainbat hilabetetarako bi itzultzaile gehiago kontratatzea lortu genuen. Kontratu horiek amaitu ostean, beste itzultzaile bat (bi beharrean bakar bat onartu ziguten) kontratatu zuten aldi baterako, 2007. urtean. Lanpostu hori 2009. urtetik dago finkatuta plantillan, nahiz behin betiko betetzeko deialdia egiteke dagoen oraindik.

Aurrekoaz gain, noiz edo noiz, kanpoko itzultzaileei enkarguak egitera jotzen dugu. Halako kasuetan, Zerbitzuko itzultzaileak arduratzen gara gehienetan enkargua egiteaz eta emaitzen zuzenketaz. Baina salbuespenak ere izan badira: Noiz edo noiz Udaleko organo edo bulego batek itzulpenlan bat kanpoan enkargatu izan du, guri ezer esan gabe. Horren ondorioz, egoera desegokiak sortzen dira: jatorrizko testu berak bi itzulpen desberdin izatea, adibidez, edo, terminologiari dagokionez, bete-betean terminotzat jotzen diren hitzen itzulpen diferenteak ematea. Itzulpen Zerbitzuan saiatzen gara horiek ez gertatzeko irizpideak finkatzen eta ematen, baina Udalaren egituraren konplexutasunak galarazten du halako gorabeherak erabat desagertzea.

Aurreko horiek guztiek zuzeneko eragina dute itzultzaileon jardunean terminologiaz bezainbatean, orokorrean, eta terminologia juridiko administratiboari dagokionez, partikularki: hamahiru urtean lan-kopurua izugarri handitu bada ere, eta dibertsifikatu –hala lengoaia eta erregistro motei nola agirien eta euskarrien klaseei dagokienez–, Zerbitzuak hiru lanpostu baino ez izateak terminologiaren inguruko lanak behar bezala gauzatzea galarazten du.

1.2. Lan-motak

Lehen esan dut udal-itzultzaileon jardunaren ezaugarria dela mota eta arlo askotako testuak itzultzea. Horren froga da, inolako dudarik gabe, gure Zerbitzuko zereginen zerrenda luzea. Zerrenda horren sailkapena egiten saiatuko naiz hemen.

Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzuak idatzizko itzulpen eta zuzenketa arloan nahiz ahozko interpretazioarenean jarduten du. Esan bezala, Zerbitzuak egiten dituen lanak ugariak eta askotarikoak dira, eta gero eta dibertsifikatuagoak.

Teresa Cabrék dioenez, garai batean, jakintza esku gutxitan zegoen garaian, erraza zen terminologiaren kontrola. Gaur egun, berriz, jakintzaren ekoizpena eta zabalpena ugaltu da eta hura transmititzeko bideak dibertsifikatu dira, eta terminologiari dagozkion zereginak eta kontrola askoz konplexuagoak bilakatu dira. Cabrék berak dio azkar ari direla jakintza espezializatua eta teknologia handitzen eta dibertsifikatzen, eta terminoak ere, haien erritmoari eutsita eraberritu behar direla (Cabré, 2003). Ez dakit zer gertatzen ari den gurea bezalako beste erakundeetan, baina niri Cabréren hitzek gurean gertatzen ari diren zenbait fenomenoren oihartzuna dakarkidate. Izan ere, gure Zerbitzuari egiten dizkioten enkarguek gero eta lan terminologiko handiagoa egitera behartzen gaituzte.

Eta gainera, terminologia-arazoei aurre egiteko modua ere aldatzen ari da. Ez dakit terminoen arazoei heltzea eskatzen diguten lan-moten eremuak inoiz hermetikoak izan diren, iragazgaitzak. Ez dut uste. Baina egun eremu horiek inoiz baino iragazkorragoak dira, eta irekiagoak. Axun Aierbek Administrazioaren iragarkiei buruz hau esan zuen: «Administrazioa idazki diren iragarkiak batzuetan berdin-berdinak dira testu aldetik aldizkari ofizialean eta prentsan; beste batzuetan berriz, aldizkari ofizialean testu osoa agertzen da eta prentsan, aldiz, iragarki horren berri ematen duen beste iragarki laburrago bat.» (Aierbe, 2003). Guk Iruñeko Udalean halako asko ditugu. Baina egoera are askotarikoagoa bilakatzen ari da. Egokitu zaigu inoiz irratian edo telebistan emateko ziren iragarkiak moldatu behar izatea, testu administratiboak abiapuntu hartuta. Eta orain, gero eta gehiago, In-

terneten jartzeko moldatu behar izaten ditugu testuak maiz. Gain-gainean daukagu Egoitza Elektronikaren, Herritar Karpeteren eta halakoen afera. Eta horietan guztietan hainbat eremutako terminoak nahasten dira, eta horien artean ugariak dira esparru administratibo eta juridikokoak. Kontuan hartu behar dugu esparru horrek eskatzen duen zehaztasuna, baina helburu komunikatiboa ere ez dugu ahaztu behar, eta web guneetako komunikatzeko manierak eta euskarriak ugariak eta diferenteak direla ohar-tuta gaude.

Hizpide ditudan kontuak hobe uler daitezke agian, gure Zerbitzuko ardu-ren sailkapena baliatuta.

1.2.1. *Idatzizko itzulpenak eta zuzenketak*

1.2.1.1. Itzulpen-lanak

Zerbitzuak egiten dituen idatzizko itzulpen-lanen parte handiena, % 90 baino gehiago, testuak gaztelaniatik euskarara pasatzeko dira. Euskaratzen diren testuak askotarikoak dira, udal-jardunaren esparru diferenteei dagozkie, eta haien euskarriak ere gero eta ezberdinagoak dira. Horri dagokiolarik, Interneten argitaratzeko testuak dira gehien ugaltu direnak azken urteotan.

1.2.1.1.A) Gaztelaniatik euskarara

Hona Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzuak euskaratu ohi dituen testuen sailkapen orokor bat:

- **Testu juridikoak eta administratiboak.** Deialdietako oinarriak, ediktuak eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko bestelako testuak, gutun eta zirkularrak, ebazpen-proposamenak, ordenantzak, hitzarmen eta kontratuak...
- **Dibulgazio-testuak.** Foiletoak, liburuak, katalogoak, web gunerako testuak, unitate didaktikoak (paperean, euskarri informatikoetan edota ikus-entzunezko gisa argitaratzekoak)...

- **Publizitatea.** Kanpainak, iragarkiak...
- **Ereduak.** eskabide-ereduak eta oro har herritarrek udal-izapideak egiteko erabili behar dituzten agirien ereduak. Atal honetan azpimarratzekoa da Udala eredu elektronikoak eskaintzen hasi dela, eta jada paperezko eredu oinarritutako eredu elektroniko horietarako testuak euskaratzen hasi dela Zerbitzua.
- **Organigramak.** Itzulpen Zerbitzuak du Udaleko organoen zein haren menpe dauden erakunde euskarazko izenak emateko ardura. Halako izenak Udalak etengabe sortzen eta Zerbitzuak euskaratzen baditu ere, lau urtean behin, udal-hauteskundeetatik sortutako korporazio berria lanean hasten denean, Zerbitzuak arreta berezia jarri behar izaten du zeregin honetan, halakoetan udal-organigrama goiti-beheiti aldatzen baita. Izen horietan, maiz, terminoak erabiltzen dira, eta horien finkapenak buruhausteak ematen dizkigu noiz edo noiz.
- **Udalaren programa informatikoetarako testuak.** Udala gero eta informatizatuago dago, eta gero eta sarriago baliatzen ditu berariazko programa informatikoak haren jardunean. Horren adibide dira, esaterako, espedienteak kudeatu eta kontrolatzeko programa, herritarrei jakinarazpenak egiteko edota udal-zergen inguruan ezarritakoak. Horietan guztietan testu estandar batzuk erabiltzen dira. Horiek euskaratzea (batzuetan testu solteak dira edota zatikatuak) Itzulpen Zerbitzuari dagokio.

Terminologiari dagokionez, Iruñeko udal-itzultzaileok esparru gehiengan izaten ditugu behar eta arazo terminologikoak (edo espezialitate-hizkeri lotutakoak), baina bereziki handiak dira behar eta arazo horiek testu juridiko edo administratiboak, ereduak, organigramak eta programa informatikoetako testuak itzultzeko orduan. Orain, gainera, konplexuagoa bilakatu da kontu hori, Egoitza Elektronikorako testuen itzulpenarekin. Testu horiek itzultzeko orduan, hainbat konturi erreparatu behar diegu batera: terminologia juridiko-administratiboa (askotan testuak legeetatik eratorriak dira) eta legeen aipuak, Interneten inguruko hizkera espezializatua, testuen komunikagarritasuna eta horrek bere testuinguruarekin duen lotura (testu batek ez du berdin funtzionatzen liburu batean edo sarean) eta kasuan ka-

suko gaiari (zergak, errolda, haur-eskolak, musika-eskola, gazteria, hezkuntza, merkataritza...) dagokion terminologia. Gainera ohikoa da itzulgaiak oso zatikaturik etortzea (hitzak, esaldiak, paragrafoak, denak solte eta ageriko loturarik gabe haien artean).

1.2.1.1.B) Euskaratik gaztelaniara

Honako testu mota hauek gaztelaniarutzen ditugu Zerbitzuan:

- **Herritarren eskaerak.** Oro har, erregistro ofizialetan herritarrek aurkezten dituzten eskabideak dira. Printzipioz, Euskarari buruzko Udal Ordenantzaren arabera herritarrek eskaerak euskaraz aurkezten dituzten orotan Udalak, gero, euskaraz eman behar du erantzuna.
- **Bestelako agiriak.** Udaleko organoek gaztelaniaratzeko eskatutakoak dira: herritarren iradokizunak eta kexak, gehien bat, web gunearen bidez jasota, eta beste zenbait.
- **Osoko bilkuretako euskarazko mintzaldiak.** Zinegotziak euskaraz ari ziren direnean, lehenik eta behin aldi bereko interpretazioa egiten da. Baina gero, aktetan jasotzeko, haien mintzaldiak transkribaturik bidaltzen dizkigute, eta Zerbitzuan horiek zuzendu eta gaztelaniaratu egin behar ditugu.

Terminologiak ez digu hainbeste buruko min sortzen euskaratik gaztelaniara itzuli behar ditugun testuetan, batez ere, terminologiaren inguruan sortzen diren arazok hizkuntzen normalizazio-mailarekin zerikusia dutelako, eta argi dago gaztelaniak ez dituela euskarak pairatzen dituen normalizazio-arazoak. Eremu honetan, hala ere, nolabaiteko bilaketa terminologikoa egin behar dugu maiz: termino izaki euskarazko testuen sortzaileek (gure kasuan, herritarrek eta zinegotziek) terminotzat jotzen ez dituzten esapide eta hitz ugariren gaztelaniazko baliokideak bilatu behar ditugu, testuen komunikagarritasuna eta zehaztasuna errazte aldera. Legeen aipuekin ere gertatzen da: herritarrek eta zinegotzi euskaldunek sortzen dituzten testuetan lege-aiпуak egiten dituzte euskaraz, baina haiek beraiek sortutako bertsioetan ematen dituzte horiek, dela kasuan kasuko arauaren euskarazko

itzulpen *ofizialik* ez dagoelako dela, itzulpen hori existitzen denean, testua-
ren sortzaileek ez dutelako itzulpena ezagutzen. Halakoetan, guk, beti, gaz-
telaniazko jatorrizko testua baliatzen dugu.

1.2.1.2. Zuzenketak

Zerbitzuak idatzizko itzulpenak egiteaz gain, Udalean bertan euskaraz
ekoiztutako testuak zein Udalerako Zerbitzuak berak edota kanpoko itzul-
tzaileek egindako testuak zuzentzen ditu.

- **Itzulpen Zerbitzuan bertan itzulitako testuak.** Zerbitzuan itzultzaile
batak itzultzen dituen testuak beste batek zuzentzen dizkio. Zuzenketa
oso parte garrantzitsua da testu bat itzultzeko prozesuan, eta are inpor-
tanteago bilakatu da, itzultzaileok itzulpen-memoriak erabiltzen hasi
garenez geroztik.

Baina, itzulpen memorien erabileretatik etorritako okerrez gain,
itzulpen-prozesuan oso erraza da, oro har, hutsak edo desegokitasunak
sortzea, itzultzaileok etengabe aritu behar izaten dugulako distantziaz
aldatzen sorburu- eta xede-testuen artean. Zuzentzaileek, ordea,
distantzia egonkorrago batetik aztertzen ahal dute xede-testua. Horrek
berdin balio du gramatikan, joskeran, ortografian, puntuazioan eta hiz-
tegian, eta jakina, erabilitako terminoen egokitasuna ebaluatzean ere.

- **Zerbitzutik at itzulitako testuak.** Halako testuei Zerbitzuan
itzulitakoekin baliatzen dugun zuzenketa-tratamendu bera ematen
diegu.

Terminologiaren arloari arreta handiagoz begiratzen diogu kanpoan
itzulitako testuetan, Udalean finkatutako termino eta izen berezien
koherentzia gordetze aldera.

- **Osoko Bilkuretako euskarazko parte-hartzeak.** Esan bezala, zinego-
tziek euskaraz egindako hitzaldien zuzenketa egiten dugu, aktetan sar-
tu aurretik. Gaztelaniazko mintzaldiak Akta Departamentuko transkrip-
zioak egiten dituzten langileek zuzentzen dituzte.

- **Udal-langileek ekoiztutako testuak.** Iruñeko Udalean ez dago ezarrita inongo egiturarik, herritar euskaldunei zerbitzuak euskaraz eskaintzeko, eta horregatik euskaraz eskaintzen diren zerbitzu eta agirien pisu handiena Euskara Zerbitzuak eta Itzulpen Zerbitzuak daramate. Hala ere, badira langile euskaldunak eta horiek, batzuetan, testuak egiten dituzte, eta Itzulpen Zerbitzuari pasatzen dizkiote gainbegiratu eta zuzentzeko.
- **Inprenta- eta maketazio-probak.** Udal-argitalpenen kasuan (foiletoak, liburuxkak, publizitate-kanpainak...), oso garrantzitsua da testuak maketatuak izan ostean zuzentzea. Hori are garrantzitsuago bihurtzen da kontuan hartzen badugu gehienetan hala esku-orrien nola kanpainetako materialen diseinua elebitasuna kontuan hartu gabe egiten dela: Itzulpen Zerbitzuari jada gaztelaniaz diseinatutako materialen itzulpena eskatzen diote, gaztelania bakarrik kontuan hartuta pentsatutako esloganena barne.

Udalak euskaraz ekoizten dituen **testuen zuzentasunari** dagokionez, airtortu behar dugu Itzulpen Zerbitzuak ez duela erabateko kontrola Udalaren euskarazko testu guztien gainean. Batzuetan hortik zehar ikusten diren akats bat edo beste Zerbitzutik pasatako testuetakoak izan badaitezke ere, gehienak ez dira. Adibide gisara: gertatu izan da gaztelaniazko testu bakar batetik Udalak euskarazko bi bertsio ateratzea.

1.2.2. *Ahozko itzulpenak (Interpretazioa)*

Esan bezala, Itzulpen Zerbitzuko itzultzaileok egiten dugu zinegotzien euskarazko hitzaldien aldibereko interpretazioa, Udalbatzaren osoko bilkurretan. Zeregin horretan ere, garrantzia du terminologiak, eta horren inguruan bi arazo mota sortzen ahal dira:

1. Interpretariet terminologia egokia ez erabiltzea gaztelaniaz (bat-batean aritzeak berekin dakar arrisku hori).
2. Hautetsi euskaldunek termino egokiak ez erabiltzea. Hori ahal den neurrian ekiditeko, Itzulpen Zerbitzuak bertan egin eta bildutako materialak paratzen ditu zinegotzi euskaldunen eskura.

1.2.3. *Bestelako lanak: aholkularitza eta barneko agirien lanketa*
(glosarioak, protokoloak...)

Aholkularitza. Zerbitzuaren zereginetako bat euskaraz lan egin behar duten langileei hizkuntzaren inguruan aholkuak ematea da. Arlo hau ez da behar bezala garatu, esan dudana bezala Udalak ez duelako ezarri inongo zirkuitu elebidunik, herritarrei zerbitzua euskaraz eskaintzeko. Hala ere, aholkuak eskaintzen zaizkie halakorik eskatzen duten langileei orori.

Barneko agirien lanketa. Zerbitzuan irizpideak finkatze aldera, hainbat lan egiten ari gara, glosarioak eta protokoloak osatzeko. Nahiz berebiziko garrantzia eman esparru honi, hori lantzeko denbora gutxi izaten dugu Zerbitzuko itzultzaileok. Egun arlo honetan egiteko ditugun lan nagusiak bi dira:

1. Zerbitzuan ditugun glosarioen azterketa eta eguneraketa, Tradosen barruan **Multiterm** datu-basea modu egoki eta eraginkorrean osatu eta erabiltze aldera. Zeregin hau funtsezkoa jotzen dugu, uste dugu-lako Multiterm tresnak asko lagundu ahalko digula, terminologiaren arloan ditugun arazoei irtenbideak emateko. Esate baterako, Udalean sarri erabili ohi ditugun terminoen erabilera koherentea lortzeko tresna baliagarria jotzen dugu Multiterm.
2. Hainbat protokolo osatzea, Zerbitzuaren funtzionamendua hobetzeko: Interpretazioari buruzko protokoloa, osoko bilkuretan parte hartzen duten guztiei zuzenduta; Zerbitzuari lanak eskatzeko era zehazten duena, itzulpen-lanak eskatzen dituzten udal-langileei zuzenduta; eta euskararen arau ortotipografikoei buruzkoa, Udalerako gaztelaniaz lan egiten duten diseinatzaileei eta maketazio-egileei zuzenduta.

2. Terminologia juridiko-administratiboa: arazo nagusiak

Terminologia juridiko administratiboaz bezainbatean, Zerbitzuan izaten ditugun arazoetan bi mota bereiz daitezke: Zerbitzuaren egiturak eta lan egiteko manierak eragindakoak eta terminologiari berari dagozkionak.

2.1. Egitura arazoak

Zerbitzuaren egituraren ezaugarriek eragindakoak ditugu hauek, eta, nolabait esateko, funtzionamendu-arazotzat jo ditzakegu. Halakoek terminologiaren esparruan ere dute isla.

Hauek ditugu Zerbitzuaren egituraren ezaugarri nagusiak eta horiek eragiten dituzten arazoak:

- Zerbitzukoa **lantalde txikia** da, hiru itzultzailek osatzen baitugu Zerbitzua.
- Zerbitzuak **lan-eskari handia** jasotzen du, modu irregularrean eta, maiz, aldi berean (itzulpen-eskaera asko jasotzen dira batera). Premiazko eskaerak jasotzen dira, eta azkar eta aldi berean lan bat baino gehiago egin behar izaten dugu itzultzaileok.
- **Lan-eskaerak bideratzeko egitura** erradiala da, eta iragazkirik gabea. Hau da, Udaleko edozein organotako langileek eskatzen ahal dituzte itzulpenak, eta Itzulpen Zerbitzuko itzultzaileok aztertu behar ditugu eskaerak lehentasunak ezartze aldera. Ez dago inor Zerbitzuaren gainetik lehentasun horiek finkatzeko orduan. Lehentasunak ezartzeko irizpideak, oro har, premia eta epeak izaten dira.

Horiek guztiek bi ondorio nagusi dituzte:

- **Denbora-falta**. Horrek glosarioak eta **Multiterm** behar bezala osatzea galarazten digu. Multiterm-en ordez, **Tradoseko** konkordantzien baliabidea erabiltzen dugu.
- **Espezializatorik eza**. Horrek arazoak sortzen ditu terminologia behar bezala jorratzeko orduan.

Hala ere, lan egiteko modu honek baditu abantailak. Horien artean azpimarratzekoak dira Itzulpen Zerbitzuaren barneko komunikazio erraza eta lan egiteko malgutasun handia.

2.2. Terminologiaren inguruko berariazko arazoak

Terminologiaren inguruko arazoak oro har gaztelaniatik euskarara egiten diren itzulpenetan gertatzen dira. Bi motako arazoak bereiz daitezke:

2.2.1. Sorburu-hizkuntzatik (gaztelaniatik) datozen arazoak

- **Gaztelaniako testuak ilunak dira maiz, edo konplexuak, eta askotan hitzei zehaztasuna falta** zaie. Hori guztia medio, batzuetan ez da erraza jakitea hitz bat benetan termino den ala ez, eta horrek kontsultetan luzatzera behartzen gaitu.
- **Testu-motak.** Esate baterako, testuek maila handiagoko legeen eta arauen aipuak dakartzatenean, lege horiek aipaturik edo aipatu gabe. Edonola ere, ikertu behar da, lege horiek zein diren eta euskaraturik dauden jakiteko. Aurrerago ikusiko dugu modu zehatzagoan legeen inguruan sortzen diren gorabeherak.
- **Okerrak, testuetan.** Okerrak daudenean, testu-egileei egin behar zaie kontsulta, baina batzuetan ez da erraza egileekin harremanetan jartzea edota horiek ez dakite afera argitzen.

2.2.2. Xede-hizkuntza (euskarra) iturburu duten arazoak

2.2.2.1. Estandarizazio-maila

Euskarari dagozkion arazo terminologiko gehienak estandarizazioa erabatekoa ez izatetik datoz.

Estandarizazioa zer den zehazteko, Aitor Gorostizak emandako definizioari heltzen ahal diogu: «**Oro har onartua edo hedatua dagoena**» (Gorostiza, 2009). Zentzu honetan hartuta, estandarizazioak berekin dakartza arauak, ereduak eta automatismoak.

Euskararen kasuan, **estandarizazioa** ez da erabatekoa hizkera juridiko-administratiboan, beste arlo askotan ez den bezala. Eta horrek arazoak sortzen dizkigu etengabe, eguneroko zereginetan.

Teresa Cabrék, terminologiak hizkuntz normalizazioan dituen zeregina eta tokia aztertzerakoan, hizkuntza baten normalizazioa prozesu sozio-kultural dinamiko eta progresiboa jotzen du (Cabré, 2003). Prozesu horrek erabilera gutxitua duen hizkuntza erabilera osokoa bihurtu behar du. Ca-

brék argi uzten du gutxitze-egoeran dauden hizkuntzak normalizatzeko prozesuak ez direla inoiz naturalak, eta hizkuntza batek aurka duen egoera gainditzeko esku hartu behar dela, neurri batzuk hartuta.

Terminologia hizkuntza baten ezinbesteko osagaia denez (Cabré, 2003), Terminologiaren esparruan ere derrigorrezkoa da esku hartzea, hizkuntzaren normalizazio plangintzaren baitan. Eta euskarari dagokionez, egin egiten ari da.

Araututa ere egon badago nori dagokion euskarazko terminologiaren estandarizazioa: Euskal Autonomi Elkarteko «Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala arautzen duen 29ko 38/2000 Dekretuan bigarren artikuluan ezarritakoari jarraiki, «Itzulpen Zerbitzu Ofizialari dagokio euskarazko administrazio-hizkeraren nahiz lege- eta administrazio-terminologiaren batasuna, normalizazioa eta garapena bultzatzea» (Díaz de Lezana, 2004).

Praktikan, Alfontso Mujikak dioen bezala, «Gaur egungo errealitatea poloaniztuna da, eta hori, berez, ez da txarra, baldin eta komunikazio-kanalak sortzen badira eta sakabanatze terminologikoa ekartzen ez badu berekin» (Mujika, 2008). Mujikak ondokoak jotzen ditu terminologiaren sortzaile eta zabaltzaile nagusiak: Euskaltzaindia; Terminologia Batzordea; EHU; HAEE-IVAP; Hezkuntza Saila; Deustuko Unibertsitatea; EHAE, UZEI; Elhuyar; Diputazioak; EITB, Berria eta enparauak; UEU; eta zenbait enpresa (IHOBE, Euskaltek, kutxak...).

Horiei esker, urrats handiak eman dira, eta ematen ari dira, estandarizazioari dagokionez. Eta estandarizazioaren bidean garrantzi handia dute, nire iritziz, horiek guztiek **Interneten denon eskura** paratutako baliabideak.

Hala ere, hainbat arazok bere horretan dira. Miel Loinazek aipatu zituen bere momentuan Zuzenbidearen eremuari dagokionez euskarazko terminologiak izandako zailtasun bereziak, eta horien artean terminologia finkatzerakoan zeuden joera desberdinak, zeinek bateratze-bidea neketsua egiten baitzuen (Loinaz, 2007).

Nire iritziz, esparru administratibo eta juridikoari dagokionez, arazo-iturri dira gutxitan kontuan hartzen diren bi kontu:

1. Administrazio- eta lege-estandarizazioaren eta -terminologiaren inguruan aritzen garenean, euskararen eta gaztelaniaren arteko balio-kidetasuna hartzen dugu kontuan. Izan ere, izatezko errealitate bat daukagu abiapuntua: euskararen garapena, arlo horietan, Hegoaldeko erkidego politiko eta administratiboetan gauzatu da, Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroan, alegia, eta horietan Espainiako zuzenbide- eta administrazio-kontzeptu eta -arauak ditugu langai hala terminologoen eta itzultzaileok nola esparru horietako gainerrako profesional euskaldunek. Horren ondorioz, Espainiako zuzenbide-sistema bilakatu da esparru horietako terminologia eta hizkera berezituaren oinarri nagusia.

Afera ez da izendapen- edo itzulpen-kontu hutsa. Ez da soilik *lege*, *ley* izatea gaztelaniaz eta *loi* frantsesez. Itzulpen eta baliokidetza hutsetatik harago kontzeptuen eremua dago, non euskarazko terminologia juridiko-administratiboak zuzenbide-sistema espainiarrean oinarritu behar izan baitu ezinbestean.

Aurrekoak baditu ondorioak, sistema horren baitako testuak euskaratu behar ditugunok nolabaiteko morrontza baitugu, gaztelaniari dagokionez, hainbat kontzeptu euskaraz ematerakoan.

2. Bigarren arazoak Hegoaldeko banaketa politiko eta administratiboarekin dauka zerikusia. Hegoaldean ere diferentziak baitira euskarazko terminologia administratibo eta juridikoari dagokionez, EAEn eta Nafarroaren artean. Hizkuntzaren normalizazio prozesua gehiago garatu da Euskal Autonomi Erkidegoan, eta gainera hizkuntza bera, euskara, hedatuago dago bertan. Ez naiz sartuko horren zioetan (baina ezin ukatu politikak eragin handia duela kontuan...). Haatik, errealitatea bere horretan ikustea onuragarria delakoan nago. Eta errealitateak erakusten digu euskarazko terminologia juridiko-administratiboa EAEn landu dela gehien bat, modu formal eta agerikoagoan behinik behin.

Alfontso Mujikak (Mujika, 2008) aipatzen dituen «polo» horiek guztiak, adibidez, EAekoak dira (ez ditu aipatzen, esate baterako, Nafarroako Gobernu edo Nafarroako Aldizkari Ofiziala). Mujikaren diag-

nostikoa ez da okerra. Izan ere, nire ustez, Nafarroan politikak mugatu egin du, baldintzatu, terminologia juridiko eta administratiboaren inguruko lan teknikoa.

Horrek ez du esan nahi, alabaina, terminologia finkatu ez denik Foru Erkidegoan. Finkatu, finkatu dira hainbat termino eta esapide, baina modu praktikoan, NAOn, adibidez. Eta termino, esamolde eta izendapen juridiko administratibo «nafarrak» bat datoz maiz EAEn finkatutakoekin, BAINA EZ BETI. Eta hori arazo bat da gu bezalako itzultzaileontzat.

Guk, Nafarroako udal bateko itzultzaileok, gauzak zuzen egin nahi ditugu, eta saio horretan huts egiten dugu batzuetan, bi jaun edo andrearen morrontza sentitzen baitugu, pisutsu, gure buruen gainean: gaztelaniazko termino edo esapide bera bi modu diferentetan (batzuetan hiru edo lau ere badira, baina tira...) ematen badira EAEn (ezin ahaztu Erkidego horrek gobernatzen duela euskarazko terminologiaren lema) eta NAOn (kontuan hartu behar dugu hor argitaratzen direla guk itzultitako agiri asko), nori egin behar diogu kasu?

Arazoak asko dira, eta adibideak ugari, baina hemen gutxi batzuk aztertuko ditugu:

a) **Ejecución gaztelaniazko hitzaren inguruko gorabeherak.** Gaztelaniazko hitz hori esapide ugari eta ezberdinetan agertzen da: *orden de ejecución, ejecución subsidiaria, ejecución sustitutoria, unidad de ejecución, periodo ejecutivo...* Batzuetan, lege- eta administrazio-hizkerakoa da bete-betean (*orden de ejecución, ejecución subsidiaria, ejecución sustitutoria*), baina beste batzuetan hirigintzaren arlokoa ere bada (*ejecución de una obra*) edo zergetakoa (*periodo ejecutivo*).

- *Orden de ejecución*: Euskaraz, modu diferentean eman dugu: *exekuzio agindu** / *betearazpen-agindu* / *betetzeko agindu...* Udalean (nola edo hala azken urtean argitara emandako glosario, hiztegi berezitu eta berbategiei jarraituz), azken bi horiek erabiltzen ditugu orain, baina zalantza handiak izan ditugu (*betearaz-*

teko agindu ala betetzeko agindu izan behar du?), eta ditugu, esapide horren inguruan, besteak beste, «*exekuzioz*» mukurru daudelako euskarazko agiri administratibo eta juridiko asko.

- *Ejecución sustitutoria*: *ordezko exekuzio** / *ordezko betearazpen*. Udalean azken hori erabiltzen dugu. Baina beste arazo bat dugu: ez dakigu zehazki *ejecución sustitutoria* eta *ejecución subsidiaria* gauza bera diren. Horregatik, *ejecución subsidiaria* izendatzeko, *betearazpen subsidiario* aukeratu dugu (lehen aipatu ditudan glosario, hiztegi eta berbategiekin bat), nahiz iraganean hori izendatzeko *ordezko betearazpen* ere erabili izan dugun.
 - *Unidad de ejecución*: Hori *exekuzio unitate* erabiltzen dute Nafarroako Gobernuko itzultzaileek gehien, baina Euskaltermek *egikaritze-unitate* proposatzen du. Guk, Nafarroako Aldizkari Ofizialeko ereduarekin bat egitearren, *exekuzio-unitate* dugu.
 - *Periodo ejecutivo*: Nafarroako Gobernuan *premiamentu aldia* erabiltzen dute, eta Udalean ere hori hautatu dugu. Hala ere, *ordainarazpen aldi* / *betearazteko epe* / *epe betearazle** eta halakoak ere ibili dira gurean.
- b) *Expreso / expresa*: Euskaraz, *berariaz* / *espresu* / *esanbidez* erabiltzen dira gehien bat. Zalantzak izaten ditugu kasuan-kasuan aukera horien artean zein den egokiena zehazteko.
- c) *Remanente*: Hitz honekin aukera asko daude euskaraz, eta Euskalterm datu-baseak zein hiztegiek proposamen ezberdinak egiten dituzte:
- *Euskalterm*: GELDIKIN
 - *3000 Hiztegia*: GELDIKIN / GERAKIN
 - *Elhuyar*: GAINERATIKO / SOBERAKIN
- Guk *geldikin* hautatu dugu, baina ez dakigu zergatik gelditu (edo geratu) garen aukera horrekin.

- d) **Udal / Udaleko / Udalaren:** Aurreko egun batez, Itzul zerrendan antzeko eztabaida sortu zen Arte Eder/Ederretako/Ederren Museoa delakoaren inguruan. Zalantza-dantzan ibiltzen gara termino horiekin, batez ere, udal-izenak finkatu behar ditugunean.

Halakoen inguruan sortzen diren gorabeherak kontraesanetara bultzatzen gaituzte, estandarizazioaren seinale diren automatismoak (Gorostiza, 2009) finkatzea galarazten digute eta etengabe kontsultak egitera behartzen gaituzte.

2.2.2.2. Legeen afera

Etengabe itzuli behar izaten ditugu legeen izenak edo testuak aipatzen dituzten testuak. Halako kasuetan, ezinbestekoa da jakitea lege horiek edo haien izenak euskaraz dauden ala ez.

Euskaraturik dauden legeen kasuan, euskarazko bertsioak erabiltzen ditugu horiek gure testuetan aipatzean.

Gerta daiteke legea euskaraturik ez egotea, baina izenburua bai. Orduan izenburu hori erabiltzen dugu. Baina hemen arazo bat sortzen da: batzuetan itzulpen bat baino gehiago dabil hortik zehar. Kasu horretan gure arazo nagusia zein aukeratu izan ohi da.

Ez legeen testuak ez haien izenburuak euskaraz ez daudenean, guk geuk egiten ditugu haien aipuen itzulpena.

2.2.2.4. Baliabideak

Terminologia-arazoei irtenbidea bilatzeko hainbat baliabide erabiltzen ditugu, eta horien artean hauek:

- **HIZTEGIAK:** Oro har **Euskal Bar** delakoan daudenak: Hiztegi orokorrak (**Elhuyar**, 3000....) terminologia-baseak (**Euskalterm**); hiztegi espezializatu eta glosarioak (**EUROVOC**), **Orotariko Euskal Hiztegia** (ele bakarreko hiztegi gisara), **Zehazki**, **Zientzia eta Teknika Hiztegia**...

- **Euskaltzaindia** (Arauk, Jagonet...)
- **GAZTELANIAZ**ko hiztegiak
- **BESTE HIZKUNTZETAKO** baliabideak eta hiztegiak
- **ALDIZKARI OFIZIALAK:** Nafarroakoa (NAO), Euskal Erkidegokoa (EHAO) eta Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabakoak (BAO, GAO eta AAO).
- **IVAP-HAEEK** eta **IZO**k sarean eskaintzen dituzten baliabideak: Legeen euskarazko itzulpenak, hiztegiak, arau, gomendioak eta abar.
- **Euskal Herriko zein Deustuko unibertsitateetako** hizkuntza-zerbitzuak (legeak, hiztegiak eta abar)
- **ITZUL zerrenda**
- **ERAKUNDEEN** web guneak: gobernu, parlamentu eta udaletakoak, **EMAKUNDE**, **INGURUMENA** edota **JUSTIZIA.net** guneen tankerakoak, bai eta espezializatuagoak ere (esaterako, **EUSTAT**, estatistika-terminoen kasuan).
- **LEGEZALE** web gunea
- **Google**, eta, oro har, **Interneteko bilatzaileak**
- **Liburuak:** Lege-testuak, testu-liburuak, liburu espezializatuak...
- **KONTSULTAK** NAOko itzultzaileekin
- Irakaskuntzarekin edota dibulgazioarekin zerikusia duten web guneak: **ZIENTZIA.net**, **MUSIKENE**, **hiru.com...**

2.3. Iruñeko Udalean erabilitako terminoak, mailaka

Iruñeko Udalean baliatzen ditugun terminoak zehazterakoan bi maila bereiz ditzakegu:

1. **Udalari dagozkion terminoak.** Gehien bat, udal-organoen izenetan finkatu beharrekoak (nahiz kasu askotan berez ez diren termino juridiko edota administratiboak).
2. **Udalaz besteko terminoak.** Beste erakundeekin partekatzen ditugunak dira:
 - a) **Nafarroako** erakundeek erabilitakoak: udalek (Iruñeko Udala barne), mankomunitateek, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuak adostu eta finkatzekoak...
 - b) **EAEko** erakundeekin batera finkatzekoak direnak.

3. Ondorioak: Egiteko direnak

Ondorio gisara, ezinbestekoa da zehaztea zer gelditzen zaigun egiteko. Eta zeregin horietan hiru dira nagusi, gure ustez:

- I. **ESTANDARIZAZIO-prozesuarekin segitu** behar dugu, eta **terminologia finkatzeko bidean AURRERA egin**. Arlo honetan asko aurreratu badugu ere, oraindik lan asko gelditzen dela egiteko iruditzen zait.
- II. Euskarazko terminologia juridikoa eta administratiboa lantzen eta erabiltzen dugun guztien arteko **KOMUNIKAZIOA areagotu behar dugu**. Muga administratibo eta politikoen gainetik, erkidego eta lurralde diferenteetako erakundeetan lanean ari garen profesionalok gure arteko komunikazio errazagoa ahalbidetu beharko dugu, terminologiaren eta estandarizazioaren bidetik aurrera joko badugu.
- III. Hori guztia mamitu eta egituratzeko, **GUNE KOMUN bat (edo batzuk) sortzea** oso mesedegarria izanen litzateke. Puntu honetan aipatzeko modukoa da Nafarroako udaletako euskara teknikariek bizi duten egoera: sarri itzulpen-lanak egin behar izaten dituzte, nahiz itzultzaile ez diren, eta terminologiaren eta estandarizazioaren inguruko arazoak sortzen zaizkie. Haiendako, eta guretako ere bai, jakina, oso interesgarria izanen litzateke gune komun bat eskura edukitzea.

Bibliografia

AIERBE MENDIZABAL, A., 2003, «Administrazioaren iragarkiak: publizitate arloko hizkera?» in *Espezialitate-Hizkerak eta Terminologia: Jardunaldia*. Xabier Alberdi Larizgoitia eta Iñaki Ugarteburu Gastañares (Argita.), Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Leioa, 2003

CABRÉ, T., 2003, «Terminología y normalización lingüística» in *Espezialitate-Hizkerak eta Terminologia: Jardunaldia*. Xabier Alberdi Larizgoitia eta Iñaki Ugarteburu Gastañares (Argita.), Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Leioa, 2003

DÍAZ DE LEZANA, A., 2004, «Terminologia-lana euskaraz: urrats berriak» in *Ele-ria*. 12, 2004, 99-109 or.

EUSKO JAURLARITZA. HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUORDETZA, 2009, «Erabilera planak herri-administrazioetan. Euskara teknikarientzako lan jardunaldiak» www.euskadi.net

EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA; UZEI, 2002, «Terminologia Hiztegia». Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2002.

GOROSTIZA, A., 2009, «Administrazioko idazkiak berritu eta estandarizatzeko teknikak» in *Erabilera planak herri-administrazioetan*. Euskara teknikarientzako lan jardunaldiak. Bilbo, 2009/01/27-28

LOINAZ, M. (UZEI), 2007, «Terminologia-Bankuaren eguneratzea espezialitateko testu normalizatuen corpusa baliatuz» in *Espezialitate Hizkerak eta Terminologia II: Euskara estandarra eta espezialitate hizkerak*. Iñaki Ugarteburu Gastañares eta Pello Salaburu Etxeberria, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Leioa, 2007

MUJICA, A. (Elhuyar), 2008, «Aholkularitza-lanaren ustiaketa didaktikoa» (mahai-ingurua) in *ESPEZIALITATEKO HIZKERAK ETA TERMINOLOGIA III: ESPEZIALITATE HIZKEREN DIDAKTIKA ETA KOMUNIKAZIOA*. Pello Salaburu Etxeberria eta Iñaki Ugarteburu Gastañares (Argita.), Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Leioa, 2008